Egunkaria
euskaldunon
• osteguna • 1999ko martxoaren 25a -- X. urtea -- 2.574. zenbakia -- Salneurria: 125 pta. 6 libera

Korrikak Pedro Miguel Etxenike omendu du Gipuzkoa jendez gainezkatuan • 19-22

NATOk hasi du erasoa

Indar aliatuek arratsaldeko 20:00etan ekin zioten Jugoslaviaren kontrako aire erasoei

Pristinako eta Belgradeko helburu militarren eta aire defentsaren kontra bideratu dituzte aire erasoak

Jugoslaviak 20 bat gune bonbardatu dituztela dio, «baina aire erasoen kontrako defentsa ez dutela ukitu»

EEBBek eta aliatuek diote Milosevicek ez duela beste aukerarik utzi, eta hark dio zuzen jokatu duela

Errusiak bere gaitzespena azaldu du eta NATOrekiko harremanak aztertuko dituela jakinarazi

FRANCO DEBERNARDI / AP

Gerra hegazkin bat Avianoko basetik aireratzen eta ondoan Pristinako bonbardaketaren irudia.

Geresta auzia

Pistola gorpuaren ezker aldean agertu izanak kolokan jarri du suizidioaren bertsioa, tiroa eskuinetik egin baitzen • 7

LUIS TEJIDO / EFE

Egibar, Irazusta eta Otegik eman zuten mobilizazioen berri.

Lizarra-Garazi

Alderdi eta sindikatuek manifestazio eta lanuzterako deia egin dute, jarrera eraikitzailea bultzatzeko • 6

Pinochet auzia

Lorden Ganberak immunitatea ukatu egin dio Pinocheti, baina Espainiara estraditatzeko arrazoiak ere murriztu ditu • 30-32

iritzia

gaurko...

...elkarrizketa

Haritz Sudupe
• EGI-REN ABERRI BATZORDEKO IDAZKARIA •

«Gazte taldeak astero biltzen gara»

Bihar hasi eta hurrengo igandea arte EAJko gazteek EGI-Eguna ospatuko dute Zestoan.

■ **Aurtengo EGI-Egunari kutsu politiko handiagoa eman nahi izan al diozue?**

Bai, hala da. Kurduei buruzko hitzaldi bat izango dugu larunbatean, eta Lizarra-Garaziko hitzarmena ere izango dugu hizpide. Udalerrien Biltzarrak ere izango du bere tokia. Beraz, egungo egoera politikoaren analisia egingo dugu. Ekitaldi politiko garrantzitsua igandekoa izango da: Joseba Egibar eta Xabier Arzalluzek parte hartuko dute.

■ **Lizarra-Garaziko hitzarmenaren ostean gazte taldeen arteko harremanak sondotu al dira?**

Harremanak lehen izoztuak ziren. Hitzarmena izan eta gero, kontuak dezente aldatu dira. Akordioa gizarteratzeko zer ekarpen egin dezakegun gazteon artean aztertzen ari gara. Alderdi politikoek egin duten garapenik ez dugu egin ahal izan; horrek mugatu gaitu, eta eurek sortutako dinamikaren atzetik goazela esan daiteke. Denbora laburrean, harremanak ez izatetik astero bilerak egitera pasatu gara.

■ **Jarrairen aurkako operazio poliziala aurki izango dela idatzi da.**

Bake prozesua lehertzeko abian jarri duten kanpainaren beste pauso bat baino ez da.

Jose Luis Aizpuru
DONOSTIA

...esaera *«Jainkoa, bat eta bera nahikoa»*

...hizpideak

New Yorketik Bruselara Washingtonen barrena

■ Mehatxua bete da. Agindu bezala, NATOk Jugoslaviako Errepublika Federalari eraso egin dio Belgrad Kosovon egiten ari den triskantza zigortzeko.

Bosniako gerra bukatu eta lau urte geroago bakea ez da nagusitu Balkanetan. 1995. urteaz geroztik suak itzali gabe segitu du han, eta gerra egoera hau erreferentzia bihurtu da kontinente zaharreko geopolitikan.

Kosovoko krisiaren garapenari erreparatuta, ekintza militarra ia ezinbestekoa zen. Bertako albaniarren eta Serbiako gobernuaren artean Frantzian izandako bake elkarrizketek ezin izan zuten gatazka bukatu. Tragediak bere horretan zirauen Kosovon, eta nazioarteko komunitateak erantzukizun moral sendoa zeukan sarraskia geldiarazteko. Horretan ez dago dudarik. Arazoa zera da: nork eta nola ordezkatu behar du nazioarteko komunitatea?

Atzo hasitako erasoak garai berri bat irekiko du munduko estatuen arteko harreman korapilatsuetan, garrantzi handiko gertaera ekarri baitu: NATOk, bere 50 urteko historian lehendabiziko aldiz, Europa barruko estatu subirano bati eraso egin dio. Mendebaldeak nazioarteko legearen jabegoa monopolizatu du, eta aspaldian sumatzen zena –Nazio Batuen Erakundearen botere eta eragin gero eta eskasagoak– frogatu egin da: gizateria eta herrien defentsa era trakets eta aldi berean orekatu samarrean New Yorken defendatzen zen lehen; atzo eskubide hori Bruselak bereganatu zuen Washingtonen onespenarekin.

Patata ustela

■ Hainbat adituren arabera, erabaki salomonikoa hartu du Erresuma Batuko Lorden Ganberak Pinocheten immunitateari buruz. Arrazoia izan bide dute analistek bai Pinocheten aurkakoak, bai haren aldekoak gustura agertu direlako epaia jakin ondoren. Kontent egongo ez dena Jack Straw Erresuma Batuko Barne ministroa da, azken batean, lordek haren esku utzi baitute azken erabakia, hots, patata ustela.

Ekimen bateratuen beharra

■ Lizarra-Garaziko Akordioa sinatu duten alderdiek, sindikatuek eta gizarte mugimenduek manifestazioa eta lanuztea antolatu dute. Modu horretan orain arteko apustua berretsi dute, egoeraren garrantziaz ohartuta. Lizarra-Garaziko taldeek argi azaldu dute bakeari aukera bat eman behar zaiola eta ez daudela egungo prozesu politikoa zapuzten uzteko prest.

Orain arteko mobilizazio bateratuak presoen eskubideen aldekoak izan dira, gatazkaren ondorio gordinetako bat baretu nahian. Oraingoa, ordea, gatazkari berari dagokio, behin betiko irtenbide bidezko bati jarri nahi zaizkion oztopoak salatu asmo baitute aipatu ekimenek.

Halaber, ekimen eta iniziatiba politikoa non dagoen erakusten du Lizarra-Garaziko taldeen erabakiak. Egoera usteltzen utzi gabe eta etsipenean erori gabe zereginik badagoela azaldu dute.

...pertsonaiak

PILI KALTZADA • *Ur-tximeletak* poema liburua kaleratu berri du kazetari donostiarrak. Bizitza eta maitasunari buruzko barne gogoetatik sorturiko poema intimoak idatzi dituela adierazi du Kaltzadak.

CRISTINA PETITE • Japoniako Mundu Txapelketan erakutsi zuen sasoi bikaina baieztatzera doa Belfastera korrikalari bizkaitarra. Kros laburreko Mundu Txapelketan parte hartuko du hurrengo asteburuan.

JEAN GRENET • Bihar eztabaidatuko da Baionako herriko kontseiluan Errobiko kasernaren antolaketa. Sozialistek, komunistek, ekologistek eta abertzaleek bat egin dute auzapezaren jarrera itxia salatzerakoan.

...datua

10 unibertsitatek lankidetza bultzatzeko asmoz hitzarmen berezia izenpetu dute Bordelen. Akitania, EAE eta Nafarroako unibertsitateek harremanak sendotu nahi dituzte.

...adierazpena

«Zenbait herrialdek euren boterea kliman oinarritu dute»
•
Jose Ignacio Alvarez Usabiaga
Meteorologoa

... seiko urrea

ANDRES URRUTIA

Ordu onean, Augustin!

Izenburua nori lapurtu diodan jakin nahi baduzu, irakurle horrek, lekutara joateko beharrik ez duzu. Izan ere, urte batzuk dira Ondarroako udalak berebiziko omenaldia egin ziola Augustin Zubikarai bertako euskal idazleari. Orduantxe opa zion Eusebio Erkiaga lekeitiarrak Augustin Zubikarai ondarrutarrari halako goiburua: Ordu onean, Augustin!

Ondo merezia du Augustin Zubikaraik Bizkaiko Aldundiak arestian eman dion «Mañarikua» saria. Merituak aipatzerakoan, euskalgintza eta bizkaieraren suspertze lana aitortu zaizkio, betiko horri eutsi nahian jokatu baitu aspalditik Zubikaraik.

Luze joan da horren euskalgintza. Gerra aurrean hasi, gerra bitartean ekin eta gerra ostean ere, lan eta lan jardun du Zubikaraik euskal letretan, arlo gehientsuetan jorrale eta zirikalari.

Ederkaturak egin dizkio eleberriari zein ipuin idazteari, itzulpen eta kazetarigintzari adina. Gogokoen izan du, nire ustez, eta hala ederretsi ere, antzerkia. Nabarmenak dira haren testuen buruz burukoetan antzerkiaren pertsonaiek erakutsi dituzten teinkada bizi eta etengabeak. Hizkera erraza eta argia, arina, zolia, Bizkai aldeko itsas usainez ondo zipriztindua. Langile aspertuezina, nekerik gabe heldu diona herrigintzari.

Herriaren altxorra modu askotara bil daitekeela ezin uka. Sarritan, herri hizkera eta euskalgintza goi mailako kulturarekin kontra jarrita plazaratzen zaizkigu, bi–biok herri baten bizimoduan batuezinak izango balira legez. Maizegi entzun ditugu halakoak... zahartuegi omen haren lana, argumentuak, hariak; moral kutsuegi... Anartean, herriaren tradizioa galzorian, herriarekin zerikusi handirik ez duen beste zerbaitez ordezkatua.

Tradizionalistegia ote ni ere, atzetik datorrenaren beldur? Ez horixe. Oreka da nire gogoa, lehenaren eta oraingoaren arteko tirabiretan ibili gabe, bi horiek harrapatu beharra.

Makaldietan dugu Zubikarai. Ez, ostera, erabat habaildua, horren eragineko aldizkaria, Arranondo, mugonean eta hilero heltzen baita Ondarroako etxebizitza guztietara.

Betor, beraz, hasierako hori nire lumara: Ordu onean, Augustin!

• MATTIN •



Prostituzioa eta alternea

• Mª ISABEL ARBONIES •
[IU-KO GIZARTE ONGIZATE ETA OSASUN ARLOKO BOZERAMAILEA NAFARROAKO PARLAMENTUAN]

Prostituzioa edo diru truke harreman sexualak izatea munduko lanik zaharrena da, eta gizarte-, ekonomia- eta giza-faktore askori lotuta zabaldu da. Hala ere, gizarteak oraindik ere ez du onartzen alterne profesionala, zeina prostituzioa baino jarduera zabalagoa eta orokorragoa baita. Alterneak, jarduera eta kontzeptu gisa, hedadura handiagoa du, eta definitzen duen errealitateak giza-harremanetako beste alderdi batzuk ere barne hartzen ditu. Guztien oinarrian gurea bezalako gizarte garatuetan zabaldutako eskaera eta behar bat dago, konpainiarena.

Alternean diharduten pertsonen eta lokalen kopurua nabarmen handitu da, neurri handi batean emigrazioaren fenomenoari lotuta. Herrien arteko desoreka sozial eta ekonomikoan dautza fenomeno horren sakoneko arrazoiak. Etorkinak etengabe iristen dira, batez ere Latinoamerikatik, Europako Erdialdetik zein Ekialdetik, eta Afrikako Iparraldetik, eta, ondorioz, batzuek jarduera horretan bilatzen dute bizibidea.

Hala ere, errealitate honek ez du inolako onarpen ofizialik, gizartearen aurreiritziei aurre egin behar die, eta ez dago araurik edo kontrolik egiten den erari buruz. Horregatik, zehaztu gabeko jende kopuru bat marjinazioan bizitzera kondenatuta dago, errazagoa da premia-egoeren esplotazioa, eta alternean diharduten mota guztietako mafien eta esplotatzaileen preso bihurtzen dira, trukerako gai eta indarkeriaren jomuga gisa erabiltzen dituztelako. Lanbide honetako negozioetatik babesteko aitzakiarekin, beste pertsona batzuek mota guztietako mehatxuak eta bortxak jasanarazten dizkiete, indarkeria fisikoa barne.

Alterne ordaindua zerbitzu-jardueratzat edo -prestaziotzat jotzen ez denez gero, ez da posible lan- eta zerga-eskubide zein obligazioak onartzea, nola langileenak hala jarduera esplotatzen duten enpresaburuenak. Egoera horrek guztiz eragozten du egindako zerbitzuengatik soldata edo ordainsari bat erreklamatzea, ez dagoelako eskubide hori babestuko duen inolako lege-obligaziorik, eta, era berean, etekin ekonomikoen kopuru kalkulaezin bat ezkutatzea errazten du, Herri Ogasunek ezin dutelako kontrolatu.

Europan, gobernuak eta gizarte erakundeak hainbat bide zabaltzen ari dira pertsonen marjinazio eta esplotazio gero eta handiagoari amaiera emateko, egunean baino egunean onartezinagoa eta justifikaezinagoa delako ekonomia- eta gizarte-garapen handiko estatuetan. Beharrezkoa da egoera aldatzea, etekin handiekin eta arrisku gutxirekin trafiko eta esklabotasun bide berri bat sortzea errazten duelako. Europako juristek, adituek, gobernu-organoek eta gizarte-eragileek beharrezko ikusten dute gai honetan ezmoraltasun kontzeptua bereiztea, guztiz subjektibotzat eta gaur egun defendaezintzat jotzen dutelako, eta egoerari objektibotasunez, errealismoz eta legez ekitea. Onartzen dute jarduera honen zein darabilten pertsonen inguruko aurreiritziek baliorik gabe uzten dutela onarpen zibil eta ekonomikoa lortzeko edozein ekimen.

Arrazoi horiengatik, Nafarroako Izquierda Unida-Ezker Batuak ekimen legegile bat aurkeztea erabaki du alternea lanbide duten pertsonen gizarte-eskubideak onartzearen alde. Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen badu, Diputatuen Kongresuan ere aurkeztuko da, kolektibo horri bere lanbidea onartzen duen lege-tresna bat ematearren, eta aukera izan dezan bere eskubideak gainontzeko langileen baldintza berdinetan aldezteko.

Jarduera hau antzina sortu zen, gizadiarekin batean, eta bertan diharduten eskubideak argi eta garbi onartuta soilik eman ahal izango diogu amaiera egoera honi, zeinak funtsezko giza eskubideak urratzen baititu, eta beste kolektibo batzuei onartutako eskubideak ukatzen. Lege-tresna batek baino ezin gaindi dezake epe laburrean egoera iraingarri, bidegabe eta gizarte aurreratu bati ez dagokion hau, eta hark soilik alda ditzake gizartean zabaldutako hainbat estereotipo, pertsona horiei guztiz galarazten baitiete egoera onargarrian bizitzea, independentzia pertsonala izatea, eta beste alternatiba batzuk lortzeko lehian baldintza berdinetan egotea. Beharrezkoa da arlo soziolaboralean eta soziosanitarioan legezko jarduera-oinarri batzuk finkatzea alternean diharduten pertsonen gainean, eta alternea egiten den lokalei gutxieneko baldintza batzuk betetzeko eskatu behar zaie, eta, era berean, jarduera honen erabilpen eta esplotaziotik sortutako lan- eta zerga-obligazioen kontrola egin behar da.

Jarrai dezakegu jokabide hipokrita izaten lanbide honen eta bizibide duten pertsonen gainean, edo objektibitatez eta arduraz egin diezaiokegu aurre hogei mendetik gorako errealitate honi. Hori ere erronka bat da XXI. mendeko Europarentzat, eta urrats bat aurrera egitea eskatzen du, guk egin nahi izan duguna.

• Erredakzioan itzulia

LUIS FERNANDEZ

Nora doa beltz hori?

Ez nago ados etxe honetako zinema kritikariekin. Iñaki Lazkano eta Begoña del Teso, biak datoz bat, itxura, Oscar sarietako banaketan *The red thin line* gerrako film saririk gabe utzi izana injustizia dela salatzerakoan. Zinema belikoaren alorrean, *Saving private Ryan* kaskarragoa dela, topikoagoa dela, dioskute. Egia gehiago omen du bere barnean lerro gorriarenak, gerra bizitzea zer den hobeto islatzen omen du...

Zinemara joan ez direnek ere akaso ikusiko zuten *trailer* puska nahiko errepikatu bat. Soldadu gazteak han doaz, lerroan, belartza eder batetik oihanerantz; urrunean bonba hotsak entzuten direla, frontera doaz ikaraturik. Orduan, kontrako bidetik, indigena bat datorkie ia biluzik, gizon zahar bat, beltz-beltza, eta haien aldamenetik pasatzen da, kasurik egiten ez diela beldurrak jotako soldaduei. Eszena ederra da, eta berehala datorkizu ideia burura: Nora doaz gazte horiek hor, paradisu berde horren erditik, armaz kargaturik? Zergatik doaz hiltegirantz, batere kulparik gabe?

Film guztia horrela da. Soldaduaren eginkizunaren absurdo ikaratzeko eta angustiosoaren erretratu bikaina da. Paraje ikusgarri batean filmatua: Guadalcanal. Batailaren tokian berean egin baitute filma. Paisaiak ez du parekorik: oihanak, animaliak, indigenak... Mundu exotiko harrigarria da Melanesiako uharte hura.

Hala ere, dena *bluff* hutsa da. Soldaduen angustiaren erretratua primeran dago lortua. Tamalez, beste galdera batzuk geratzen zaizkigu airean, eta hor dago nire kezka. Goian aipatutako eszena horretan, adibidez, niri sortu zitzaidan duda zera izan zen: «Nora doa beltz hori?». Nor da indigena hori? Zer pentsatzen du soldaduen gainean biluzik bizi den gizon horrek? Etxean gordetzen dituen buruhezurrak (beste eszena batean ageri dira beste beltz baten etxean) norenak dira? Bere arbasoenak, ala bere aitonak garbitu eta jandako aldameneko herriko etsaienak?

Indigena horiek paisaia hutsa dira film honetan. Beti bezala. Pelikula faltsua da, beraz Elia Kazan bezain faltsua. Are faltsuagoa, esango nuke, paisaia harrigarri hori delako filmaren edertasunaren zutarria...

Eta gainera, hiru orduko *pakete* bat da.

...kornerra

MIKEL ELORZA

Latinak

■ Justizia itsu irudikatzen da, baina itxuraz ez itsua delako; lotsagatik estaltzen zaizkio begiak. Ez ikusten ez duelako, alegia; ikus ez dezan baizik. Pinocheti buruzko erabakian, ohikoa duen beste jokaldia erabili dute: begiak zapiaz estali beharrean, bakarra estali diote, txatal edo adabaki moduko batekin, eta begi-bakar utzi. «Bai, baina ez» horietako bat, esan nahi dut: arrazoi duzu, baina ez zaizu pagatuko; arrazoi duzu, baina kartzelara joanen zara; arrazoi duzu, baina inork ez du bere deliturik ordaindu beharko. Eta abar. Gurpila biribiltzeko, gainera, aditua ez denak ulertzen ez duen hizkuntzan esaten dira gauzak. Kontu teknikoak eta formazkoak aipatzen dira; latinaren izugarrizko antza duten hitzekin. Gehienek uler ez dezaten. Zehatzago: gehienek uler dezaten berriro ere izorratuko dituztela.

■ erantzuiguzu...

943 300 228 @ zuzendariari@jalgi.com

Modak anorexia bultzatzen al du?

Ez dira argitaratuko izenik gabe iristen diren mezuak. Izen-abizenak eta telefono zenbakia eman behar dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak badu horretarako eskubidea.

Hurrengo galdera:

Interbentzio militarren alde ala kontra?

■ **Ez dut uste harreman** zuzenik duenik modarekin. Anorexiarena arazo larriagoa da. Modarena, azken finean, ondorio bat da, baina ez dut uste modak anorexia bultzatzen duenik. **A. Kortajarena** (Eibar)

■ **Badu zerikusirik.** Ez dakit ondorio zuzena den, baina argi dago anorexiaren atzean, modak ezartzen duen diziplina gogorra ere badagoela. Publizitatearen eragina nabarmena da; izugarrizko indarra du zenbait balio hedatzeko orduan eta horietako bat da modarena. Moda mota konkretu baten aldeko apustua egiten da. Anorexia areagotzen duen modarena gainera. **Ana Mugika** (Bergara)

■ **Ez zait iruditzen** modak asko eragiten dionik anorexiaren zabalkundeari. Egun hauetan prentsan irakurri ditugun datuen arabera, anorexia duten gaixoen kopuruak ez du gora egin. Ez dira ugaldu anorexia kasuak. Badirudi gehiegizko arreta eman zaiola gaiari, eta ez dut uste benetan horrenbeste merezi duenik. Ez dut esan nahi arazorik ez dagoenik, baina neurtu behar dira gauzak. **Imanol Etxebarria** (Bilbo)

galdeiozu...

Patxi Zabaleta
HB-KO PARLAMENTARIOA

Bake prozesurik bizi al dugu Euskal Herrian?

Irene Lizartza [Irun]

■ **BAI; EUSKAL HERRIAN** badago bakegintza prozesu bat eta poliki-poliki aurrera doa. Bere ezaugarri nagusia, Euskal Herriko indar sozial eta politikoek bultzaturiko ekimena dela. Ez gaude Aljerko elkarrizketen garaian bezala, bi boxeolarik ring-ean egiten duenari so. Eskal Herriari ez zaio bakea oparituko, askatasuna oparituko ez zaion bezala, baina guk geuk egindako bakeari, zergatik ez diogu euskal bakea deituko?

Martxoaren 30etik aurrera
Igor Jauregi • REALEKO JOKALARIA izango da
Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.

zuzendariari

Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.

Irantzu Gallastegiren detenzioa dela eta

Irantzu Gallastegi ikasle ezagutu genuenok adierazi nahi dugu emakume eta ikasle jator ezagutu genuela, detentzioa dela-eta jasan lezakeenak arduratzen gaituela, eta gure artean aske azkar izan dadin desio diogula. **Angel Zelaieta eta beste 20 sinatzaile gehiago** LOIU (BIZKAIA)

Oti Basaurira orain!

Azken egunotan esan digute preso gutxi batzuk kaleratu edota hurbiltzekotan direla. Honekin espetxe politikaren nolabaiteko norabidearen irudia zabaldu nahi dela ematen du, arazo larriak dituzten presoen egoera behintzat konpondu edo kontutan hartzen delako irudia, alegia. Gobernuaren «gizatasunaren» erakusgarri.

Errealitatea gordinagoa da baina. Berez preso guztiek izan beharko lukete hemengo kartzeletan, herri honen gehiengo sozial eta politikoak era eta modu guztietan eskatu duen bezala. Horretan ez da aldaketarik espetxe politikan. Baina ezta egoeraren larrian arazo bereziak dituzten presoen kasuan ere.

Horren adibidea dugu Iñigo Otazua *Oti*-ren egoera. Oti 1994an atxilotu zuten. Carabanchel eta Alcala-Mecon izan ondoren orain Cuencan dago, etxetik 600 kilometrotara. Bere amak, Milagros Urrestik, ezin du semea ikusi, elbarria delako. Behin eta berriro eskatu du Basaurira etortzea ama ikusi ahal izateko. Izan ere, preso guztiek daukate etxekoekin bisita egiteko eskubidea (art. 51 LOGP), edota senide hurbil gaisoak etxean zaingopean ikusteko eskubidea (art. 155 RP). Baina Otiri eskabide eta helegite guztiak atzera bota dizkiote orain arte.

Horixe da espetxe politikaren norabidea, bada: ez irtenbiderik, ez konponbiderik.

Zergatik ez dute Oti Basaurira ekartzen? Zergatik jasan behar herriaren gehiengoak gaitzetsitako zigorra? Erantzuna gure esku ere badago: herritarrak, elkarte sozialak, erakundeak, alderdiak, instituzioak...! • **Uxune Iriondo** GETXO (BIZKAIA)

Korrika

Zer da Korrika? Korrika euskararen aldeko ekitaldi bat da. Aurten 11. Korrika ospatzen ari da. Baina nondik dator Korrika? 1980an jaio zen Korrika. Zenbait AEK-ko kideren aldetik Korrikaren ideia sortu zen.

Korrika denon eta denontzako ekitaldi bat da. Mundu guztiak parte hartu ahal du. Hori horrela ez balitz Korrika ez litzateke hain garrantzitsua izango. Horregatik hurrengo martxoaren 26an zu gurekin egotea nahi dugu.

Ez dauka inportantziarik zure adinak, ezta zure sexuak ere. Ezinbestekoa den gauza bakarra, hauxe da: Euskararen alde egotea orain eta betiko • **Bizitze Portugaleteko Xaribari Euskaltegiko 4. urratseko ikasleak** PORTUGALETE (BIZKAIA)

ZUZENKETA: Atzoko alean akats bat atera zen bigarren orrialdeko *Pertsonaiak* izeneko atalean. Felipe Riusi zegokion tokian Joxerra Garziaren argazkia atera zen. Barkamenak biei.

• MONTXO •



Kosovo: NATO bakarrik, NBEren sustengurik gabe?

• JONATHAN D. TEPPERMAN •

[*FOREIGN AFFAIRS* ALDIZKARIKO ZUZENDARIORDEA]

NATOk, 1995ean, serbiarrak amore ematera behartzeko lehendabizikoz bonbardatu zituenean, bere gain hartu zuen Nazio Batuek Bosnian betetzen zuten baketze eginkizuna. Ordudanik, Mendebaldeko jendeak nahasi egin ditu bi erakundeak. Badirudi NATO eta Nazio Batuen Erakundea elkarren trukagarri bihurtu direla. Ondorioz, egoki ematen du NATOk Kosovon esku-hartzeak.

Baina kontua da NATO ez dela Nazio Batuen Erakundea.

Munduan, NBE da nazioarteko erakunde nagusia. «Nazioartean bakea eta segurtasuna» iraunaraztea da haren eginkizuna, eta sortze beretik «ondorengo belaunaldiak gerraren zigorretik salbatzea». NATO guztiz desberdina da: 19 herrik elkar babestu eta, beste herriren batek haietako bati erasoz gero, elkarri laguntza emateko egindako itunaren adierazpidea da.

Nazio Batuen Erakundea mundua etorkizunean gerretatik babesteko sortu zuten. NATO, berriz, Europako Mendebaldea Sobiet Batasunetik babesteko.

Nazio Batuen Gutunak ahalmena ematen dio Segurtasun Kontseiluari zigorrak edo esku-hartze militarrak onartzeko, haren ustez "bakea arriskuan, bakea hautsita, edo eraso bat" gertatzen den guztietan. Ipar Atlantikoko Tratatuak ez du horrelako araurik biltzen. Nazio Batuen Gutuneko printzipioen arabera jokatzeko promesa gabe, NATOko kideen lurraldean eraso bat gertatuz gero elkarren alde borrokatzeko konpromisoa baino ez dute beren gain hartzen.

Inondik ere Serbiak albaniarrak sarraskitzean nazioarteko lege humanitarioak hautsi ditu, baina nekez jar zezakeen arriskuan NATOren lurraldea. Hortaz, zergatik sartu da tartean NATO? Nork bihurtu du mundu guztiko polizia?

Erantzuna 1994. urtean dago, NATOk Bosniako gerran esku hartu zuenean. Orduan argi ikusi zen NBEko bakezaintzaileak ez zirela gauza gerran ziharduten aldeak bereizita izateko, eta ondorioak ikaragarriak izan ziren. Hori ezin argiago gelditu zen 1995eko uztailean, Serbiako indarrek NBEk Srebrenican zuen *aterpe seguruaz*- jabetu eta musulmanak sarraskitu zituztenean, bake-zaintzaile holandarrek, ezinean, ezer ere egiten ez zuten bitartean. NATOren erantzuna serbiarrak bonbardatzea izan zen.

Bost hilabete geroago, Daytongo bake akordioa sinatu zen, eta NATOko tropek NBEko kasko urdinen lekua hartu zuten.

NATOk Bosnian egindakoek Segurtasun Kontseiluaren baimena zuten. Horrek legitimitate marka ematen zien. Mundu osoak ordezko aukeratu zuen NATO, jardun zezan.

Kosovon, berriz, ez da horrelakorik gertatu. NATO ez da inoiz kezkatu kanpo-onarpena lortzeaz Slobodan Milosevic mehatxatzen hasi aurretik. Izan ere, bazirudien NATOko buruzagiek nahita saihesten zutela NBEn egin beharreko prozesu astuna. NATO, azkenean, serbiarrei erasotzen badie, bakarrik izango da, eta ezingo du eskatu mundu osoaren laguntza.

Axola dio horrek? NATOk mendebaldeko munduaren zati handi bat ordezkatzen du. Mendebaldean edo beste non-nahi, jende gutxik nahi du Kosovon odola isurtzen jarraitzea. Eta, hain zuzen ere, NATOren alde batekotasunak –Segurtasun Kontseilu menderakaitzak noiz erabakiko zain egon gabe, neurri erabakigarriak hartzeko haren gaitasunak– bihurtzen du horren eraginkor NATOren jardunbidea.

NATO, bederen, zerbait egiten ari da serbiarren inguruan, edo egingo duela prometatzen. Ez litzateke hori txalotu behar? NATOk, erakundeko herri kideek elkarri babesa emateaz gain, nazioartean polizi eginkizuna ere bete nahi badu, ez genuke horretara bultzatu behar?

Beharbada. Baina, gutxienez, NATOn dauden herrietako politikariek eta jendeak oso argi izan beharko lukete zer gertatzen ari den.

Hori NATO da, eskualde-erakunde bat, soil-soilik, eta ez Nazio Batuen Erakundea. Baliteke mendebaldarrek batzuetan biak nahastea, baina apustu egin dezakezue ez zaiela gauza bera gertatzen errusiar askori. Mendebaldeak, nazioarteko legea bere eskuetan hartzen hasten bada, hobe du erantzun bat prest edukitzea, errusiarrek edo txinatarrek zergatik ez luketen gauza bera egin behar galdetzen dutenerako.

Nazioarteko legea ez da guztia, baina, era berean, egokitasuna ez da kontuan hartu beharreko gauza bakarra. Alde bateko ekintzak, askotan, alde anitzekoak baino errazagoak izaten dira, eta nor bere kabuz ibiltzea batzorde batetik igaro behar izatea baino askoz lasterragoa da, baina, izan, arrazoi batzuk izan genituen batzorde horiek sortzeko.

NATOko kideek, Nazio Batuen Erakundea eta horrek ematen duen legitimitatea alde batera utzi baino lehen, oso argi izan beharko lukete zehatz-mehatz zertan ari diren, eta prestatuta egon beharko lukete beste batzuek gauza bera egiten dutenerako.

• ***Erredakzioan itzulia***

'International Herald Tribune'-tik hartua

hirusta...

JASONE OSORO

Bai, esan?

Telefono dei bat jasotzen duzu eta ahots goxo batek mezu bat daukazula esaten dizu. Berehala musika zerutiarra entzuten da eta jarraian maitasun adierazpen bat edo zorion agurra eskaintzen dizute. Gainera, deia jasotzeaz bat mezulari batek zure etxeko atea jotzen du eta gosari egin berria edo larrosa sorta ederra oparitzen dizu. Ilusio saltzaileak dira. Jendearen artean zoriontasun hondarrak banatzetik etekina ateratzen duten enpresak. Brasilen era honetako zerbitzua eskaintzen duten 5.000 enpresa daude.

Zer egingo genuke telefonorik gabe? Larrialdi kasuetarako telefono zenbaki berezia daukagu, eguraldia jakiteko beste zenbaki bat, itxaropenaren telefonoa, HIESari buruzko argibideak ematen dituena, premia sexualak etxetik mugitu gabe ase ditzakegu, sofatik altxatu gabe Txinako janari exotikoaz goza dezakegu...

Garbi dago: nahita ere, ezingo ginateke bizi telefonorik gabe. Lerro hauek idazten ari naizela, iragarki telefoniko bateko pertsonaia gorrotagarriaren ahotsa eta piribiri, piribiri musika enpalagosoa iritsi zaizkit bizilagunaren telebistatik eta nik neuk lau bider altxatu behar izan dut ditxosozko deiak erantzutera. Kablea eteteko tentazioa izan dut, baina... ustegabean iristen diren dei horietakoren bat bada? Esaldi robotizatua beharrean aspaldian entzun gabe duzun ahots desiratua bada?

Maite dut telefonoa, batez ere nik nahi dudanean nik nahi dudanak deitzen badit.

...hemeroteka

Apustu egiteko garaia da!

MARTA AGIRREZABALA

[EHNEko kidea]

(...)Denbora gutxian euskal gizarteak bere jatorria ahaztu eta baloreak galdu ditu, erabat hiritartuz eta bere jatorria era folklorikoan bakarrik gogoratuz: Zein polita den baserri (baserri=etxebizitza soila hartuta) batean bizitzea asteburuak pasatzeko... (...)Folklorista hutsak bihurtu gara gure jatorriari dagokionean, eta zentzu horretan izugarrizko lana egin dute gure agintariek, maila handi batean, baserritarrak erabiliz; hortik nekez transmitituko dizkiegu geure izatea eta sustraiak gure ondorengoei. Baserriaren galerarekin gure nortasun osoa dago jokoan, esna gaitezen!

Egun hauetan Europara begira gaude haiek gurekiko errukituko direlakoan eta Euskal Herriaren interesak defendituko dituztelakoan, ordezkatzen gaituen nazioa barne! Inozoak benetan gu. Europak aspaldi egin zuen apustu Euskal Herriko baserriak desagertu zitezen, urte asko dira jadanik, eta tarte horretan euskal gizartea, agintariak barne, lozorroan egon da, eta Euskal Herriari handik eta hemendik gero eta labankada sakonagoak eman dizkiote. (...)

Borroka hau guztiona da, ez soilik baserritarrena. Euskal baserriaren alde apustu egiteko garaia da.

SERGEY /LE MONDE

ATZO ZEHAZTU ZUTEN PROZESUARI AZKEN ALDIAN EGIN ZAIZKION ERASOEI ERANTZUTEKO MODU BATERATUA

Lizarra-Garaziko sinatzaileek manifestazio eta lanuzte baterako deialdia egin dute

- Apirilaren 10ean manifestaldia egingo da Bilbon 'Bakea eraikitzen-Euskal Herriak du hitza' lemapean
- Prozesuak azken aldian jasan dituen erasoek aurrerantzean jarraipena izango dutela diote Lizarra-Garaziko sinatzaileek
- Bake prozesuarentzat eragozpen izan daitezkeen jarrerak arbuiatzea eskatzen dute atzo aurkeztutako agirian

I. Olabarri / **Bilbo**

ASTEAN zehar Lizarra-Garaziko hitzarmena sinatu zuten alderdi, sindikatu eta erakunde sozialek iragarri zituzten mobilizazioak finkatu ziren atzoko bileran. Apirilaren 10erako Bilbon manifestazio isil bat antolatu dute, bihar bertan arratseko 20:00etan ordu erdiko bilkura isilak egingo dituzte udalerri guztietan, eta apirilaren 12an 12:00etatik aurrera ordubeteko lanuzteak. HBko Arnaldo Otegi, EAJko Joseba Egibar, IU-EBko Antton Karrera eta ABko Richard Irazustak eskaini zuten atzo Bilbon prentsaurrekoa mobilizazioen berri emateko.

EAJ, HB, EA, IU-EB, AB, Batzarre, Zutik, ELA, LAB, EHNE, ESK, STEE-EILAS eta Hiruk sinatutako agirian aipatzen dituzten mobilizazioak *Bakea eraikitzen-Euskal Herriak du hitza* lemapean egingo dituzte. Sinatzaileek zera agertzen dute euskal gizarteari zuzendutako agiri horretan: «Egungo prozesu politikoa gero eta atzeraezinago egiteko konpromiso eta jarrera konstruktiboak galdegiten dizkie esparru instituzional, politiko eta sindikalei. Erantzun egokia eman behar diogu guztiok herrian horren hedatuta dagoen sentimenduari».

Mobilizazioetako deialdi guztiak «era aktibo eta demokratikoan bere egin ditzan» eskatu zioten euskal gizarteari sinatzaileek. Agirian agertzen dutenez, «argi utzi nahi dugu egoera berri honek zera eskatzen duela: prozesuak piztu dituen energia eta itxaropen guztiak ekintza bateratu, anitz eta demokratiko bilakatzea».

Erantzun horrekin prozesuaren alde egiteko duten asmoa argi eta garbi adierazi nahi dute sinatzaileek. «Soilik jokabide horrekin izango gara ireki diren elkarlan guneak indartu eta abiatu den prozesu politikoa behin betiko finkatzeko gauza».

Antton Karrera, Joseba Egibar, Richard Irazusta eta Arnaldo Otegi, atzo Bilbon eskainitako prentsaurrekoan.

XOUSE SIMAL

Oztopo diren jarrerak arbuiatu

Lizarra-Garaziko sinatzaileen idatziak diotenez, «euskal gizarteak argi utzi du bere heldutasuna, eta badaki bereizten Euskal Herriarentzat bake eta demokraziazko eszenatoki berri bat nahi dutenen eta iraganeko egoeretan jarraitu nahi dutenen artean».

Azken boladan prozesuak eraso ugari jasan dituela salatu eta eraso horiek etorkizunean jarraipena izango dutela iragarri zuten agirian. «Horiek ere erantzun bateratu, tinko eta irmoa eskatzen dute».

Atzoko agirian une zailak direla nabarmentzen dute sinatzaileek. «Euskal Herriko emakumezko eta gizonezkooi bi oinarri dituen mezua adierazi nahi dizuegu: lasaitasuna, batetik, eta gatazkaren konponbiderako elkarrizketa eta negoziazio bideen apustuarenganako konfiantza, bestetik».

Agiriaren azken lerroetan agertzen dutenez, «herriko gehiengoaren borondateak berretsitako bide politikoak eta erabaki demokratikoak dira benetan eraginkor eta ukaezinak. Inork ez dezake euskal hiritarren borondate askea ordezkatu, ez eta eragotzi ere».

egitaraua

Martxoaren 26a: Arratsaldeko 20:00etan hasita, ordu erdiko bilkura isilak Euskal Herriko udalerri guztietan.

Apirilaren 10a: Manifestazio isila Bilbon, arratsaldeko 17:30etan hasita.

Apirilaren 12a: Ordubeteko lanuztea, eguerdiko 12:00etatik aurrera.

«Erantzun polizial eta judizialak Madril eta Paristik»

ETA-K su-eten mugagabea indarrean jarri eta sei hilabete igaro direnean, eta gehiengo sozialak konponbiderako proposamen demokratikoak eskatu dituen artean, Frantziako eta Espainiako Estatuek ez dutela erantzun baikorrik eman nabarmendu zuten atzoko agiria sinatu zuten Lizarra-Garaziko alderdi, gizarte erakunde eta sindikatuek.

Sinatzaileek atzo adostutako agirian esaten dutenez, azken sei hilabeteetan «Espainiako eta Frantziako bi Gobernuen arduragabekeria politikoa nabarmen geratu da» . «Euskal gizarte eta erakundeen erabakiekiko mespretxu sistematikoa eta elkarrizketaren ukapenaren ondorioz, gobernu biek kutsu politiko nabaria duten erantzun polizial eta judizial hutsetara jo dute», adierazten du Lizarra-Garaziko sinatzaileek euskal gizarteari zuzendu dioten idatziak.

Lizarra-Garaziko hitzarmena sinatu duten alderdien aurkako deskalifikazioak etengabeak direla diote, era berean, atzo ateratako agirian. «Era berean, deitoragarria da hainbat sektore poltiko eta mediatiko garrantzitsuk egoera berri hau aintzat hartu nahi ez izana, edo soilik bere aurka jarduteko eta porrot egin dezan ahaleginetan jarduteko ez bada, horrela bake prozesuko eragile aktibo bilakatzeari uko eginez».

Jose Luis Gerestaren heriotza

Pistola Gerestaren ezkerraldean agertu zen, tiroa eskuinean jaso bazuen ere

Eginbide judizialetan jasotzen da datua, eta suizidioaren bertsioa zailtzen du

Pello Urzelai / **Donostia**

Jose Luis Gerestaren gorpuaren jasotze eta begi azterketaren eginbide judizialean jasotzen denez, hiltzeko arma zerraldoaren ezkerraldean zegoen eta bala, aldiz, eskuin aldetik sartu zen. Datu horiekin zaildu egiten dute suizidioaren hipotesia, batez ere gorpua ahoz gora zegoela kontuan hartuta.

EDURNE KOCH

Jose Luis Gerestaren gorpua topatu zuten Errenteriako Zamalbide auzoko zelaia.

JOAN den larunbatean Jose Luis Geresta ETAko ustezko militantea Errenteriako Zamalbide auzoko zelai batean hilik aurkitu zutenean, gorpua jaso aurretik guardiako epaileak, forentseak eta idazkariek lagunduta eta polizia judizialen aurrean begi azterketa egin zen. «Gorputzaren ondoan eta ezkerrean pistola bat atzeman da belarraren gainean, 22 kalibrekoa, baita Minor-Leig 15 puru kutxa txiki bat». Horrela irakur daiteke EGUNKARIAk eskuratu duen eginbide judizialaren idazkian. Segidan tiroaren berri ematen du aipatutako idazki judizialak: «Mediku forentseak zehatzago aztertuta, hildakoak bala sarrera zulo bat dut eskuineko lokian eta irtera zuloa beste aldeko lokian». Beraz, tiroa eskuineko lokian jaso bazuen eta pistola ezkerraldean bazegoen, ulertezina da suizidioaren hipotesia. Bere buruaz beste egin zuela argudiatu nahi duenak pistolaren kokapena azaltzeko arrazoi berezi bat ematera behartuta dago, kasu hauetan ohikoena eta logikoena pistola tiroaren aldean agertzea baita.

Itxaso Idoiaga medikuarekin hitz egin ostean, hark adierazi zion EGUNKARIAri gorputza trabeska egonda ez litzatekeela harrigarria izango pistola gorpuarem ezkerrean topatzea, baina, aldiz oso harrigarria litzatekeela pistola ezkerretan egotea gorpua buruz gora bazegoen. EGUNKARIAk gorpua ikusi zuen Zamalbideko bizilagun batekin hitz egin zuen, eta honek baieztatu zuen gorpua erabat buruz gora zegoela. Lekukoaren arabera, gorpua buruz gora zegoen zabal zabal, «jendeak eguzkia hartzen duenean jartzen den moduan». Datu honek, beraz, Gerestak bere buruaz beste egin zuenaren datua zailtzen du.

Gorpua jaso aurretik egindako azterketa hartan beste zenbait datu jasotzen dira aipatuko eginbide judizialean. Esaterako, belaunetan zauritzoak zituela.

Bestetik, hasiera batean balazorroa ez zutela topatu azaltzen du txostenaren egileak. Gerora, ordea, antza ertzainek topatu egin zuten balazorroa.

Gorpuak behintzat ordu batzuk hilik zeramatzala hilik ere agertzen du lehen ikusketa horrek, izan ere, gorpua erabat gogortua zegoela azaltzen du.

Donostiako fiskalak diligentziak ireki ditu Otegik Gerestaren heriotzari buruz egin adierazpenengatik

Agentziak / **Madril**

DONOSTIAKO Fiskaltzak diligentziak ireki ditu Herri Batasunako buruzagi eta EHko legebiltzarkide Arnaldo Otegik iragan igandean egindako adierazpenengatik. Jesus Cardenal Estatuko fiskal nagusiak herenegun iragarri zuen Otegiren aurkako neurriak hartuko zituztela, eta Donostiako fiskalak atzo bertan ireki zituen haren kontrako diligentziak.

Otegik Jose Luis Gerestaren heriotza estatu krimena izan zela adierazi zuen iragan igandean, haren gorpua identifikatu ostean emandako prentsaurrekoan. Arnaldo Otegik Geresta «eraila» izan dela adierazi zuen, Gerestaren heriotza «estatu aparailuek egindako krimen» gisa definituz. Hori dela-eta, adierazpen horietan delitu aztarnarik dagoen ikertzeko asmoz, Navajasek diligentziak irekitzea erabaki du, Cardenal fiskalarekin elkarlanean.

Donostiako fiskalak dagoeneko hainbat dokumentu eskatu ditu, ikerketarekin hasteko. Hala, Ertzaintzari eskatu dio idatzizko komunikabideek igandeko prentsaurrekoan egin jatorrizko grabazioak lortu eta Fiskaltzari eman diezaizkiola. Bestalde, fiskalak eskatu du Ertzaintzak ETBk egindako grabazioaren kopiak lortzea.

Eusko Legebiltzarrari ere zuzendu zaio fiskala bere diligentzietan, Arnaldo Otegiren legebiltzarkide kargua baieztatu dezala eskatuz. Eusko Legebiltzarreko Idazkaritzak egiaztatu egin beharko du Otegi Euskal Herritarrok taldeko legebiltzarkidea dela. Izan ere, kargu hori izateagatik Otegiri buruzko ikerketak EAEko Auzitegi Nagusiak egin behar ditu.

Jaime Mayor Oreja Espainiako Barne ministroak, bestetik, "zentzuzkoa eta neurrizkoa" iritzi zion fiskalak diligentziak irekitzeari. Mayor Orejaren arabera, Otegik egindako adierazpenak "probokatzaileak" dira.

Balzak dioenez, «gaur egun» ez du planteatzen AABei isunak barkatzea

Guztira 134 milioi pezetako zorra dutela adierazi du

L.K.G. / **Gasteiz**

JAVIER BALZA Barne sailburuak «gaur egun» ez du planteatzen Amnistiaren Aldeko Batzordeei jarritako isunak barkatzea. Hala esan zuen atzo goizean Eusko Legebiltzarreko batzordean PPko Carlos Urkijo parlamentarioak «diru zigorrak barkatzeko formulaz» galdetutakoari erantzunez, eta, zehatzmehatz, zorra barkatzearen aldeko ote den itaundu ondoren.

Sailburuaren arabera, egun 134 milioi pezetako zorra dute (5 milioi libera). Hala ere, zehaztu zuenez, berez ez dira AABen aurkakoak, pertsona batzuen kontrakoak baizik.

Balzak bi barkatze mota daudela esan zuen: penala eta administratiboa. Bigarrena arau juridikoek behar bezala babesturik dagoela esan zuen. «Guztiz posiblea da juridikoki», argitu eta aipatu isunei aplikatzeko modukoa dela onartu zuen. Kasu horretan, barkatze penalean ez bezala, Jaurlaritzak eman beharko lukeela ezagutarazi zuen.

EAEn bizi behar duten arren, 169 ertzain kanpoan bizi dira

L.K.G. / **Gasteiz**

GAUR egun 169 ertzain Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo bizi direla adierazi zuen Javier Balza Eusko Jaurlaritzako Barne sailburuak atzo goizean Eusko Legebiltzarreko batzordean egindako agerraldian.

Kontseilariak berretsi zuenez, EAEtik at bizi diren polizia autonomikoak ez dira legalitatea betetzen ari, zenbait arautegik exijitzen baitute ertzainek diharduten komunitatean bizi beharra daukatela. Horregatik, Poliziaren legea betetzeko deia egin zien.

Izan ere, Balzak aipatu bezala, ertzainek «egoitzari buruzko eginbeharra» bete behar izaten dute legez. «Ertzain bat ertzaina da zerbitzuan ez dagoenean ere», adierazi zuen.

Polizi operazioa Nafarroan

Bost lagun atxilotu ditu Guardia Zibilak Sakanan, Baltasar Garzonen aginduz

Madrilera eraman zituzten atzo, kale istiluetan parte hartzeaz akusatuta

Erredakzioa / **Iruñea**

Guardia Zibilak bost lagun atxilotu zituen atzo Nafarroako Sakanan, Baltasar Garzon Entzutegi Nazionaleko epaileak agindutako operazio batean. Arbizun, Francisco Jabier Razkin Flores HBko zinegotzia, Fernando eta Jose Luis Imaz anaiak eta Mikel Gartziandia atxilotu zituzten, eta Lizarragabengoan Manuel Garmendia. Atxiloketak eta miaketak egiteko, Guardia Zibilak hedatze ikusgarria egin zuen atxilotuen etxeen inguruan. Espainiako Gobernuaren Nafarroako ordezkaritzaren arabera, Sakanan izandako bide mozketekin lotuta daude atxiloketak.

ATXILOKETA guztiak atzo goizaldean egin zituen Guardia Zibilak, goizaldeko ordu bietatik lau t' erdiak bitartean. Polizi operazioa Arbizun (Nafarroa) hasi zen Mikel Aingeru kalean. Lekukoen arabera, guardi zibil ugari zabaldu zen auzo osoan, batzuk oinez eta beste batzuk furgoi eta kotxeetan. Auzo horretan hiru lagun atxilotu zituzten: Mikel Gartziandia (26 urte), Fernando Imaz (29 urte) eta Francisco Jabier Razkin Flores HBko zinegotzia (40 urte). Arbizuko Akerruntza auzoan, Jose Luis Imaz (26 urte) atxilotu zuten eta Etxarri-Aranazko Lizarrabengoa auzoan J. Manuel Garmendia (32).

Guardia Zibilak ohar baten bidez jakinarazi zuen atxiloketa hauek Sakanan izandako sabotaje batzuekin lotuta daudela eta *Y talde* bat desegin duela. Sakanan azkenaldian izandako kale istilu bakarrak Sakanako autobidearen bi bide mozketa izan dira, Paris eta Gipuzkoako atxiloketen ondorengo protestaldietan. Izan ere, Baltasar Garzonek bideratutako atxilotze eta miatzeko aginduetan gertaera horiek bakarrik aipatzen dira. Martxoaren 9an, kamioi bati harriak eta koktelak bota izana eta hurrengo egunean barrikada bat egin eta kaminioi bat harrikatu, geldiarazi eta giltzak kendu izana egotzi die epaileak aipatutako autoan. Ekintza horiek terrorismo delitutzat jo ditu. Guardia Zibilak Iruñeko komandantziara eraman zituen bost lagunak eta handik Madrilgo komandantziara.

MIKEL UHARTE

Arbizuko zenbait herritar udaletxera sartzen, herri batzarra egin baitzuten atzo.

Operazioak alarma sortu zuen Arbizuko bizilagunen artean, alkateari abisu eman zioten. Patxi Leitza alkatea (EA) eta Alberto Urkia zinegotzia (HB) kalera irten eta goardia zibilengana jo zuten bizilagunen egoeraren berri jakin nahian.

Guardia Zibila atxilotze eta miatzeko aginduarekin sartu zen etxe guztietan, Imazen kasuan izan ezik. Kasu honetan, anaia Francisco atxilotu ondoren, hirugarren anaiari agindu zioten lehenaren etxera laguntzeko ataria zein zen ez zekitelako. Jose Luis atea irekitzean atxilotu zuten, etxean sartzeko agindurik ez baitzeukaten. Mikel Gartziandiaren etxean sartu zirenean hasiera batean honen gurasoak gela batean itxi zituzten eta gero lekuko gisa erabili. Miaketan Jarrairen bi hautsontzi, diskete zaharrak, agenda bat, liburu bat eta mendiko bi labana atzeman zituzten. Garmendiaren kasuan ordu betez miatu zuten etxea eta eramaterakoan amak musu bat eman nahi izan zioenean guardia zibilak eragozten saiatu ziren tentsio une bat sortuz, familiak salatu duenez.

Ansuategik informazioa ukatu zion Arbizuko alkateari

ATXILOTUEN senideak eta Arbizuko alkate Patxi Leitza (EA) Iruñera joan ziren atzo goizean bost sakandarren egoeraren berri jakin ahal izateko. Senideek Guardia Zibilaren Komandantziara jo zuten, baina han ez zieten batere informaziorik eman. Arbizuko alkatea Gobernu Ordezkaritzara abiatu zen zinegotzi batekin batera eta Javier Ansuategirekin hitz egitea erdietsi zuen. Honek baieztatu zion atxilotuak Madrilen zirela. «Hamabost minutuz egon ginen hizketan», adierazi zuen Patxi Leitzak. «Nik galdetzen nion ea zergatik atxilotu zituzten. Ansuategi bere horretan mantendu zen eta ez zidan informazio handirik eman. Operazio poliziala zela, martxoaren 9 eta 10an gertaturikoak egozten zitzaiela eta kitto. Ondoren zera esan zidan: 'Informazio gehiago nahi izanez gero deitu Amnistiaren Aldeko Batzordei, eurek eman baitute nik eman dizudan informazioa eta gehiago'. Nik erantzun nion ez zitzaidala axola AABek esan zezaketena, momentu horretan berak, Ansuategik, erantzule politiko bezala eman ziezakedan informazioa nahi nuela».

Arbizuko alkateak Ansuategiri komentatu zion ere azken bi astetan Guardia Zibileko bi *land rover* pasiatu direla egunero herritik. «Esan diot horrelako gauzek egoera tentsatu egiten dutela eta eskatu diot bisitaldi horiekin bukatzeko. Berak ez du prometitu kenduko dituela, baina behintzat esan du begiratuko duela».

HBren ustetan, Gobernuaren probokazio estrategiak aitzina jarraitzen du

Erredakzioa / **Iruñea**

HB-KO foru parlamentario eta mahaikide Shanti Kirogak atzo komunikatu batean adierazi zuenez, «Gobernuaren probokazio estrategiak aitzina darrai atxiloketa berriekin». Bere ustez, espainiar eta frantziar estatuek baliabide guziak erabiliko dituzte Lizarra-Garazi akordioarekin hasi prozesu politikoa bertan behera uzteko. «Gerestaren heriotza, gure iritziz, horren froga da. Testuinguru berean daude egunotako zein gaurko atxiloketak», erran zuen.

HBk arbitrariotzat jo ditu Sakanako atxiloketak. «Denak balio du eurendako, herrien okupazioa eta ordu ttipietan etxeetan sartzea autoa bezperako eguerdian sinaturik egon arren». Kirogaren aburuz, Gobernuaren probokazio estrategiaren lehentasunezko jomuga da HB. Hori baieztatzeko HBren aurkako ekintzak zerrendatu zituen: bi zinegotziren atxiloketa, Nazioartea Alorreko hainbat kideren atxiloketa eta Donostiako egoitzaren miaketa. Azkenik, mobilizazioetan parte hartzeko deia egin zuen Kirogak.

Jarraik dio Estatuaren apustua gerra dela eta erantzun bateratu eskatzen duela

Erredakzioa / **Iruñea**

JARRAIK atzo igorritako prentsa ohar batean adierazi zuenez, «Estatuaren apostua gerra da, eraikuntza nazionalari indarrez eta determinazioz ekin diogulako». Jarraik azpimarratu nahi izan du operazio poliziala oraindik irekirik dagoela eta Jarrairen kontrako ekintza ere iragarria dagoela. «Hori da beraien estrategia, belduraren estrategia», adierazi dute. Jarraik deialdia egin du atxiloketei erantzuteko. Bestetik, heldu den ostiralean kontzentrazioak eginen dira ikastetxeetan «Utzi pakean euskal gazteria, Euskal Herria defenditu eta eraiki» lemapean.

Politikagintzan dagoen sumindura salatu du Confebaskek Ibarretxerekin elkartu ondoren

Herri Batasunaren «apustu demokratikoa» laudatu du Baltasar Erraztik

Asier Pz. de Karkamo / **Gasteiz**

Elkarrizketa sorta berriari ekin zion atzo Juan Jose Ibarretxe Eusko Jaurlaritzako lehendakariak EAEko giza taldeekin, egungo prozesuaren inguruan iritziak trukatzeko asmoz. Atzo enpresarien ordezkariekin bildu zen. Gaur, berriz, ELA eta CCOO sindikatuetako ordezkariak hartuko ditu Ibarretxek.

MIREN SAEZ

Juan Jose Ibarretxe, EAEko lehendakaria, Confebaskeko buruzagiekin atzo izandako bileran.

ENPRESARIAK itxaropentsu daude. Halaxe jakinarazi zion atzo Baltasar Errazti Confebaskeko presidenteak Ibarretxe lehendakariari, honek egungo egoera politikoa aztertzeko eragile sozialekin burutuko duen bigarren elkarrizketa sortaren lehen saioaren ostean. Erraztik horrelako bilerak egitea garrantzitsua dela adierazi zuen, Euskal Herriak bizi duen egoeran «oso positiboak baitira denen arteko elkarrizketak».

Etorkizuna ilusioz ikusten dute EAEko enpresariek, azken hilabeteetan «hainbat arrazoi izan baitira Euskal Herriak bakea lortuko duela pentsatzeko». Arrazoi horien artean, HBk «politikaren aldeko» apustua azaltzea aipatu zuen Erraztik. Politika munduan, halere, «gizartean sumatzen ez den sumindura» dagoela esan zuen enpresarien buruak, «lasaitasuna inoiz baino garrantzitsuagoa den honetan».

Kale erasoez ere mintzatu zen, gertaera «hondarrekoa baina garrantzitsua» dela iritziz. Erraztiren ustez, «bortizkeriak min handia egiten dio euskal gizarteari». Nolanahi ere, kale borroka «epe erdi edo luzean» amaituko dela uste du Confebaskeko presidenteak. Esan zuenez, «errazegi eskatzen ditugu maiz berehalako emaitzak, baina gauzak lasaiago hartu behar dira». Izan ere, denborak bakearen alde jokatzen du Baltasar Eraztiren ustez.

Su-etena gorpuztuz doa

Bigarren aldiz hartu zituen atzo EAEko lehendakariak enpresarien ordezkariak, egungo prozesu politikoa aztertzeko asmoz urte hasieran gizarte taldeekin biltzeko erabakia hartu zuenetik. Aurrekoa otsailaren lehen astean izan zen eta azaroan hainbat enpresarik jasotako ETAren gutunak izan zituzten bildutakoek hizpide, besteak beste. Gai hori atzoko bileran ez zela mahai gainean izan adierazi zuen Baltasar Erraztik, «azarotik hona ez baita gutun gehiagorik agertu». Hori ere ETA talde armatuaren «su-etena gorpuzten» ari delako frogatzat jo zuen Confebaskeko buruak. Nolanahi ere, su-etena eta bakea sinonimo ez direla iritzi zion, «gainditu beharreko oztopo asko geratzen baitira» enpresarien elkarteko lehendakariaren iritziz.

Espainiako polizia baten autoa erretzen saiatu dira Iruñean

Erasoak ez zuen ia kalte materialik eragin

Agentziak / **Iruñea**

IRUÑEKO Polizia Zuzendaritza Nagusiko polizia baten autoa erretzen saiatu ziren atzo arratsaldean Iruñean, iturri ofizialek jakinarazi dutenez.

Gertaerak arratsalde hasieran izan ziren. Aurpegia estalita zeramaten bi lagunek Iruñeko Txantrea auzoko Alfonso Beorlegi kalean zegoen Nissan Micra autoari su eragiteko likidoa bota eta su eman zioten. Nafarroako matrikuladun auto hori polizia espainol batena zela baieztatu zuten polizia iturriek.

Erasoak, nolanahi ere, ez zuen kalte material handirik sortu, poliziaren senideek zer gertatzen ari zen ikusi, kalera jaitsi eta sua amatatzea lortu baitzuten.

Bortizkeriarako arrazoi politiko eta sozialak daude Jose Mari Kortaren ustez

CONFEBASK-EKO idazkari Jose Mari Korta itxaropentsu azaldu zen, «bake prozesuaren alde ematen ari diren aurrerapausoak atzerapausoak baino nabarmenki garrantzitsuagoak direlako». Kortak «oso positibotzat» jo zuen Ibarretxe lehendakariaren izandako elkarrizketa. Bere ustez, solasaren bidez, lasaitasunez eta era demokratikoan egiten diren saialdi guztiak txalogarriak dira. HBk azken hilabeteotan egindako apustua ere begi onez ikusi zuen, Confebaskeko beste lau ordezkarirekin batera bileraren ondoren egindako adierazpenetan.

Azken asteotako gertaerak ere ekarri zituen gogora, bakerako bidean jarririko oztopoak direlakoan. Nolanahi ere, «espero zitekeen baino gutxiago» izan dira euskal politika aztoratu duten azken gertakarien aurkako bortizkeri jazoerak, Kortak aditzera eman zuenez, eta «ilusioz» aztertu zuen hori. Kale erasoak «arazo politiko eta sozial batzuei emandako erantzuna» dira, Confebasken ordezkariaren ustez. Erantzun horien «bultzatzaile zirenek burua hotz izaten jakin dute, joko horretan erori gabe». «Jende horien liderrek oso mezu positiboak eman dituzte egunero, eta itxaropenerako berria da hori», esan zuen.

Arazoak egon badaudela baina «horrelako prozesuetan ohikoa» dela adierazi zuen Kortak. Euskal Herriak bizi duen prozesu politikoak «lasaitasuna behar du, bortizkeria ezin baita epe motzean amaitu». Irlandako kasua jarri zuen adibidetzat Jose Mari Korta enpresarien ordezkariak.

Bilboko Udalak salatu egin du Sañudo PSE-EEko zinegotziaren kontrako erasoa

Udalbatzarra etenda gelditu zen HBko zinegotziek Gerestaren kartelak atera ondoren

Erredakzioa / **Bilbo**

Bilboko Udalak salatu egin zuen atzo Dimas Sañudo PSE-EEko alkategaiaren etxearen aurka astearte gauean egindako erasoa. Eraso hori gaitzesteko egindako bilkura eten egin zuten ondoren, apirilaren 13a arte. Eten hori HBko zinegotziek Jose Luis Gerestaren argazkia PPko zinegotzien aulkien ondoan jarri zutenean gertatu zen.

LUIS TEJIDO

Dabi Alonso, HBko zinegotzia, Jose Luis Gerestaren argazkia ematen PPko zinegotzi Ascension Pastorri.

BILBOKO Udaleko osoko bilkura eten egin zuten atzo eta apirilaren 13a arte atzeratu. PSEko Bilboko alkategai Dimas Sañudoren aurkako erasoa gaitzesteko Bozeramaileen Batzordeak onartu zuen idatzia Josu Ortuondok irakurri ondoren gertatu zenak ekarri zuen osoko bilkura etetea.

Idatzia irakurri ostean, hitza eskatu zuen Ibon Arbuluk, HBko zinegotziak, Herri Batasunak indarkeriarik gabeko egoera bat nahi duela eta PP bake prozesua sabotatzen ari dela esateko. Une horretan, HBko beste zinegotzi batek, Dabi Alonsok, Jose Luis Gerestaren argazki bat utzi zuen PPko zinegotzien aulkien ondoan, «PP, ez duzue Euskal Herria geratuko» zioen paper batekin.

Herri Batasunako zinegotziek hori egin eta gero, PSEko zinegotziek alde egin zuten eta alkateak saioa bertan behera uztea erabaki zuen, behin-behinekoz, eta Bozeramaileen Batzordea deitu zuen berriz ere. Bilera horretan atzoko osoko bilkura bertan behera uztea erabaki zuten. Iluntzean, bestalde, PSEk deituta, kontzentrazioa egin zuten Bilboko udaletxe aurrean, eraso hori salatzeko.

HBk idatziko puntu bakarra sinatu du

Bilboko udalbatzarraren adierazpena EAJk, IUk, ICVk eta Talde Mistoak sinatu zuten osorik. Herri Batasunak adierazpenaren bosgarren puntua baino ez zuen sinatu, eta PSE-EEk eta PPk puntu guztiak sinatu zituzten bosgarren hura izan ezik.

Herri Batasunak sinatu zuen bosgarren puntu horretan dei egiten diete «erantzukizun publiko eta politiko guztiak dituztenei, baita hiritar guztiei ere, bakea lortzeko itxaropena ez kaltetzeko eta gehienen borondate politikoa eta euskal hiritarren eskubideak errespetatuz bake iraunkorra eskainiko duen irtenbide politiko demokratikoa bilatzeko».

Gainontzeko puntuetan, idatzia sinatu duten alderdiek Dima Sañudo zinegotzi sozialistaren aurkako erasoa salatu zuten, «funtsezko eskubideen aurka egiten duelako eta euskal gizarteak eskatzen duen bake bidea bilatzeko orduan oztopo delako».

Sañudok EAJren jarrera salatu du

Dimas Sañudoren etxeko atarian jarri zuten lehergailuak erreakzio ugari sortu zuen erreskadan. EAJk BBBko lehendakari Javier Atutxaren bitartez gertakizuna gaitzetsi eta elkartasuna adierazi die Dimas Sañudori eta haren familiari. «EAJrentzat basakeria horiek egiten dituztenen itsukeria tamalgarria da», idatzi horretan BBBk adierazten duenez.

Dimas Sañudok, bere aldetik, «EAJri kale borrokaren aurrean duen jarrera pasiboa alde batera uzteko» eskatu zion. Sañudok adierazi zuen bere familiak jasaten duen hirugarren erasoa dela eta «oso kezkatuta» dagoela.

Alderdi abertzaleak salatu zituen «kale borroka fikziozko zerbait balitz bezala tratatzen dutelako eta pertsonak, materialak eta gizartea kaltetzen dituen gauza erreala delako».

Antonio Basagoitik, Bilboko PPko alkategaiak, Sañudori bakean lan egiten utz diezaiotela eskatu zuen ohar batean. Basagoitik elkartasuna adierazi zion Sañudori eta haren alde egiten diren ekintza guztietara joango direla esan zion.

Jose Manuel Ros Ordiziako PSE-EEko zinegotziak utzi egin du bere kargua

Agentziak / **Donostia**

ORDIZIAKO PSE-EEko zinegotzi bakarrak, Jose Manuel Rosek, bere kargua utzi zuen atzo udalean egindako osoko bilkuran, arrazoi familiarrak argudiatuz. Jose Manuel Rosen abokatu bulegoari birritan eraso diote, urtarrilaren 9an lehendabiziko aldiz eta martxoaren 12an azkenekoz. PSOEk Gipuzkoan duen erakunde-idazkari Iñaki Pierruguesek esan zuenez, Ros da horrelako egoera bat bizi ondoren bere kargua uztea erabaki duen lehen zinegotzi sozialista. Pierruguesek esan zuen, halaber, zinegotzien kontrako erasoen helburu bakarra hautetsi hauek izutzea dela, ez daitezen berriro ere joan hauteskunde zerrendetan. Buruzagi sozialistak onartu zuen, bestalde, hainbat zinegotzik ez duela aurkeztu nahi hurrengo udal hauteskundeetara, eta onartu egin zuen, horrenbestez, PSE-EEk arazoak dituela zerrendak osatzeko, «Gipuzkoan batez ere».

Kale erasoak «eragiten ari diren egonezina» kontuan hartuta, HBri «kale bortizkeriarekin amaitzeko eskatzeko» galdegin zien EAJ eta EAri Iñaki Pierrugues erakunde-idazkari sozialistak. «Zuzenbide Estatu demokratiko batean ez du inolako zentzurik», esan zuen Pierrugesek, «Gobernu batek indarkeria ez baztertzeaz gain justifikatzen duen alderdi baten laguntza izateak».

PSE-EEko legebiltzarkide Jose Antonio Maturanak, bestalde, Rosen arrazoiak «ulertu eta errespetatzen» dituela esan zuen, «kontuan harturik zer-nolakoa den HBko faxistek herri batzuetan egiten duten presioa».

Telebista kamerak atxiloketetan egotea «zentzugabekeria» dela dio Mayorrek

Getxo eta Leioako operazioetan gertatutakoari buruz galdetu zion EAJk Senatuan

Agentziak / **Madril**

JAIME MAYOR OREJA Espainiako Barne ministroak atzo Senatuan azaldu zuenez, atxiloketetan telebista kamerak egotea «hutsegitea eta zentzugabekeria» da. Mayor Orejak EAJko Pello Caballero senadoreak Getxo eta Leioan egindako polizia operazioari buruz martxoaren 3an egindako galderari erantzun zion hitz horiekin. Espainiako Poliziaren operazio hartan lau gazte atxilotu zituzten eta Tele5 telebista kateko kamerek atxiloken irudiak grabatu zituzten.

Caballerok galdetu zuen ea nork eman zien abisua hedabideei, eta emandako «publizitate» irudiekin atxilotuen errugabetasun presuntzioa urratu zela esan zuen. Mayor Orejak ez zion erantzun zuzenik eman galderari. Azaldu zuenez, kamerek ez lukete han egon behar eta «hutsegitea eta zentzugabekeria» izan zen, baina ez atxilotuen errugabetasun presuntzioa urratu zelako, ikerketarako eta ekintza polizialerako «arriskutsua» izan zitekeelako baizik.

Su-etenetik orain arteko epea ezin dela «dinamikotzat» jo esan du Iruñeko artzapezpikuak

Agentziak / **Iruñea**

FERNANDO SEBASTIAN Iruñeko artzapezpikuak atzo azaldu zuenez, su-etenetik iragandako hilabeteei buruz «ezin daiteke esan oso dinamikoak izan direnik». Haren ustez, «adiskidetze prozesua luzea eta zaila izango da», eta talde guztiei eskatu zien bakoitzaren jarrerak «berriz aztertu eta biguntzea». Sebastianek uste du emaitzak premisa ezberdinak erabiliz bakarrik lor daitezkeela. Iruñean bihartik aurrera «bakearen alde» egingo duten ekimenaren berri ere eman zuen atzo artzapezpikuak .

Nafarroako autonomia eredutzat jo du Herrero de Miñonek

Nafarroaren nortasunaren inguruko liburua idatzi du Allik

MIKEL SAIZ

Miguel Herrero de Miñon eta Juan Cruz Alli, atzoko aurkezpenean.

Asier Azpilikueta / **Iruñea**

Nafarroa, berezko nortasuna duen komunitate politikoa **izenburuko liburua aurkeztu zuen atzo CDNko buru Juan Cruz Allik. Aurkezpenean Miguel Herrero de Miñon analista politiko espainiarra izan zuen lagun. Nafarroa, foru erkidego gisa, Espainiaren inbidia dela azpimarratu zuten liburuaren aurkezpenean.**

NAFARROAREN berezko nortasuna azpimarratzen du CDN alderdi nabarristako buru Juan Cruz Alliren hainbat testu eta idatzi biltzen dituen liburuak. Miguel Herrero de Miñoni, Alliren lagun eta Espainiako Konstituzioaren zazpi aitetako bati, egokitu zitzaion Alliren liburua aurkeztea. Juan Cruz Allik, berriz, bere liburuaren aurkezlea aurkeztean, esan zuen «Espainia osatzen duten errealitate plurinazionalen eskubide historikoak elkargune gisa gehien landu dituen pertsona» dela. Alliren aburuz, 1978. urteko Konstituzioak «Espainia askotarikoa eta ezberdina» biltzen du eta «hori ulertzeko gaitasuna» soilik falta da.

Miguel Herrero de Miñonek gauza bakarra azpimarratu nahi izan zuen liburutik: Allik plazaratzen dituen aukerak, Nafarroak —Konstituzioaren barnean— beste komunitate politikoekin izan ditzakeen elkarkidetza moten ingurukoak. Miñonen ustetan, Juan Cruz Allik azpimarratu du Nafarroaren balioa Espainiako paradigma bezala. «Ez da beste erkidego autonomo bat, foru erkidegoa baizik», erran zuen. «Berezko nortasun ezaugarri hori konstituzioaren aurrekoa da. Nafarroa Espainiak inbidiatzen duen administrazioa da», adierazi zuen Herrero de Miñonek.

Nafarroak nafarragoa izan behar du, Miñonek atzo azaldutakoaren arabera, Espainiaren paradigma izaten jarraitzeko. «Ez du sukurtsalista izan behar, bere etorkizunak ez du hirugarrenekoen eskuetan egon behar», gaineratu zuen analista politiko espainiarrak.

Alliren liburuaren aurkezpenera Nafarroako hainbat politikari gerturatu zen: CDNko Burguete, PSNko Juan Jose Lizarbe, Lola Eguren eta Carlos Cristobal, IUko Felix Taberna, Elkarriko Bittor Aierdi eta UGTko Juan Antonio Cabrero.

Pepe Reiren askatasuna eskatu dute 70 abokatuk eta elkartasun taldeko kideek

Kazetaria espetxean edukitzeko inolako arrazoirik ez dagoela adierazi dute

Erredakzioa / **Donostia**

Pepe Rei kazetariaren aldeko bi ekimen izan ziren atzo Entzutegi Nazionalean. Batetik, Gipuzkoako 70 abokatu eta prokuradorek idatzi bat aurkeztu zuten, Reiren behin-behineko askatasuna eskatzen duena, epaiketa izan artean hura espetxean izateko arrazoirik ez dagoela eta. Halaber, Adierazpen Askatasunaren eta Pepe Reiren Askatasunaren Aldeko Nazioarteko Batzordeak ere (ehundik gora lagunek osatua) kazetariaren askapena eskatu zuen idatzi baten bidez. *Egin*-eko ikerketa taldeko beste kideek gaur deklaratuko dute inputatu gisa Garzonen aurrean.

PEPE REI kazetari presoaren aldeko ekimenak izan ziren atzo Madrilen. Batetik, 70 abokatuk eta prokuradorek Pepe Rei behin-behineko askatasunean utz dezaten eskatzeko idatzi bat heldu zen Entzutegi Nazionalera. Askatasuna eskatzeko aurkeztu idatzian, hainbat argudio ematen dituzte abokatuek. Batetik, gogoratzen dute aurreko kasu batean, akusazio berarekin, askatasuna eman zitzaiola eta beraz irizpidea aldatzea ez dela ulertzekoa. Bestetik, edozein pertsonaren espetxeratzea edo kaleratzea erabakitzeko erabiltzen diren argudio berak erabiltzeko galdegin dute abokatuek, eta hala, kalean egon beharko lukeela ondorioztatu dute. «Reik sustraitze sozial nabarmena du; familia ere hor du; dituen osasun arazoak kontuan hartu beharrekoak dira; adina ere bai; ez dago ihes arriskurik, Reik duela zortzi hilabete baitzekien Garzon hura ikertzen ari zela; balizko delituarekin jarraitzea ere ezinezkoa da, zeren eta epaileak delitua haren lanaren bidez egiten zuela dio eta egun Rei langabezian dago; eta azkenik, ezinezkoa da frogak suntsitzea, froga guztiak Garzonen esku baitaude», azaldu zuen Carmen Torres abokatuak, idatzian bildua laburbilduz.

JAGOBA MANTEROLA

Pepe Reik (erdian) 1994ean izandako epaiketa dela eta ere elkartasun mezu ugari jaso zituen.

Hala, abokatu eta prokuradoreek jarrera aldatzeko eskatu diote Garzoni, eta Rei aske utz dezala.

Bestetik, atzo bertan Adierazpen Askatasunaren eta Pepe Reiren Askatasunaren Aldeko Nazioarteko Batzordeak beste idatzi bat aurkeztu zuen Entzutegi Nazionalean Reiren askatasuna eskatzeko. Taldea ehundik gora abokatu, kazetari, idazle, artista eta abarrek osatzen dute. Idatzia aurkeztu ostean prentsaurrekoa eskaini zuten. Francisca Villalba abokatuak, Lolo Rico errealizadoreak eta Andres Soler idazleak eskaini zuten. Bertan Pepe Reik jasaten duen «jazarpena» salatu zuten. «Kazetari bat kriminalizatzen ari dira disidentea delako eta ez dagoelako sistemarekin ados», adierazi zuen Lolo Ricok. Francisca Villalba abokatuak errugabetasun presuntzioa ez dela errespetatzen salatu zuen, eta «komunikabideek lankide baten aurka egin kriminalizazioa» gaitzetsi zuen. «Kazetari batek, bere lana betez, boterearen hainbat irregularitasun salatu ditu, hori egiteagatik haren kontra jo dute, eta hori benetan larria da», adierazi zuen Villalbak.

Ikerketa taldekoak Garzonen aurrean

Egin egunkariko ikerketa taldean aritutako sei kidek gaur deklaratu beharko dute Baltasar Garzon epailearen aurrean inputatu gisa: Dabi Mendizabal, Txema Garcia, Maite Madoz, Fernando Alonso, Amaia Eraunzetamurgil eta Ahoztar Zelaieta dira.

Tolosara Plataformak hausnarketa eguna deitu du etziko

Herriko alderdi, sindikatu, agente sozial eta gazte taldeak bilduko dira presoen gaia eztabaidatzeko

Erredakzioa / **Donostia**

TOLOSARA Plataformak hausnarketa egun irekia antolatu du etziko. Helburua, herriko alderdi politikoak, sindikatuak, agente sozialak eta gazte erakundeak bildu, eta guztien artean presoen gaiaren inguruan eztabaidatu eta hainbat ekimen bideratzea da. Udaletxean egingo dute bilera, goizeko 10:00etan hasita, eta Tolosara Plataformak honakoak deitu deitu: EA, EAJ, EHB, EH, IU-EB, PP, PSE-EE, ELA, LAB, STEE, CCOO, EHNE, ENBA, AAB, Elkarri, BAK, Senideak, Gazte Abertzaleak, EGI, Jarrai eta Egizan.

Plataformak atzo emandako prentsaurrekoan jakinarazi zuenez, «topaketa horretan taldeek aurkeztuko dituzten proposamenak eta iradokizunak eztabaidatuko dira, eta helburua adostasun gune batera heltzea izango da, Tolosan etapa berri bat has dadin».

Izan ere, Tolosara Plataforma duela urte eta erdi sortu zen arren, taldeko kideek ez dute uste tarte horretan sakabanaketa amaituko dela pentsatzeko seinalerik izan denik: «Denbora honetan ikusi dugu ez dela aldaketarik izan dispertsioaren amaiera gertu dagoela adierazi digunik». Tolosara Plataformako kideek azaldu zutenez, bestalde, eurek dagoeneko egin dute horren inguruko hausnarketa eta atera dituzten ondorioak etzi aurkeztuko dituzte gainontzeko taldeen aurrean, guztien artean eztabaidatu ahal izateko.

Txandakako baraualdia hasi dute Frantziako euskal presoek

Kartzelako nortasun agiria hautsi eta Justizia ministroari bidali diote

Erredakzioa / **Baiona**

EUSKAL preso politikoek Euskal Herriratuak izateko azken bi urteetan egiten ari diren borrokaldian urrats berri bat egin dutela jakinarazi du Gureak senide eta lagunen elkarteak. Frantziako espetxeetan diren presoek ziegetatik ateratzeari uko egin diote urtarrilaren 16az geroztik, txandaka, eta martxoaren 15etik bi ekimen berri abiatu dituzte.

Batetik, 48 orduko txandakako barauldia hasi dute. Halaber, ekintza bateratuan, egunero kartzelan erabili behar izaten dituzten presondegiko nortasun agiriak hautsi eta Justizia Ministeriora bidali dituzte, haien aldarrikapenak biltzen dituen gutunarekin batera.

Presoen aldeko manifestazioa egingo da etzi Gasteizen, alderdi eta sindikatuek deituta

Erredakzioa / **Gasteiz**

MANIFESTAZIO isilera deitu dute Gasteizen EAJ, HB, EA eta Zutik alderdiek; ELA, LAB, ESK, EILAS eta Sintraraba sindikatuek; eta Senideak, Amnistiaren Aldeko Batzordeak, Elkarri, Hiru, Gazte Ekimena eta Herri Ekimena elkarte eta taldeek. Etzi arratsaldeko 18:30etan egingo da, Bilbo plazatik abiatuta.

Bultzatzaileek informatu dutenez, presoak Euskal Herrira ekartzeko aldarrikatuko da, eta gainera, aske utz ditzatela zigorraren hiru laurdenak bete dituzten Arabako lau presoak (Jose Manuel Gimon, Saturnino Lopez Domaika, Xabier Izaga eta Rikardo Izaga). Halaber, Andueza HBko mahakidea askatzeko eskatuko da, gaixotasun larria duela eta. Madinabeitia ekimenaren bozeramaileak «presoak eta senideak txanpon-truke gisa ez erabiltzeko» eskatu zuen.

AKITANIA, EUSKADI ETA NAFARROAKO UNIBERTSITATEEK HITZARMENA IZENPETU ZUTEN ATZO BORDELEN

Mugaz gaineko hamar unibertsitatek elkarlana bultzatuko dute

- Akitania-Euskadi-Nafarroa fondoak hamar unibertsitateetako errektoreak bildu zituen atzo Bordelen egindako ekitaldian
- Europa sortzen ari dela eta, esperientzia eredugarria bultzatu nahi luke bi eskualdeek irakaskuntza sistema berdintzeko
- Helburu zabalak izan arren, ez da aurrekontu berezirik izanen hitzarmenean bildutakoak obratzeko

Lutxi Fourcade / **Bordele**

MUGAZ BI ALDEETAKO unibertsitateen arteko harremanak sendotzeko nahikaria adierazi zuten Akitaniako, EAEko eta Nafarroako errektoreek atzo Bordelen: bertako lau unibertsitateetako errektoreek, Paueko unibertsitatekoak, Nafarroako Unibertsitateko nahiz Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreek, Deustuko Unibertsitatekoak, Euskal Herriko Unibertsitatekoak eta Mondragon Unibertsitatekoak. Hitzarmen bat izenpetu zuten hamarrek atzo goizean Akitania Eskualdearen egoitzan. Konbenio horrren arabera, errektoreek bat egin dute lankidetza sustatzeko eta ikasleen eta irakasleen trukeak bultzatzeko.

Izenpetutako hitzarmenari esker, unibertsitateek indar berri bat emanen diote aspalditik hasitako lan bati. Hain zuzen, hiru eskualdeetako unibertsitateen arteko harremanak abiatu ziren 1991n. Aurreko urtean, Akitania-Euskadi fondoa sortu zen eta bi egituretako lehendakariek funtsezkotzat jo zuten unibertsitateen arteko sare bat sortzea. Nafarroa ere sartu zen batzordean 1992an. Unibertsitateen batasunaren helburua zen mugaz gaineko unibertsitateetako dosierrak ikertzea eta proiektuak bultzatzea.

Mugaz gaindikoa hobeki ezagutzeko

Europa osatzen ari dela eta, irakaskuntza sistema berdintzeko beharra ikusi zuten errektoreek. «Nahiz eta ondoan bizi, zailtasun ugari daude formakuntza sistemen artean, eta mugaz gaineko egitura baliatu behar dugu geroa prestatzeko», azaldu zuen Josy Reiffersek, Bordele 2 unibertsitateko lehendakari eta batzordeko ordezkariak. Ondorioz, proiektu jakin batzuk elkarrekin eramateaz gain, benetako elkarlana sortzeko proiektua landu zuten errektoreek. «Asmoa genuen bideak errazteko eskualde honek ikasteko eskaintzen dituen aukera ugariak erabiltzeko eta eskualde honen mugaz gaindikotasuna hobeto ezagutzeko», gaineratu zuen. Haren aburuz, Akitania-Euskadi-Nafarroa mugaz gaindiko eskualdearen ekonomia eta gizartea ziztu bizian aldatuz doaz eta ondorio nabarmenak izango dira hezkuntza eta irakaskuntza sistemetan. «Ondotik, aurrez aurre jarriko dira aldatzen ari diren eskariak eta erronka berriak», azaldu zuen.

Helburu zabalak izan arren, ez da aurrekontu berezirik izanen hitzarmena obratzeko. Unibertsitateko errektoreek ahal bereziak aurkitu beharko dituzte proiektuak gauzatzeko. Era berean, zenbait lan eginen dute administrazioari begira; esaterako, tituluak Europa osoan baliagarri izatea nahi dute.

LUTXI FOURCADE

Mugaz gaineko unibertsitateetako errektoreak atzo Bordelen akordioa sinatzen.

akordioaren mamia

Loturak sakontzeko

Akitania, Euskadi eta Nafarroako unibertsitate edo goi mailako hezkuntza erakundeen arteko lankidetza hitzarmenaren helburu zehatzak txosten batean adierazirik daude. Hauek dira:

Irakasleen mugikortasuna sustatzea • Unibertsitateko irakasleen, ikasleen eta administrazioko langileen mugikortasuna sustatuko da, ikasketei mugaz gaindiko neurria eman eta lanaren kalitatea hobetzeko.

Ikasleen mugikortasuna bultzatzea • Hitzarmenak aukera emanen du ikasketen parte bat hitzarmenean partaide den beste eskualde batean burutzeko, irakaskuntzari mugaz gaindiko izaera emanez.

Harremanak garatzea • Ikasleen arteko harremana garatuko da, euren heziketari mugaz gaindiko izaera emanez.

Mugaz gaindiko eremu bat • Tituluen eta bestelako kualifikazioen onarpen akademikoa bultzatuko da, mugaz gaindiko eremu bat sortzeko hezkuntzaren arloan.

Doktore tesiak • Elkarlanean zuzendutako doktore tesiak sortuko dira, eta mugaz gaindiko eremu horretako erakundeen arteko titulazio bikoitzak sustatuko da.

Informazio trukea • Informazio eta esperientzia trukea sendotuko da, hitzarmenean partaide diren eskualdeetako hezkuntza sistemen desberdintasun eta berezitasunak elkar aberasteko eta akuilatzeko iturri izan daitezen.

Enpresa mundua inplikatzea. Ikasleen eta tituludun berrien praktikak bultzatuko dira, dela enpresetan, dela bestelako erakundeetan.

Alain Rousset: «Erakutsi behar dugu harreman sendoak sor daitezkeela

L.F. / **Bordele**

Mugaz gaineko lankidetza bultzatzea izanen du lehentasunetako bat Alain Roussetek, Akitania eskualdeko lehendakariak. «Erakutsi behar dugu mugaz gaineko harreman sendoak sor daitezkeela Europa eratzen ari den une honetan», azpimarratu zuen.

Xede hutsetatik urrunago joateko, Alain Roussetek bi elkarlan proposamen zehatz egin zituen geroari begira. Lehendabizi, lankidetza zientifikoa garatu beharra goraipatu zuen. «Horrengatik, informazioa ibiltzeko sare moderno bat sortu beharko dugu eta urrats garrantzitsua izanen da ikerlarien arteko harremanak sendotzeko eta azkartzeko», azaldu zuen.

Bigarren proposamena, berriz, erabat iraultzailea dela gaineratu zuen. Hain zuzen, partikula azkartzeko sistemaren eraikuntza aipatzen delarik Europan zehar, Alain Roussetek proposatu zuen denen indarra biltzea *Soleil* sistema erdiesteko. «Akitania-Euskadi-Nafarroa biltzeaz gain, behar genuke Poitou Charentes eta Midi Pyrenes eskualdea konbentzitu gurekin etortzeko. Ondotik, proposatuko dugu inbertsioaren erdia biltzea, hala nola 800 milioi libera, ikerketen tresna paregabekoa izateko gure ikerlarientzat», azaldu zuen.

Akitaniako lehendakaria sartu da harremanetan CNRS ikertzaileen zentroarekin dagoeneko eta ideia begi onez ikusi zutela azpimarratu zuen.

Hezkuntza Nazionalak lehiaketa irekiko du eskola elebidunetako irakasleentzat

Aterabide iraunkor bat bilatuko du euskarazko irakaskuntza garatzeko

Lutxi Fourcade / **Baiona**

Claude Allegre Hezkuntza ministroak jakinarazi du lehiaketa berezi bat irekiko duela 1999ko irailean eskola elebidunetako irakasleak integratzeko. Era berean, hitzeman du epe luzerako aterabidea gogoetatuko duela irakasleen beharra estaltzeko.

HITZEMAN bezala, Jean Espilondo diputatu sozialistak galdegin dio Claude Allegre Hezkuntza ministroari aterabidea aurkitzea eskola elebidunetako irakasle ugarientzat. Izan ere, 75 irakasletik 42 langilek behin-behineko estatutua dute. Urte guziz, Hezkuntza Nazionalak kontratua eraberritzen die, aterabide irankorrik proposatu gabe.

Jean Espilondok galdera pausatu du joan den asteartean Parisko Asanblada Nazionalean, eta Jean Pierre Masseret ministroaren laguntzaileak berehala erantzun zion Espilondori. Egoera argitzeko beharra berretsi zuen Allegre bozeramaileak. «42 irakasletatik 36 irakaslek betetzen dituzte irakasle izateko baldintzak, eta lehiaketa bat gainditu beharko dute irailetik goiti», gaineratu zuen. Hain zuzen, beste toki batzuetan egina izan den bezala, Hezkuntza ministroak antolatuko du lehiaketa berezia Euskal Herrian. Hiru sesio antolatuko ditu: 1999an, 2000an eta 2001ean. Era berean, irakaskuntza elebiduna garatzeko esperantzaz, elkarrizketa zabala bultzatuko du aterabide iraunkorra aurkitzeko.

Ministroaren erantzuna «interesgarritzat» jo zuen Ikas Bi eskola elebidunetako gurasoen elkarteak. Izan ere, lehen aldikotz, Frantziako Gobernuak proposamen zehatzak egiten ditu irakasleen egoera konpontzeko. Era berean, elkarteak azpimarratu du «elkarrizketaren beharra arazo mingarriak konpontzeko». Izan ere, nahiz eta gobernuak sistema garatzeko nahikaria berretsi, euskarazko postu bat kentzeko mehatxua dago Baionan. «Sarako eta Baionako eskolen egoera berdintsua da, eta zuzengabetasunezko erabakia aplikatuko da Baionan», esan zuen Thierry Delobel Ikas Bi elkarteko lehendakariak.

BOB EDME

Irakasleen okupazioa Uztaritzen. 30 bat irakaslek okupatu zuten Akademiako ikuskariaren bulegoa atzo goizean Uztaritzen. Beren aburuz, mobilizazioak jarraitu beharko dira irakasle guztien integrazioa erdietsi arte. Hain zuzen, irakasleen egoera konpontzea hitzeman arren, Hezkuntza Nazionalak baldintza zorrotzak pausatu ditu. Lau urteko esperientzia eskatzeaz gain, ez du adierazi zenbat irakasle integratuko dituen.



MIKEL UHARTE

NUPeko hauteskundeak. Normaltasuna izan zen nagusi atzo Nafarroako Unibertsitate Publikoan egin ziren hauteskundeetan, eta goizeko 10etatik aurrera horretarako prestatutako lau hautesontzietan parte hartzea etengabekoa izan zen egun osoan. Atzo iluntzean artean ez zen emaitzen berririk, eta azken datuak gaua ondo sartuta iritsiko zirela uste zuten bertan.

Pertsonak ez direla legez kanpokoak aldarrikatuko du SOS Arrazakeriak elkarteak Bilbon bihar

■ *«Bidegabekeria» hori dela medio oinarrizko eskubideak ukatzen zaizkiela salatu du*

Gorane Agirre / **Bilbo**

PERTSONAK ez direla legez kanpokoak aldarrikatuko du SOS Arrazakeria elkarteak bihar arratsaldeko 20:00etan Bilbon egingo duen manifestazioan. Era berean, «paperak ukatu eta horrela legez kanpoko bihurtzearen ondorioz, etorkinei oinarrizko eskubideak ukatzen zaizkie», elkarteak salatu duenez.

Arrazakeriaren kontrako Nazioarteko Eguna iragan larunbata izan bazen ere, Bilbon izan zen beste manifestazio bat dela medio SOS Arrazakeria elkarteak bihar arte atzeratu zuen egun horretarako antolatua zuen manifestazioa. Berau Arriaga plazatik aterako da bihar, arratsaldeko 20:00etan.

Atzerritarren Legea

«Atzerritarren Legea bezalako araudiei egotzi behar zaie pertsona hauei legez kanpoko titulua egostearen erantzukizun osoa. Honelako araudiak dira paperak deiturikoak lortzea asko zailtzen dutenak eta arbitrarietatea lege balio gisa dutenak», azaldu zuten elkarteko kideek.

Paperak ukatu eta «erabateko bidegabekeriaz» gizabanakoak legez kanpoko bihurtzearen ondorioz, etxebizitza, lan, osasun eta hezkuntza bezalako oinarrizko eskubideak ukatzen zaizkiela esan zuten.

Era berean, etorkizuna ez dela batere hobea adierazi zuten; izan ere, 1998ko uztailaren 1ean Austriako lehendakaritzak Europar Komunitateko Justizia eta Barne Kontseiluari aurkeztu zion Migrazioa eta Asiloari buruzko estrategia txostenean Komunitatearen kanpo mugak gehiago sendotzea aurreikusten zuen eta. Esan zutenez, «kriminalizatu egiten ditu legez kanpoko etorkinak, mugak igarotzen laguntzen dituztenak, eta helmugako lurraldeetan babesa ematen dietenak».

Errepide istripuen kontrako prebentzio kanpaina abiatuko dute Iparraldean

Alkohola eta abiadura kontrolatuko dituzte, heriotza gehien eragiten dutenak baitira

Hur Gorostiaga / **Baiona**

Heldu diren asteetan errepidean izan ohi diren istripuen prebentziorako kanpaina eginen dutela adierazi zuen atzo Estatuko ordezkari Jean François Pages suprefetak, Iparraldeko polizia arduradunak alboan zituela. Alkohola eta abiadura izanen dira jomuga nagusi.



Bob Edme

Abiadura eta alkohola dira Ipar Euskal Herriko errepideetan istripu gehien eragiten dituzten faktoreak.

ABIADURA, alkoholemia eta errepide arauak ez errespetatzea dira gaur egun Ipar Euskal Herriko errepideetan gertatu ohi diren istripuen zio nagusiak. Azken bost urteetan istripu kopurua beheratu bada ere, joan den urtean gorakada nabarmena (%19,3 gehiago) ukan zutela azpimarratu zuen atzo Jean François Pages suprefetak.

Iaz Pirinio Atlantikoetan 71 pertsona zendu ziren errepideetan, horietarik 29 Baiona, Angelu eta Miarritzeko errepideetan soilik. 29 heriotza horien istripuen %62 alkoholagatik izan ziren eta %20 abiadura handiegia eramateagatik. Horrez gain, heriotza eragin duten istripuen %60 asteburuetan gertatu izan dira, eta 18-25 urteko gazteak bereziki ukitu ditu.

Datu horiek Frantziako eskualdeekin eta bereziki auzoko Landesetako eskualdearekin konparatuz «anitzez apalago» ageri badira ere, hainbat ataletan oinarrituta-ko kanpainaren beharra azpimarratu zuten atzo.

Alkoholari dagokionez, Ipar Euskal Herrian egunero 70 gidari dituzte Jendarmeria zerbitzuek kontrolatzen. Urte osoan, berriz, 80.000 kontrol egiten ditu Jendarmeriak departamenduan.

Alkoholari buruzko zainketa hurbiletik segituko badute ere, abiaduraren kontrolak neurri bereziak ekarriko ditu, bereziki urbanizazio inguruetan. Gisa berean, errepide arauei buruzko informazio zabala hedatuko dute. Azkenik, bi gurpileko ibilgailuei buruzko kanpaina berezi bat eginen dute. Izan ere, hirigu-neetan istripuak ukan dituztenetatik %45 motoak izan dira, eta zauritu larrien %2,5 izan dira.

Petillot Jendarmeriako buruaren arabera, «Iparraldeko errepide sarean ez dago puntu beltzik». Azken urteotan Baionatik Kanborako bidea ageri zen puntu beltz gisa, baina azken konponketek hobetu dute trafikoaren egoera. Haatik, leku zail bat gelditzen da oraino bide horretan, Larresoroko irteerak, eta jadanik zenbait aldaketa aurreikusiak direla adierazi zuen. Oro har, istripu gehien izaten diren tartea arratsaldeko seietatik gaueko bederatziak bitartean izan ohi da, bereziki asteburuetan.

Zigortzeari dagokionez, geroz eta gehiago zigorren ordez ikastaroak ezartzen dituztela adierazi zuen Jean Jacques Bosc prokuradoreak, batez ere gazteenei begira.

Autobidea arriskuz beterik

Zorionez, orain arte istripu larririk ez badugu ere, Baionatik Biriatura doan A63 autopista «une oroko arriskupean» dagoela azaldu zuen Jendarmeriako buruak. Izan ere, kamioilariek ez omen dute indarrean dagoen legea inolaz ere errespetatzen. Gidatze tenoreak eta abiadurak etengabe gaindituak dira. Isun eta zigor neurriak badira ere, «itsasoa urez hustu nahi izatea bezala» dela ohartarazi zuen Jean Jacques Boscek.

Kamioien arazoa Euskal Autonomia Erkidegoan festa den egunetan areagotzen dela ohartarazi zuen Pagesek.

Askatasun sexualaren aldeko mozioa aurkeztuko dute Iruñeko udalbatzarrean

Egizanek antisorgailuak saltzen ez dituzten farmaziak salatu nahi ditu horrela

Alberto Barandiaran / **Iruñea**

NAFARROAKO talde feministek mozio bat aurkeztuko dute bihar Iruñeko udalbatzarrean, antisorgailuak saltzen ez dituzten farmazien jarrera publikoki salatzeko. Horrekin batera, askatasun sexualaren aldeko hainbat neurri proposatzen ditu Egizan, Lumatxa, Ehgam, Ihesaren Aurkako Hiritar Batzordea, Andrea, Mandragora eta Emakume Internazionalistek sinatu eta Iruñeko udal talde guztiei bidali zaien proposamenak.

Duela hainbat hilabete salatu zituen Egizanek Iruñerriko dozena erdi farmaziatan ez direla antisorgailuak saltzen eta beste batzuetan trabak jartzen dituztela. Orain, jarrera horiek salatu eta kontra egiteko mobilizazioetara deituko dute hurrengo egunetan aipatu taldeek. Atzo Egizanek emaniko prentsaurrekoan salatu zuen «askatasun sexualaren aurkako jarrera», eta Opus Deiren «ideologiarekin» lotu zuen.

Farmaziak publikoki salatzea

Bihar aurkeztuko den mozioan aipatu taldeek farmazien jarrera publikoki salatzea, antisorgailuen salmenta derrigortzea eta udal zentroetan antisorgailuak salduko dituzten makinak ipintzea eskatuko du.

Jakoba Errekondo

• ZERAIN DEZAGUN FUNDAZIOKO KUDEATZAILEA •

■■■Ondare historikoak eta turismoak landa eremuen garapenean duten eragina aztertzeko nazioarteko jardunaldiak egin dituzte hiru egunez Zerainen (Gipuzkoa). ■■■ Jardunaldiak atzo bukatu ziren, eta Jakoba Errekondo Zerain Dezagun Fundazioko kudeatzaileak balorazio ezin baikorragoa egin du, espero zutena baino jende gehiagok parte hartu duelako, eta oso esperientzia ezberdinen berri jakin ahal izan dutelako.

«Herri txiki bakoitzak asmatu behar du bere eredua aurrera egiteko»

Zerain

«Zerainek eredu bat sortu du, eta hori inportantea da, baina nire ustez Zerainek aportatzen duen inportanteena ez da zer egiten duen, baizik eta nola egiten duen; alegia, eguneratutako auzolanean»

■ **Zer moduz joan dira jardunaldiak?**

Oso ondo. Jende asko etorri da, eta oso gustura geratu dira. Guk oso balantze positiboa egiten dugu, 85 bat pertsonak parte hartu dutelako. Horrez gain, gonbidatuak izan dira, eta herriko jendea ere ari da hitzaldiak jarraitzen. Jendea Euskal Herri osotik etorri da, baina batez ere gipuzkoarrak izan dira.

■ **Zein da jardunaldien helburua?**

Pentsatu genuen interesgarria izan zitekeela herri txikiak biziberritzeko ahalegina egin duten Europako hainbat adibide ekartzea, jendeak jakiteko zer eredu dauden ondarea eta turismoa kudeatzeko, irtenbide ezberdinak topatu direlako tokian tokian aurrera egiteko, eta horren berri jakitea interesgarria iruditu zitzaigun.

■ **Europa osoko adibideak ikusi dituzue. Ba al dago Europan herrialderen bat aintzindari dena?**

Nik uste dut kontu honetan gehien nabarmentzen dena Espainia dela, eta guk ekarri ditugun adibideak hangoak dira: Teruel, Andaluzia, Bartzelona, Extremadura... Portugal bera ere bai. Beraz, uste dut adibiderik onenak urrutira joan gabe ditugula.



MANU MUJIKA

■ **Zerain Reveil Europako proiektu bateko partaide da. Zer da proiektu hori?**

Reveil dira garapenerako fondoak deiturikoak, eta, horren barruan, Europan erabaki zuten diruaren %1 proiektuetara bideratzea zuzenean. Guk aurkeztu genuen proiektu bat kulturan oinarritutako atalean. Guk, Greziako Xanthi herriak eta Frantziako Dordoña eskualdeak bagenituen ondare indutrialak, eta planteatu genuen haiek zaharberritzea turismorako eta lanpostuak sortzeko. Onartu ziguten proposamena, eta Aizpeako meategiak hasi gara zaharberritzen.

■ **Zerainen kasuan ondare kultural-industrial horien berritzeak ekarri al du herria berpiztea?**

Beno, Aizpeakoa azken proiektua izan da, baina urteak daramatzagu beste proiektu batzuetan: museo etnografikoa, diaporama, XVIII. mendeko kartzela, San Blas ermita arte mozarabiarra duena... Meategien proiektua handia da, trenak baitaude, galeriak, teleferikoak... Horregatik, beldur pixka bat ematen zigun, baina erabaki dugu hurrengo urteotan horri aurre egitea. Baina, beno, aurretik esperientzia izan dugu, eta iaz jada 20.000 bisitari izan genituen.

■ **Horrek eragina izango zuen herriko bizimoduan, ezta?**

Bai, dudarik gabe. Eskola berreskuratu da, liburutegia ireki da, eskola garraioa bermatzen da erabat udaletxetik, medikua egunero dugu... Hiru bide ari gara lantzen: bizitza kalitatea, udalak eramaten duena; dinamika sozialaren trinkotzea, kultur elkarteak egiten duena; eta, hirugarrenik, garapen ekonomikoa bermatzea, Zerain Dezagun fundazioaren esku dagoena. Beraz, proiektua turismoari lotutako zerbait baino askoz zabalagoa da.

■ **Beraz, turismoak ez du ekartzen derrigorrez baserriaren galera?**

Segun eta nola planteatzen den kudeaketa. Guk hasieratik garbi genuen turismoa bultzatzen bagenuen izan behar zuela gure baserrietako produktuak saltzeko, inguruko artisauen produktuak saltzeko... Horregatik, turismo bulegoan gure baserrietako produktuak daude, eta hori da turistak ikusten duen lehen gauza. Hori da gakoa bi sektoreak elkarrekin joateko.

■ **Zeraingo ereduak jakin-mina piztu al du beste herri txikietan?**

Bai, azken urteotan 100 bat bisita izan ditugu era horretakoak, Nafarroatik, Bizkaitik, Zuberoatik, Gipuzkoatik zer esanik ez... Bada jakin-mina gure ereduarekiko, baina ez da bakarra. Hor dago Orexako adibidea ere. Hor planteatu dute gazta egitera dedikatzea, eta horrela kooperatiba sortu dute, eta hortik bizi dira. Inportanteena da gizatalde bakoitzak erabakitzea zer egin behar duen, eta proiektuak ez daitezela paraxutean erori. Baina, beno, gutxi edo gehiago, Zerainen eredu bat sortu dugu, eta interesgarria da, baina bakoitzak berea sortu behar du. Niretzat Zerainek aportatzen duen inportanteena ez da zer egiten duen, baizik eta nola egiten duen: eguneratutako auzolanean.

Iñaki Petxarroman
DONOSTIA

Baionako oposizioak Grenet auzapezaren jarrera salatu du

«Errobiko kasernako antolaketari buruz ez da eztabaidarik izan»

Eneko Bidegain / **Baiona**

Baionan, Errobiko kasernaren antolaketa eztabaida sortzaile izan da, baina, oposizioak salatu duenez, informazioa ez da heltzen, eta horregatik zailtasun handiak dituzte iritzi baten ukaiteko. Zinemari emana zaion lehentasuna kritikatu dute; gainerako proiektuak «koherentzia gabe» txertatu direla diote.

BIHAR eztabaidatuko da Baionako herriko kontseiluan Errobiko kasernaren antolaketa. Sozialistek, komunistek, ekologistek eta abertzaleek osatzen duten oposizioak bere iritzia azaldu zuen atzo. «Informazio eta eztabaida eza» salatu zuten, urte bat eta erdiz ez baita ezer eztabaidatu kontseiluko bilkuretan, eta horretaz arduratzen den batzordearen berririk ez baitute. Pentsatzen dute edo ez dela bildu, edo ez direla gomitatuak izan, nahiz eta batzordeko partaide izan. Baionaren eta bereziki hiri erdiaren etorkizunari begira «horrelako garrantzia duen proiektu baten gordetzea onartezina» dela zioten. Hautetsien eta hiritarren iritzi zabalaren beharra ikusten dute. Demokrazia falta gaitzetsi zuten, oroitaraziz Baionako biztanleen ehunetik 40ek ez zutela Grenet-en zerrendaren alde bozkatu bigarren itzulian.



BOB EDME

Jean Grenet auzapezaren jarrera salatu du oposizioak.

Zinema oinarri

Errobiko kasernaren antolaketa guztia zinema proiektuaren inguruan oinarritua dela kritikatu dute. Oposizioaren iduriko, zinemari emana zaio lehentasun bakarra eta beste proiektu guztiak «koherentziarik gabe txertatzen dira». Martine Bisautak salatu zuenez, «oraingo proiektuak ez du ezer ikustekorik 97an finkatuarekin». Zinemari dagokionez, Jean Grenetek San Leon auzoan iragarri zuenetik zenbat proiektu eta toki aldaketa izan diren zerrendatu zuen. «180 graduko itzuliak» aipatuz, «txantxa horien gastua zerga biltzaileentzat zenbatekoa» den galdetu zuen.

Errobiko kasernako unibertsitate eremuari buruzko inkoherentzia ere aipatu zuten. Bernard Kausse-k azpimarratu zuen azken denboretan IUTak eta BTSak etengabe tokiz aldatzen ari direla, eta hori, ororen buru, garesti ateratzen dela. Kasernan unibertsitatearen garatzea aipatzen delarik, sinesgarritasun falta eragotzi diote Greneti. «Ez dakigu zer eremu gelditukо den unibertsitatearentzat», zehaztu zuten. Unibertsitateari buruzko azpiegitura falta ere aipatu zuten, toki hori horretarako ez dela batere egokitua erakusteko. Alabainan, ikasleek gune horretatik joan nahi dute, ez baita, besteak beste, bazkaltzeko toki egokirik.

Iruñerriko Hirigintza Araudiak aurkeztu ditu Nafarroako Gobernuak

Inguru honen etorkizuneko itxura irudikatzen dute araudi horiek

A.B. / **Iruñea**

HAMAR urteko lan eta eztabaiden ondotik, Nafarroako Gobernuak onartu egin ditu Iruñerriko Hirigintza Araudiak, bertako 28 udalerrietako plangintza kontuan hartu eta inguruko garraiobide, naturgune, industriagune eta etxebizitzendako alderdiak zehaztu eta arautuko dituztenak.

Egitasmo honek idurikatzen du, horrela, herrialdeko populazioaren erdia biltzen duen inguruaren etorkizuneko itxura. Zehazten du, esate batera, nondik igaroko den balizko abiadura handiko trenaren ibilbidea, erreserbatu egiten ditu lur sailak Aldudetik igaroko litzatekeen mugaz gaindiko autobidearendako eta sahiesbideen desdoblamendurako. Halaber, planak aurreikusten du etorkizunean Noaingo aireportuak izan lezakeen zabaltzea.

Egitasmoan aipatu egiten dira inguruneak. Etor litezkeenak, esan nahi da. Haien bidez «hiri sarea egituratuko litzateke», atzo Ingurugiro, Lurralde Antolamendu eta Hirigintza kontseilari Yolanda Barcinak aurkeztu zuen txostenak dioenez, eta populazioari balio natural handiko inguruekin gozatzeko aukera emango litzaioke.



OLALDE

Javier Balza, Herrizaingo sailburua, atzoko agerraldian.

Gehienez 107 ertzain ariko dira aurten euskara ikastaroetan

1999rako 428 hizkuntz eskakizun zehaztu zituzten Barne Sailean

Luis Karlos Garcia / **Gasteiz**

Aurtengo zehaztutako 428 hizkuntz eskakizunetarako, 107 ertzain ariko dira gehienez ere Arkauten euskara ikastaroetan, osterantzekoek dagoeneko lortuta daukate-eta. Javier Balza Herrizaingo sailburuaren datuen arabera, erdiek hiru hilabetetan amaituko dute.

BALZA Eusko Legebiltzarreko batzordean agertu zen atzo goizean, PPko Carlos Urkijo parlamentarioak eskatuta. Eledun popularra «kezkati» azaldu zen, Herrizaingo Sailak euskalduntzeko ikastaroetara aurten bidaliko duen ertzain kopurua bikoiztu nahi duelakoan.

Sailburuak zalantza guztiak desegin zizkion: «Ez da egia bikoiztu egin nahi dugula». Beste era batera aritu zen Urkijoren ardura arintzeko: «Aurten, inoiz ez da egongo 107 ertzain baino gehiago euskara ikastaroetan».

Balzak gogora ekarri zuen bere garaian sindikatuek eta Administrazioak bat egin zutela 1999. urterako 428 eskakizun zehazteko: haietako 321ek badaukate dagoeneko, eta beraz, soil-soilik 107k jardun beharko dute Arkauten. Gainera, sailburuaren ustea da ehun horietatik erdiek hiru hilabetetan bukatu ahal izango dutela.

1997ko abenduaren hondarrean Ertzaintzako Lanpostuen Zerrenda onetsi zen, eta Balzaren irudiko, hori «egun giltzarria» izan zen EAEko Polizia autonomikoaren euskalduntzeari dagokionez. Izan ere, une hartan sei hilabeteko epea eman zitzaion Barne Sailari lanpostuen profilak zehazteko. «Gaur egun prezeptibitateak zehaztuta daude, eta beraz, Administrazioak baliabide guztiak eskainiko ditu ertzain bakoitzak behar duen eskakizuna lortu ahal izan dezan», deklaratu zuen.

Borondatezko ikastaroetan aritu ziren gehienek proba gainditu zuten

1997-98 ikasturtean 455 ertzain aritu ziren Arkauteko «borondatezko ikastaroetan», eta haietako gehienek (%80k) gainditu zuten azterketa. Hizkuntz eskakizunari buruzko azterketa egin eta ia denek gainditu zutela jakinarazi du kontseilariak. «Oso ratio onak dira, beharbada ikasketa prozesua bera ere eraginkorra delako», adierazi zuen Balzak.

Bestalde, joan zen urtarrilaren 11n hasi zen prezeptibitatea aurretik zehaztuta duten lanpostuen gaineko ikastaroa. Balzaren arabera, 109 ertzain aritu dira eta denek bete dute eskakizuna; 17 soilik falta dira.

Hurrengo ikastaroak antolatuta daude. Bana egingo da Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, denak ere EAEko Herrizaingo Sailaren menpeko zentroetan. Horrela ariko dira ERNEk eta ELAk Administrazioarekin hitzartutako dezentralizazio akordioari jarraiki —CCOO sindikatuak ez zuen onartu—.

laburrean

Erdialdeko Amerikarako ontzi bete giza laguntza aterako da Bilbotik bihar

Espainiako Unicef erakundeak eta DIA nazioarteko elikadura enpresak sinatutako hitzarmen bat dela medio, itsasontzi bete giza laguntza abiatuko da bihar goizean Bilboko Portu Autonomotik. Ituna horren arabera, DIA enpresak 55 milioi pezetaren balioko jantzi, elikagai eta etxetresnak jarriko ditu. Produktuak Honduras eta beste hainbat lurraldetara bidaliko dira eta garraio lanetan Kuhne & Nagel, Geolistics eta Altair enpresek lagunduko dute. Giza laguntza bereziki Mitch hurakanak eragin kalteak arintzeko bideratuko da.

Bi urteko kartzela zigorra eskatu dute bost antimilitaristarentzat, Loiolako kuarteleko kanoietan kondoiak jartzeagatik

IAZKO martxoaren 7an, bost antimilitaristak ekintza bat egin zuten Loiolako kuartelean, eta han dauden kanoiak kondoi handi batzuekin estali zituzten. Arantxa Mendia, Manu Ruiz, Oskar Lopez, Endika del Rio eta Xabier Huizik beren buruak kanoiei kateatu zizkieten ondoren. Ekintza haren ondorioz, bostak atxilotu zituzten eta kuarteleko ziegetan lau ordu eta Ertzaintzaren komisariako kalabozoetan beste bi ordu pasatu ondoren askatu egin zituzten. Ondoren, prozedura penala hasi zuten ekintza egin zuten pertsona horien kontra, eta egun amaituta dago. Coruñako epaitegi militarrak bi urteko kartzela zigorra eskatu du bakoitzarentzat.

Bi gizonezko atxilotu dituzte Iruñean emazteari eta neskalagunari ustez tratu txarrak emateagatik

ESPAINIAKO Poliziak bi pertsona atxilotu ditu Iruñean, ustez andreei tratu txarrak emateagatik. Joan den astelehenean, Espainiako Poliziak Tomas L.M. 24 urteko gaztea atxilotu zuen, neskalaguna jipoitzeaz akusatuta. Neskak egin zuen salaketa baten ondorioz etorri zen atxiloketa. Neskak adierazi zuen Tomas L.M. azken sei hilabeteetan etxera joaten zitzaiola eta gorputzean eta buruan kolpeak ematen zizkiola, ordurako harremana etena zuten arren. Egun berean, Ramon Y.L. 39 urteko gizonezkoa atxilotu zuen Poliziak, emazteari tratu txar fisiko eta psikikoak emateaz akusatuta. Emakumeak jarri zuen salaketan adierazi zuenez, gizonarekin bizi izan zen 19 urteetan etengabe jasan zituen tratu txar fisiko eta psikikoak.

Igandean ordubete aurreratu behar dira erlojuak

HURRENGO igandean ordubete aurreratu beharko dira ordulariak: goizaldeko 02:00etan 03:00ak jarri beharko dira. Aldaketa Europako Batasuna osatzen duten herrialde guztiek egin beharko dute, eta horrek 10.000 milioi pezeta aurreztea ahalbidetuko du (400 milioi libera). Ordu aldaketa egiten 1964an hasi zen, Petrolioaren Krisia izan zenean. Herrialde batzuek erabaki zuten ordulariak aurreratzea eguzkiaren argia hobeto aprobetxatzearren, eta argindar gutxiago kontsumitzearren.

Espainiako Sustapen Ministerioak laster hasiko du Nafarroako AHTren azterketa informatiboa

RAFAEL ARIAS SALGADO Sustapen ministroak atzo adierazi zuenez, bere ministerioak laster hasiko du azterketa informatiboa Nafarroatik pasatuko den abiadura handiko trenaren zatiari buruz. Ildo horretan, ziurtatu zuen Madril-Zaragoza-Bartzelona abiadura handiko trenak aukera emango duela Logroño eta Iruñera lotuneak egiteko. Era horretan, Madrildik Iruñerako bidea laburtu egingo da, eta denbora gutxiagoan egingo da. Hain zuzen ere, gaur egun bost ordutan egiten dena ordubete eta 20 minututan egingo da AHT eraikitzen dutenean.

Lanbide Heziketari buruzko I. Azoka inauguratu zuen Miguel Sanz lehendakariak atzo

MIGUEL SANZ Nafarroako lehendakariak Nafarroako Lanbide Heziketari buruzko I. Azoka inauguratu zuen atzo Iruñeko Yanguas eta Mirandako lautadan. Ekitaldian Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilari Javier Markotegi eta Industria kontseilari Ramon Bulto ere izan ziren. Azoka egingo den gunea 2.000 metro koadroko lautada batean jarrita dago, eta Nafarroako lanbide ezberdinetako postuak daude. Gainera, Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Kontseilaritzak eta Industria eta Merkataritza Ganberak ere beren erakusmahaia dute.

Korrika 11 1+1=hamaika

Gipuzkoa, korrikalariz gainezka

Jendeak harrera paregabea egin zion atzo Korrika 11ri Gipuzkoako errepide eta kaleetan barna

Arantxa Iraola / **Azpeitia**

Irunen sartu zen atzo goizaldean Korrika 11. Lasterketak aurten Gipuzkoan egindako lehenengo urratsak izan ziren horiek. Modu horretan korrikalariek aurki, gauerdiko ordu txikietan, 1.125. kilometroa osatu zuten, eta gustu askora aldarrikatu zuten Korrikako ibilbide erdia egina dela. Ondoren, Gipuzkoako hamaika herri zeharkatu zituen lasterketak, eta guztietan jendea oldeka hurbildu zen.

KORRIKALARIZ osatutako ibai zabal batek zeharkatu zituen atzo Gipuzkoako kale eta karrikak. Irundik –Hendaiara bisitatxo bat egin ostean– sartu zen lasterketa Gipuzkoan, eta Korrika 11ko jardunaldirik arrakastatsuenetakoa abian jarri zen. Egunsentian jada, esaterako, une hunkigarria izan zen Gaintxurizketako gaina baino kilometro batzuk lehenago, 1.125. kilometroa zeharkatu baitzuten korrikalariek. Ondorioz, aurten atondutako ibilbidearen erdia jada eginda dagoela ospatu zuten xanpain apur batez. Goizeko ordu txikietan, halaber, une hunkigarria izan zen Pasaian, Pasai Donibane eta Pasai San Pedro artean traineruan igaro baitzuten Korrikako lekukoa.

Jarraian, barrualderako norabidea hartu zuen lasterketak. Errenteria, Oiartzun, Andoain, Aduna... Festa giroan egin zioten harrera udalerri horietako herritarrek Korrika 11ri.

Festa giro hori apaldu egin zen atzo, hala ere, Zizurkilen. Bertako seme Jose Luis Gerestaren heriotza berriak samindurik, bozgorailu handi batzuetatik aireratzen duten musika alaia isiltzea erabaki zuten Korrikaren antolatzaileek. Zizurkildar askok, berriz, krespoi beltzez hornituriko ikurrinekin lasterka eginez azaldu zuten duten samina.

Ordizian ohorezko korrikalariak

Alaitasun giroa aurki berreskuratu zuen, hala ere, Korrikak. Iruran, Tolosan, Itsasondon, Ordizian... Horietan guztietan berriz ere festa giroa izan zen jaun eta jabe, eta arreta bizia piztu zuten maisu-maistren alboan Korrikara joan ziren ume andana handiek.

Ordizian, ume pilo batez gain, ohorezko zenbait korrikalari izan ziren atzo, AEK-k zientziaren mundua euskalduntzeko ahaleginetan ari diren guztiak omendu nahi baitzituen. Guztien ordezkari moduan EHUko irakasle Pedro Miguel Etxenike zientzialari ezaguna hautatu dutenez, arrunt gustura egin zuen hark Ordizian barna atzoko kilometro berezia. Alboan, gainera, oso hurbileko adiskideak izan zituen, guztiak zientzia euskalduntzeko ahaleginetan ari direnak. EHUko irakasle kaleratu bat, Joxerra Etxebarria, esaterako, hantxe zen.

Arratsalde partean, berriz, Urolaldean –Azkoitian eta Azpetian– izan zen lasterketa eta iluntzean Elgoibarren, Eibarren, Soraluzen, Bergaran eta Antzuolan. Guztietan, eguraldiak txarrera egin bazuen ere, jendea ugari izan zen.

Gaur, berriz ere, arabarren txanda izango da, gaueko ordu txikietan hantxe sartuko da Korrika 11, euskaltzaleen lasterketa.

GARI GARAIALDE

Korrikaren etorrerarekin Hernaniko kaleak jendez bete ziren atzo goizean goiz.

Korrika, gorri, berde eta zuria?

lekukoa

ARANTXA IRAOLA

OIHAL zuri-berde-gorria du itsatsirik Korrikaren lekukoak, euskal aberriaren ikurrina. Kolore horiek islatzen al dute, ordea, zer den Korrika? Berdeak, akaso, lasterketaren paisaia isla dezake, Euskal Herriko zelai muskerrak bistan direla egiten baitira kilometro ugari. Berdeak, halaber, agian, esperantza isla dezake, horixe baitio koloreen munduko sineskeriak, berdeak esperantzaren esanahia duela bere baitan. Gorria, halaber, egokia izan daiteke Korrikaren berri emateko, gorrigorriak izaten baitira lasterkarien musuak lasterka ari direnean eta gorriztak gure aho eta ezpainak bero-bero eginik euskararen aldeko oihuak aldarrikatzen ditugunean. Eta, ezin uka, zuriz ere jantzia da Korrika. Zuriak ziren, esaterako, Erronkarin barna egindako etapan ikus zitezkeen mendi tontor elurtuak, eta zuri-zuri geratzen dira hainbat lasterkari ezinean karrerak ihes egiten dienean.

Hitzek, berriz, behin eta berriz Korrikan errepikatzen diren hitzek, zein kolore dute? Euskarari bai! Euskal Herrian Euskaraz! Hemen gaude euskararen alde!... Arnasik hartzeko tarterik gabe errepikatzen ditu hitz horiek lasterketa euskaltzaleak, eta arnas esturik larrienetan ere tinko erantzuten saiatzen dira lasterkariak, gogotsu. Une ederrak izaten dira horiek, gozatzekoak. Gozamen oro apurtuko luke, ordea, hitz horiek zuriak direla jakiteak. Izan bitez, ostadarraren kolorekoak.

Pedro Miguel Etxenike eta Joxerra Etxebarria, muslari

MUSEAN harrapatu genituen atzo Ordiziako taberna batean bi zientzia gizon handi: Joxe Ramon Etxebarria eta Pedro Miguel Etxenike. Ofizio berekoak izaki, gustura ari ziren atzo biak bikotekide bana alboan zutela, elkarren aurka musean. Ondoren jakin ahal izan genuenez, Etxenikek eta bere bikotekideak irabazi zuten lehia txikia. Ez zen kokildu, hala ere, Etxebarria, dotoreziaz galtzen ere ondo aski ikasi duela argi utziz. Bi gizon hauek Ordizian bat egiteko arrazoia, noski, Korrika 11 zen. AEK-kideek zientzia mundua euskalduntzeko ahaleginetan ari diren guztiei omenaldia eskaini dietenez, atzoko kilometro berezian lasterka egiteko gonbita egin zieten.

Lastargien argipean lasterka

Astearte iluntzean eta ondorengo ordu txikietan –Bortzirietan barna ibili zen Korrika– udalerri askotan harrera arrunt polita egin zioten lasterketari, suz pizturiko lastargiz egin baitzioten korrikalariek bidea. Bestela ere oso ondo argiztaturik ibiltzen da Korrika 11 errepidez errepide, baina korrikalarien zuziek, duda izpirik ez, oso itxura berezia ematen diote lasterketari.

Donostiara garaiz irits dadin

Puntu-puntuan iritsi nahi du Korrikak igandean Donostiara. Horretarako, gogoz ari dira lanean antolatzaileak. Hala ere, oso lasterketa luzea izaki, ohikoak izaten dira atzerapen edo eta aurrerapen txikitxo batzuk. Hamar minutu aurrera, hogei minutu atzera... Baina Donostiara garaiz iritsi dadin egin beharreko guztiak gogoz egingo dituzte antolatzaileek. Izan zaitezte ziur.

Korrika 11 1+1=hamaika

Lekukoaren zain

Korrika igaro aurreko minutuetan, errepidea lekukoa hartzeko prest dauden taldez betetzen da

Arantxa Iraola / **Tolosa**

Tankera askotako taldeak hartzen dute Korrika orotan kilometroren bat egiteko ardura. Kilometroa diruz ordaindu, eta ondoren hitzartutako ordu eta egunean errepide ertzera joaten dira, Korrikako lekukoa hartu eta lasterka eginez euskararen alde duten konpromisoaren berri ematera. Beraiek dira Korrikaren eragile nagusiak, eta horregatik atzo Tolosan, galdezka hurbildu gintzaizkien.

JENDEZ gainezka zegoen atzo eguerdian Tolosa, Korrika herrian barna baitzebilen. Triangulo plazaren parean justu lasterketaren 1.198. kilometroak igaro behar zuen, eta hantxe ertzean, urduri antzean Izaskun eta Miren zeuden beste adiskide batzuekin batera. «Udaberri dantza taldeko kideak gara», zioten, eta aipatu kilometroa beraiena zen, taldeak propio erositakoa. «Taldeko jendeari borondatea eskatu zitzaion kilometro bat erosteko», azaldu ziguten. Bildutako diruarekin kilometroa erosi zuten Tolosako dantzariek –40.000 pezeta balio du–. «Gaur, ordea, askok ezin izan dute etorri», gaineratu zuten, astegun buruzuria dela gogora ekarriz.

Aditzera eman zutenez, ez da taldeak erosketa hori egiten duen lehenengo aldia. «Duela bi urte ere aurreko Korrika egin zenean, kilometro bat erosi zuen dantza taldeak», azaldu zuten. Jada hori kontatzen ari zirenean Izaskunek eta Mirenek ez zuten solaserako asti handirik. Korrika 1.198. kilometrotik geroz eta hurbilago zegoen. Gertu, oso gertu entzuten ziren jendearen oihu eta euskararen aldeko leloak. Lekukoa hartzeko unea hurbil zen. «Nork eramango du?», galdetu genien, eta erabakia taldean ordurako aski ongi hartua zutela azaldu zuten. «Biok eramango dugu», esan zuten, batak zein besteak zeregin hori estraineko aldiz egingo zutela gaineratuz. Ondo bete zuten egin beharrekoa. Korrikako lekukoa aurreko eramailearen eskuetatik hartu, hura instant batean agurtu eta lasterka bizian jardun zuten bi neskok kilometro osoan zehar hurrengo lekukoaren parera iritsi arte.

Sarri askotan txikitxoak izaten dira oso lekuko eramaileak. Euskal Herri osoko ikastetxeak buru-belarri murgiltzen dira Korrikan, eta, ondorioz, maiz suertatzen zaie umetxoei lekukoa eramatea. Fin betetzen dute beraien lana. Atzo ere Gipuzkoan hainbat ikastetxetako ikasleei suertatu zitzaien, lekukoa esku artean, kilometroren bat egitea.

Izaten dira, halaber, guztien artean, ez ume, ez nagusi, arrunt bitxiak diren lekuko eramaileak. Astearte ilunabarrean, esaterako, Nafarroako iparraldean ibili zen Korrika, eta Ituren eta Donezteb artean hartzez mozorroturiko pertsona batek eraman zuen lekukoa. Mitologiaren aztarnetatik dator hartza Malerrekan, eta korrikalari zein ikusleek biziki txalotu zuten lekuko eramaile berezia. Itxurak ez baitu garrantzirik. Lekukoa tinko, aurrera egitea da kontua.

GARI GARAIALDE

Haur bat atzo Adunan, Korrika iritsi aurretik lekukoa hartzeko prest.

Ibilbidea

ARABA	Murua	08:00	ARABA	Estarrona	20:02
	Gopegi	08:08		Gasteiz	20:16
	Zaitegi	08:50		Abetxuko	22:42
	Mugia	09:34		Miñano	23:30
	Altube	10:12		Luku	23:51
	Amurrio	11:52		Urbina	23:50
	Saratxo	12:47		Legutio	00:23
	Urduña	12:56	BIZKAIA	Otxandio	01:21
	Goturi	14:18		Zeanuri	03:02
	Ikaria	14:44		Arratia	03:21
	Abornikano	15:02		Artea	03:36
	Kuartango	15:17		Arantzazu	03:56
	Tortura	15:43		Igorre	04:05
	Etxabarri-Kuartango	15:57		Lemoa	04:36
	Zuhatzu	16:03		Berriz	04:56
	Subijana	16:38		Usurbilo	05:00
	Pobes	16:51		Galdakao	05:28
	Amurtia	16:57		Etxeberri	06:19
	Villafuenga	17:23		Basauri	06:25
	Tuyo	17:30		San Miguel	06:50
	Argantzun	17:50		Arrigorriaga	07:22
	Langraiz	18:40		Ugao	07:50
	Mendoza	19:42			

Korrika 11 1+1=hamaika

GARI GARAIALDE

Tolosan inauterizale. Mediku plantak egin eta korrika lekuko eramaileari laguntza eskaintzera joan ziren atzo argazkiko bi hauek Tolosan. Bistan denez, baina, neskatoak ez zuen batere laguntzarik behar. Tolosan beti inauterizale.



GARI GARAIALDE

Hernanin korrikalariak oldeka. Goizean goiz igaro zen euskararen aldeko lasterketa Hernanitik; hori ez zen oztopo izan, ordea, jendetza izugarria biltzeko lekukoaren atzetik.

GARI GARAIALDE

EGUNKARIA eta Kontseilua korrika. Andoaingo Martin Ugalde parkean dute bi horiek egoitza nagusia, eta haren parean egin zuten atzo korrika bertako langileek. Pili Kaltzada Kontseiluko Komunikazio arduradunari eta Ainhoa Oiartzabal EUSKALDUNON EGUNKARIAko kazetariari egokitu zitzaien lekukoa eramatea.

GARI GARAIALDE

Bide erdia baino gehiago egin du lekukoak. Ekitaldi honetako ibilbide luzearen erdia atzo goizaldean egin zuen lekukoak Gaintxurizketako gainean, hain justu. Gero eta gutxiago geratzen zaio Donostiara iristeko.

GARI GARAIALDE

Umeak, parte hartzaile eta ikusle zintzo.

Eguraldia lagun, Gipuzkoako ia ikastetxe guztietako haurrak atera ziren atzo kalera, Korrikari agur egiteko. Batzuek lasterka hartu zuten parte euskararen aldeko ekimenean; besteek, txikienek, espaloitik, txalo eta txalo egiten agertu zuten euren babesa. Aurreko egunetan zakar poltsekin edo paperekin egindako petoa jantzita, zintzozintzo jarraitu zuten Korrika.

GARI GARAIALDE

Furgonetakoak ez dira nekatzen. Lasterka ari direnak ito beharrean izaten dira askotan; haiei animoak ematen dizkietenak, berriz, fresko-fresko. Etenik gabe aritzen dira, egun osoan, oihuka.

Korrika 11 1+1=hamaika

Etxenike omendu du Korrika 11k

Zientzia arloa euskalduntzeko ahalegina eta egin duen bidea eskertu nahi izan diote

Amagoia Mujika / **Donostia**

Omenaldi xumea egin zioten atzo AEK-ko kideek Pedro Miguel Etxenike zientzialariari. Miramonen zientziaren museoa izango denaren atarian ezarri diote Korrikaren lekukoa buruan duen harria. Harri horretan dago Etxenikeri egindakoa eskertuz hitz grabatuen plaka. Zientzia euskalduntzeko ahalegina eskertu zioten han bildutako guztiek.

DONOSTIAKO Miramon auzoko Parke Teknologikoan datorren urterako zientziaren museoa izango dena abian jarri nahi du Kutxak. Eraikuntza horren aurrean AEK-k Etxenikeri Korrikaren lekukoa ezarri dio, zientzia euskalduntzen egin duen ibilbidea eskertzeko.

Atzo hantxe bildu ziren Pedro Miguel Etxenikerekin batera bide horretan aritu diren hainbat eta hainbat zientzialari, eta horiek guztiek jaso zuten esker ona antolatzaileen eskutik.

Xabier Alkorta Kutxako zuzendari nagusiak hartu zuen lehen hitza: «Egun aproposa eta leku aproposa da hau gaur hemen ospatzen ari garen jaia egiteko. Hemendik urtebetera zientziarekin eta euskararekin hartu dugun konpromisoa hementxe zientziaren museoan ahalbidetuko baita». Gaineratu zuenez, «zientzia eta euskara ezkontzeko konpromisoa» dute, eta ezkontza horren eredu da Etxenikeren lana.

Bestalde, Xabier Irazustak, Korrika 11ko arduradunak, hitz egin zuen. Kutxari esker ona eman zion, leku hori eskaintzeagatik Korrikak Etxenikeri egin nahi izan dion errekonozimendu plaka ezartzeko. Euskararen normalizazioa izan zuen ahotan, eta testu bat irakurri zuen. Testuan azpimarratzen zuen esparru guztietan aritzeak ekarriko duela hizkuntzaren normalizazioa.

Testua irakurri ondoren, harriaren buruan ezarritako lekukoan sartu zuten testua Irazustak eta Etxenikek, han iraun dezaten konpromiso hitz horiek.

EDURNE KOCH

Pedro Miguel Etxenike, euskararen gaineko testua lekukoan sartzen, hantxe iraun dezan etorkizunean. Alboan, Xabier Alkorta Kutxako zuzendari nagusia eta Xabier Irazusta Korrika 11ko arduraduna.

GARI GARAIALDE

Pedro Miguel Etxenike, Korrikak zientziari eskaini dion kilometroan.

Zientzia euskaraz uztartzea, ezinbestekoa

Ondoren, atzoko protagonistak hartu zuen hitza, Pedro Miguel Etxenikek. Etorkizunaren gainean jardun zuen, Kutxari eta Korrikari esker onak eman ondoren: «Gure herriaren etorkizuna zientzian eta teknologian oinarrituko da ezinbestean, ia mundu osokoa bezala. Horretarako ezinbestekoa da zientzia euskaraz uztartzea orain eta aurrerantzean».

Gaineratu zuenez, «euskarak ez du aurrera egingo legeek hau edo hori esaten dutelako soilik. Euskal Herriak iraun dezan herriaren nahia, euskaldun izateko nahia da derrigorrezkoa».

Euskara zientzia eta teknologia guztien oinarrian egongo den herria eraikitzeko nahia eta beharra azaldu zuen, eta hauxe gaineratu: «Ez dugu edozein motatako herria nahi, Euskal Herria baizik».

Ondoren, Mitxelenak esandakoak ekarri zituen gogora. Mitxelenak Etxenikeri esan zionez, nahi bakarra zuen: «Euskadi osoa Euskal Herria bihurtua ikustea, euskaldundua».

Azkenik, eskerrak eman zizkien Korrikan eta beste hainbat lekutan lanean ari diren guztiei, «herri euskaldundua lortzeko bidea egiten» ari direlako.

txostena

Zientziaren lekukoak barruan gordeko du euskarari buruzko txostena

• Atzo Pedro Miguel Etxenikeri egindako omenaldian etorkizunean gorderik geratuko den plaka opa zioten AEK-ko kideek. Plakaren gainean Korrikaren lekuko bat ezarri dute, eta barruan hantxe iraungo duen testua sartu zuten, Xabier Irazustak irakurri ondoren. Honela dio lekukoaren barruan etorkizunean iraungo duen mezuak:

HIZKUNTZA bat erabat normalizatzeko edozein mailatan egin behar da euskaraz.

Askok jarri izan dute zalantzan euskararen balioa, zientzietarako balio ez duen hizkuntza dela esanaz. Baina, zorionez, Euskal Herrian beste asko izan dira euskara, beste hizkuntzen parean, hizkuntza osoa dela demostratzeko konpromisoa hartu dutenak, eta zientzia euskarari arrotz izan ez dakion hamaika lan egin dutenak.

Harri hau jartzen ari garenean, zientziaren museoa proiektua da, ez ordea zientzian euskaraz aritzea.

Gaurko ekitaldi honetan lehena, oraina eta geroa lotzen dira, eta hiru garaiak euskararen bidez lotzeko konpromisoa dugu: zientzia euskalduntzeko eginiko lana ezagutzearekin batera oinarri sendoak jarri dira biharko proiektuak ere euskaldunak izan daitezen.

Beraz, hemengo harri honek sinboliza ditzala orain arte egindako lanak eta izan dadila gerorako proiektuak euskaldunak izango diren konpromiso.

ZENARRUZABEITIA LEHENDAKARIORDEA MONTI KOMISARIOAREKIN ELKARRIZKETATU ZEN ATZO

Jaurlaritza kezkati dago Europak Kontzertua ulertzen ez duelako

- EAEko laguntza fiskalak Europako araudiarekin bateragarriak diren aztertu zen atzo
- Bruselako eta Gasteizko erakundeen arteko harremanak estuagoak izango dira aurrerantzean
- Sailburuarentzat, Europan ordezkatuta egon behar da euskal erregimen fiskala ulertarazteko

Joseba Aiartza / **Bilbo**

EUSKO JAURLARITZA «itxaropentsu» eta, aldi berean, «kezkati» dago Europako Batasuneko Justizia Auzitegiak EAEko sistema fiskalari buruz hartuko duen erabakiagatik. Kezkaren arrazoia, Europako Batzordetik egindako alegazioak direla azaldu du Idoia Zenarruzabeitia Eusko Jaurlaritzako lehendakariorde eta Ogasun sailburuak.

Zenarruzabeitia Bruselan izan zen atzo, Europako Barne Merkatu, Finantza Zerbitzu eta Zerga Kontuetako komisario Mario Monti italiarrarekin elkarrizketatzeko. Jarduneko komisario horrek bi konpromiso hartu zituen lehendakariordearen aurrean: alde batetik, Europako Batzordearen eta euskal erakundeen arteko harremanak estutzeko konpromisoa, eta bestetik, euskal sistema fiskalari buruz atzo jasotako informazioa bere ondorengoari ematekoa.

Lehendakariordearekin batera Juan Migel Bilbao sailburuordea eta Alejandro Agirrezabal Eusko Jaurlaritzak Bruselan duen ordezkaria izan ziren. Mario Montirekin batera, berriz, Cardani eta Boulier aditu europarrak zeuden. Euskal Herriko sistema fiskalaren berezitasunaz jardun zuten bi ordezkaritzek, ikusteko zein neurritaraino den bateragarria Europako Batasuneko araudiarekin.

JOSEBA OLALDE

Idoia Zenarruzabeitia lehendakariorde eta Ogasun Saileko sailburua, prentsari adierazpenak egiten.

Beste edozein estatu bezala

Zenarruzabeitiaren ustez, Europako erakundeek ez dute oraindik ulertu EAEko Kontzertu Ekonomikoa zer den, eta horregatik zalantzak sortzen dira foru aldundiek erabakitzen dituzten arau fiskalen legezkotasunaz, Daewooren kasuan gertatu den bezala.

Gaizki ulertuaren arrazoia, lehendakariordearen ustez, euskal erregimen fiskala Espainiako Estatuaren barrukoarekin alderatzetik dator. Erregimen ezberdinak direnez, ondorioa zera da: EAEko sistema fiskala legez kanpokoak dira.

«Ni saiatu naiz Montiri azaltzen, testuinguru historiko batetik, lotura juridikoa dagoela Espainiako erregimen fiskalaren eta Kontzertu Ekonomikoaren artean, beraz, gure sistema Europako beste edozein estaturena bezain legezkoa da», azaldu du.

Nolanahi ere, Zenarruzabeitiak azpimarratu du Euskal Herriko berezitasun fiskala ulertarazteko biderik egokiena euskal erakundeek Europako Batasunean ordezkaritza zuzena izatea dela. «Horixe da gure defizita», esan zuen Ogasun Saileko sailburuak.

Luxenburgoko Auzitegiak maiatzaren 4an ebatziko du euskal erregimen fiskalaz

LUXENBURGON, Europako Justizia Auzitegi Nagusiak datorren maiatzaren 4an ebatziko du euskal erregimen fiskalaren eta laguntzen legezkotasunaz. Ebazpen hori ez da bete beharreko epaia izango, baina erabateko garrantzi politikoa izango du, Kontzertu Ekonomikoak jasotako ahalmenak Europako Batasunaren araudiarekin bat datozen ala ez argituko baitu.

Auzi horren iturria EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak iaz egindako galdera da. 1993. urteko «opor fiskalen» aurka aurkeztutako errekurtso baten ondorioz, EAEko Auzitegiak eskuak garbitu eta Europako Auzitegiari zuzenean galdetzea erabaki zuen. Luxenburgoko Auzitegiak dioenaren arabera, beraz, EAEkoak era batera edo bestera epaituko ditu aldundien arau fiskalaren aurkako errekurtsoak.

Jaurlaritza itxaropentsu dago, baina Zenarruzabeitiak onartu duenez, kezkatuta ere badago, ikusirik Europako Batzordea oso kritiko agertu izan dela euskal erregimen fiskalaren ingurun erakutsi jarreran.

Kezka hori are handiagoa da, Daewoo auzia dela-eta Karel Van Miert Konkurrentziarako komisarioak (hori ere jardunekoa) EAEko erregimen fiskala gaitzetsi zuenetik, «enpresen arteko ezberdintasunak eta diskriminazioa» sortzen dituela esanez.

Zenarruzabeitia beldur da irizpide horiek ez ote duten eragina izango Luxenburgoko Auzitegiak erabakian.

Martxoaren 11ko aurreakordioa berrirekitzeko eskatu du Chiracek

- *Pentsatu baino 6.300 milioi euro gehiago behar dira aurreakordioa betetzeko*

Agentziak / **Berlin**

AGENDA 2000ren finantzaketa berria erabat zehaztea espero da gaur, Europako Batasuneko herrialdeetako ordezkariek atzo beren asmoak plazaratu ostean. Martxoaren 11n hitzartutako aurreakordioa berriro negoziatzeko eskaera izan zen ardatza. Frantziak aurreakordio horrek pentsatu baino 6.300 milioi euro gehiagoko gastua dakarrela argudiatuta eskatu zuen berriro negoziatzeko.

Hasiera batean, herrialde gehienek ezetza eman zioten Frantziaren proposamenari, baina Chiracek Berlingo goi bileraren arrakasta nekazaritza alorrean lortzen diren aurrerapenen araberakoa izango dela gogoratu zien beste ordezkari guztiei.

Litekeena da Agenda 2000 —2000-2006 seiurteko dirua zertan eta nola gastatu behar duen finkatu behar duen plangintza— gaur erabakitzea.

Prezio duinak eta laguntzen banaketa

EHNE sindikatuak Europako Nekazaritza Politika zuzenagoa eta orekatzailea aldarrikatu du. Madrilgo Gobernuak Gasteizen duen ordezkaritzan elkartu ostean egin zuten aldarrikapena. EHNEk laguntza konpentsatzaileen banaketa lotsagarria salatu du, eta Nekazaritza Politika Bateratuaren Erreformak desoreka larria eragingo duela salatu.

EHNErentzat, EBko Nekazaritza ministroek martxoaren 11n hitzartutako akordioa iruzurra da. Sindikatuarentzat, Berlingo goi bilerak ez du egungo egoera aldatuko, «ustiategi handi batzuk finantzatzen jarraituko delako». Europako Kontuen Epaitegiaren datuen arabera, ustiategien %4k laguntzen %40 jasotzen dute.

EHNEk prezioak mantentzeko eta baserriaren aldeko laguntza zuzenen banaketa modulatua eskatzen du.

Imazek berrikuntza teknologikoaren bidetik segitzeko eskatu die enpresei

Cita'99 azokari hasiera eman zion sailburuak atzo, Bilboko Erakustazokan

Joseba Aiartza / **Bilbo**

Berrikuntza teknologikoaren bidean sakontzeko eskatu zien atzo Josu Jon Imaz Industria sailburuak euskal enpresei, Cita'99 Azokaren hasiera ekitaldian. Imazen hitzetan, hortxe dago lehiakortasunari eusteko giltzarria.

XOUSE SIMAL

Josu Jon Imaz Industria sailburua, Cita'99 erakustazokako tresneria ikusten.

JAURLARITZAKO Industria sailburuaren ustez, atzo zabaldutako Cita'99 Teknologia eta Automatizazio Azokak «egoki erakusten du euskal enpresak nolako ahaleginak egiten ari diren berrikuntza teknologikoetan sakontzeko». Berrikuntza horiei esker, euskal industriak hazkunde tasa handiak izan ditu azken 10 urteetan, Europako Batasunekoaren gainetik oso.

«Euskal ekonomiaren etorkizunaren giltzarria gure enpresen lehiakortasuna da, eta ahalegin garrantzitsua egin da bi ardatz nagusiren inguruan: batetik, teknologia eta berrikuntza hobetzea, eta, bestetik, kanpo merkatuetara zabaltzea», esan du.

Baina lehiakortasunari eusteko, berrikuntza teknologikoan egiten ari den ahalegin horrek etengabea izan behar duela ohartarazi du Imazek. Ildo horretatik, «azoka hau agerraldi ezin hobea da enpresen arteko harremanetan jarduteko eta azken berrikuntzen berri jakiteko».

Inaugurazioaren ostean, Imazek bisitaldia egin zuen Azokako bi pabilioietako erakustoki nagusietan. Azoka larunbata arte egongo da zabalik. Bisitari ugari bildu dira bertara jada, batik bat profesionalak eta ingeniaritza ikasleak.

Babcock eta ekipo ondasunen sektorearen etorkizuna

BABCOCK WILCOX enpresaren pribatizazioa aipagai izan zuen Imazek. Enpresa hori erosteko hiru eskaintza daude: EEBBetako MacDermott, Espainiako Duro Felguera eta Alemaniako Steinmuller enpresena. Estatuko SEPI sozietateak hilabete barru erabakiko du nori saldu.

Jaurlaritzako Industria sailburuarentzat, EAEn ekipo ondasunen sektoreak irautea da prozesu horretan garrantzitsuena. Horregatik, Jaurlaritzak bere osotasunean hartu nahi du sektorearen egokitzapena; hau da, Babcock eta Mecapeña enpresentzako konponbide bateratuaren alde dago Gasteiz.

Jaurlaritzak «sektorean lidergoa izateko gaitasuna erakusten duen eskaintza» bultzatuko du Babcock pribatizatzeko.

Imaz: «Parke teknologikoak egoera ekonomiko onean daude»

JOSU JON IMAZEK EAEko hiru parke teknologikoak egoera ekonomiko onean daudela adierazi zuen atzo Gasteizen. Azken urteetako balantzearen arabera, Arabako Parkeak 116 milioi pezetako irabazia lortu du; Donostiakoak, aldiz, 187 milioiko galera izan du, eta Zamudiokoak 3.698 milioiko galera.

Industria sailburuaren arabera, 132 enpresa biltzen dituzte hiru parke teknologikoek: 32 Araban, 19 Gipuzkoan eta 81 Bizkaian. Enpresa horietan 5.001 langilek egiten dute lana —1.439 Araban, 612 Gipuzkoan eta 2.950 Bizkaian—, eta erdiek goi titulazioa dute.

Orotara, 113.000 milioi pezeta fakturatu zituzten parke teknologikoetako enpresek.

laburrean

■ Eroskik gasolindegi berria ireki du Arteako Merkataritza Gunean

EROSKI taldeak gasolindegi berria ireki du asteon Leioan (Bizkaia), Arteako Merkataritza Gunean. Euskal Herrian irekitzen duen seigarrena da. 1993an ireki zen lehena, Iruñean, eta gero Bilbo, Tutera, Arrasate eta Donostiako guneetan zabaldu ziren besteak. Hasierako kanpainan, Arteako gasolindegiak 15 pezeta merkeago eskainiko ditu super 97 (100 pezeta litroa, 4 libera) eta berunik gabeko erregaiak, eta 10 pezeta merkeago gasolioa.

■ Elkarlan akordioa sinatu dute Ikerlanek eta Cidetecek

ARRASATEKO (Gipuzkoa) Ikerlan teknologi ikertegiak eta Donostiako Cidetec enpresak harreman teknologikoa sendotzeko akordioa sinatu zuten atzo, Miramongo Parke Teknologikoan (Donostia). Harremana erregai pilen arloan gauzatuko da, Ikerketa+Garapena egitasmoetan, langile trukean, aholkularitzan eta formakuntzan, hain zuzen ere.

■ Bilbo-Bizkaia Ur Partzuergoa baserritarrekin bilduko da uraren tarifaz mintzatzeko

BILBO-BIZKAIA UR PARTZUERGOAK bertako kide diren herrietako baserritarrekin bilduko dela jakinarazi du. Ur hornikuntza eta saneamendu tarifen ordainketaz mintzatuko dira. EHNEk hainbat baserritarrek saneamendu tarifak zerbitzu hori jaso gabe ordaintzen dutela salatu ostean itagarri dituzte bilerak.

Burtsa

• J.B. ANDUEZA •

Txirristan

Kontinente zaharrean gerra hotsa berriz ere. Gizadiaren beste porrot bat eta, bide batez, finantza merkatuak txirristan behera. Abenduaren 31ko mailaz azpitik gabiltza aste honetan, baina jakina da txirristek aldapa gutxiago izaten dutela behealdean.

Atzo, goizeko emaitza txarrak azken orduan itxuratuz, %0,08 baino ez zuen galdu Ibex-35ak, eta badirudi inbertsiogileak merkealdiok aprobetxatzen hasiak direla dagoeneko.

Eraikuntzak %1,3 eta bankak %0,9 galdu zuten; argindar sektorekoek, berriz, %0,53 irabazi zuten, inbertsio sektorekoek %0,5 eta komunikabideek %0,29. Beste behin, eguneko izarra Telepizza izan zen, %5,59ko igoerarekin.

Bilboko indizea



Dibisen merkatua

	1 Euro
Dolarra (EEBB)	1,0060
Libra Esterlina	0,6653
100 Yen (Japonia)	1,2860

Beste indizeak

New York (Dow Jones)	9.660,80 (-%0,02)
Tokio (Nikkei)	15.515,47 (-%3,14)
Madril (IBEX-35)	9.270,70 (-%0,06)
Paris (CAC-40)	4.084,50 (-%2,68)
Londres (FTSE 100)	6.016,7 (-%0,72)
Frankfurt (DAX-XETRA)	4.707,33 (-%1,5)
Milan (Milbel)	24.345 (-%1,20)

■ **URRE** beltzaren distira berreskuratu nahi dute Lurralde Petrolio Esportatzaileek. Eskaintza murriztuz prezioa igotzea guztiei komeni zaie; akordioa ezkutuan hautsiz pixka bat gehiago produzitu eta irabaztea ere komeni zaie, ordea. Horra negoziazio mahaiaren hanka motzena. Repsol eta Elf ez daude oso urduri.

■ **ZARDOYA**-Otisek 0,21 euroko dibidendu gordina banatu du.

Kosovo NATOren erantzuna

ERASOAK HASI ARREN, GATAZKA DIPLOMAZIAREN BIDEZ KONPONTZEKO BIDEA ITXITA EZ DAGOELA ADIERAZI DUTE

Jugoslaviako aire defentsei eta Kosovoko helburu militarrei eraso die NATOk

- Pristina (Kosovo) eta Belgrado inguruko instalazio militarrak izan dira NATOren lehen jomugak
- Lehendabiziko erasoek kuartel militarretan bizi ziren zibilak hil dituztela jakinarazi du Jugoslaviako Armadak
- Bonbardaketen bidez «hondamendi handiagoak» eragotzi nahi dituztela argudiatu du Bill Clintonek

Iker Aranburu / **Donostia**

ARRATSALDEKO zortziak aldera ekin zien NATOk Jugoslaviaren aurkako erasoei. Ordu horretan, Pristinako herritarrek (Kosovo) babes lekuetan sartzeko sirena entzun zuten. Ordu laurden beranduago, Belgradoko herritarrek entzun zuten alarma. Gau hasieran artean ez ziren eten bonbardaketak.

NATOko iturriek jakinarazi zutenez, Adriatiko Itsasoan dauden ontziek eta urpekoek Tomahawk misilak jaurti zituzten. Halaber, B-52 bonbaketariek eta gerra hegazkin txikiagoek ere parte hartu zuten: Harrier britainiarrek, Mirage frantziarrek eta F-18ek. Erasoen lehen aldi horretan batik bat estatu batuarrek hartu zuten parte, baina NATOko beste sei herritako indarrek ere jardun zuten: Alemania, Espainia, Frantzia, Erresuma Batua, Kanada eta Holanda. Alemaniarren kasuan, lehen aldia da Bigarren Mundu Gerraz geroztik eraso militar batean parte hartzen dutena.

NATOren lehen erasoa Jugoslavian

I. ARZELUS

NATOren xedeak

Atzo hasitako erasoen lehen txandan, bi ziren NATOren jomuga nagusiak: aire erasoen aurkako bateriak eta Kosovoko bertako instalazio militarrak. Lehen jomugak txikituta, Aliantzak bermatu nahi du hurrengo egunotan gerta daitezkeen bonbardaketetan bere hegazkinek arrisku gutxiago izatea. Kosovoko ekintzarekin, aldiz, galarazi egin nahi du serbiarrek aukera baliatzea albaniarren aurkako eraso are gordinagoa egiteko.

NATOko iturriek azpimarratu zuten xede militarrei bakarrik erasoko dietela, baina onartu zuten agian «zeharkako galerak» gerta daitezkeela, hots, biktima zibilak izan daitezkeela.

Tanjug Jugoslaviako berri agentzia ofizialak ziurtatu zuen biktima zibilak izan zirela, hots, «errepublika ohietatik ihes egin zuten militarren emazte eta semealabak». Serbiako telebistak iragarri zuen Armadak NATOren hegazkin bat bota zuela Cicavican (Kosovo) eta hiru misil lehertarazi zituztela. Berriak baieztatzeke zeuden. Zabaldu zenez, Pristina, Podgorica eta Belgrad inguruko aireportu militarretan leherketak izan zirela. Halaber jakin zen Novi Sad, Pancevo, Kursumlija eta Uzicen izan zirela bonbardaketak.

Javier Solana NATOko idazkari nagusiak gezurtatu egin zuen Jugoslaviaren aurkako gerra dagoela. Gauean, ostera, «gerra egoera» deklaratu zuen Jugoslaviako Gobernuak.

Clintonen mezua

Bill Clinton Estatu Batuetako presidenteak argudio humanitarioak erabili zituen erasoak justifikatzeko. «Fermutasunak soilik eragotziko du hondamendi are handiagoa gertatzea», jakinarazi zuen. NATOko herrialdeetako agintariek dei egin zioten Milosevici Kosovorako bake akordioa onar dezan, hori baita bonbardaketak geratzeko bide bakarra. Negoziazioak itxita ez daudela esan zuen Europako Batasunak.

Milosevicen defentsarako deia

SLOBODAN MILOSEVIC Jugoslaviako presidenteak erasoen aurrean defendituko direla agindu zien atzo herrikideei. «Ahal dugun bide guztiekin defendituko dugu gure lurra», ziurtatu zuen Milosevicek, telebista bidez zabaldutako mezuan.

Jugoslaviako lehendakariak erabat baztertu zuen Frantziako bake konferentzian Kontaktu Taldeak Kosovorako proposatu zion irtenbidea. «Gure lurrean nazioarteko tropak arbuiatzea zen har genezakeen erabaki zuzen bakarra. Horrela eragotziko dugu Serbiak eta Jugoslaviak beren askatasuna galtzea», adierazi zuen.

Nolanahi ere, Montenegrok atzo azpimarratu zuen —Serbiarekin batera, Jugoslaviako Errepublika Federala osatzen du— ez duela bere burua gerran ikusten. Montenegroko Gobernua Milosevicen aurkakoa da, eta Kosovoko gatazkan neutrala dela aldarrikatu du. Montenegro, ordea, txikia da: 640.000 biztante ditu. Serbiak 9,5 milioi ditu.

Kosovo NATOren erantzuna

Boris Jeltsin azken unera arte saiatu da serbiarren aurkako erasoa gerarazten

Ukrainak ere protesta egin nahi izan du, herrialde ez nuklear izendapena ezabatuz

Erredakzioa / **Donostia**

Errusiako agintariak azken-azkenera arte saiatu ziren atzo Serbiaren aurkako erasoak gerarazten, baina, espero zenez, ez zuten mehatxu militarrik erabili bonbardaketak ekiditeko. Txinak ere gogor arbuiatu du NATOren erabakia, eta, lehen aldiz, Ukrainak protesta egin nahi izan zuen.

BORIS JELTSIN telebistaz mintzatu zitzaien errusiarrei bere Gobernuaren iritzia jakinarazteko. Adierazpen horretan, Jeltsinek «mundu osoa eta politikariak» deitu zituen Bill Clintoni presio egiteko. «Gera dezagun Clinton!» aldarrikatu zuen. Presio gisa neurri militarrik ez zuen hartu Errusiako presidenteak.

Jeltsin ia ordubetez mintzatu zen telefonoz Clintonekin arratsaldean, baina bilerak ez zuen balio izan bietako inork iritzia aldatzeko.

Asteartean, Irlandan zegoela, Jevgeni Primakov Errusiako lehen ministroak Kosovoko egoera Euskal Herrikoarekin konparatu zuen. «Agian orain norbaitek Turkia bonbardatu nahiko du kurduen arazoa konponduta ez dagoelako, edo Espainia, euskal arazoa hor duelako. Eta ez dut aipatu nahi orain nagoen herrialdea», esan zuen.

STR-AP

Errusiarrak protestan Estatu Batuek Moskun duten enbaxadan.

Funtsean, Errusiak ezin du protesta besterik egin NATOren erabakiaren aurrean. Errusiak nahiko arazo badu bere burua gobernatzearekin, serbiar aliatu historikoa defenditzearren arazo gehiagotan sartzeko. NATOren erabakiaren berri jakin zuenean, Primakov bera Estatu Batuetara zihoan, Estatu Batuen bidez Nazioarteko Diru Fondoari mailegu gehiago eskatzeko. Errusiak diru hori behar du orain zor dituen pentsioak eta soldatak pagatzeko, herrialdea martxan jartzeko eta dagoeneko pilatuta duen zorraren interesak pagatzeko. Kosovo dela-eta Primakovek bere bidaia bertan behera uztea txaloz jaso zuten diputatuek, baita liberalen egunkarien kritika gogorrak ere.

Ukrainaren keinua

Ukrainak ere elkartasuna adierazi nahi zion hegoaldeko senide eslaviarrari. Azken urteotan Mendebal Europarekin harreman onak eduki nahi izan ditu Kiev-eko Gobernuak, baina orain kontrako keinu bat egin du. Hain zuzen ere, Ukrainako Legebiltzarrak bertan behera utzi zuen herrialdea «nuklearizatu gabetzat» jotzeko erabakia. Deklarazio hori Sobiet Batasuna hautsi zenean egin zuen Ukrainak, eta horrekin erakustera eman nahi zuen lurralde neutrala zela eta ez zuela arma nuklearrik nahi. Horren ondorioz, Sobiet Batasunaren garaian Ukrainan pilatutako 176 arma atomikoak Errusiara eraman zituzten. Azkena 1996ko maiatzean atera zen. Mendebaldera gerturatu nahian, Ukrainak NATOrekin kooperatzeko ituna izenpetu zuen 1997an.

Jendarmearen logika

Iker Aranburu

Justifikazioa • «Zerbait egitea arriskutsua da, baina ezer ez egitea are arriskutsuagoa». Hala justifikatu ditu Bill Clintonek Serbiaren aurkako erasoak. Antzeko hitzak esan zituzten NATOko beste gobernuburuek ere. Argudioa erabat logikoa da beraien aldetik. Izan ere, iazko otsailean Kosovoko gatazka larritu zenetik, NATOk behin eta berriro iragarri du ez zuela luzaroan jasango albaniarren aurkako errepresio bortitza. Mehatxu horiek behartuta bildu ziren serbiarrak eta albaniarrak otsailean Rambouilleteko bake negoziazioetan. Albaniarrek halabeharrez onartu zuten autonomia, ondoren independentzia lortzeko atea zabalik geratzen zitzaielako eta horrekin nazioartearen babesa gordeko zutelako. Serbiarrek ez zuten espero albaniarren baiezkoa, eta atzera egin zuten.

Beldurra • Azken asteetan hainbat ultimatum egin ditu NATOk eta eginahal diplomatikoak ugaritu ditu. Argi utzi du erasoen ondorioen beldur zela eta zer gertatuko den oso ongi ez dakiela. Ikusteke dago aire erasoek Milosevicen jarrera aldaraziko duten, eta albaniarren aurkako errepresioa handitzeko arriskua ez da txikia. Gainera, bonbardaketa horiek hankaz gora jar dezakete Balkanetako oreka ahula. Baina, behin mehatxua eginda, ezin atzera egin barregarri geratu gabe, batik bat datorren hilean NATOk 50.urteurrena ospatu behar duenean. «Arrisku komunista» igaro ondoren, zeregin bat behar du NATOk —eta Estatu Batuek, benetako boterea haiek baitute Aliantzan—: munduko jendarme izatea da zeregin hori.

Nazio Batuak • Erasoen aurkakoek argudiatzen dute Nazio Batuek baimendu behar dutela nazioarteak herrialde baten aurka egitea, baina hori ezinezkoa zen Kosovoren kasuan, errusiarrek eta txinatarrek beto eskubidea erabiltzen baitute, oraindik potentzia direla erakusteko. Gainera, NATOk ez dio lekurik eman.

Hori bai, jendarmeari, lepora dakioke interesatzen zaion lekuan inposatzen duela «arrazoi humanitarioen» legea eta beste gatazka mingarri batzuk —Kurdistan, Sahara, Palestina...– ahaztuxeago dituela.

Hamar urte gatazkatsu

Serbiarren eta albaniarren arteko gatazkak turkiar inperioan ditu sustraiak, baina 1989an berpiztu zen.

1989 • Slobodan Milosevic Serbiako presidenteak ezabatu egin zituen Errepublikaren barnean Vojvodinak eta Kosovok zuten autonomia. Tito mariskalak eman zien autonomia 1974an, eta horri esker nahiko bakean bizi izan ziren 15 urtez. Erabaki horrekin, bere boterea eta serbiarrena sendotu nahi zuen Milosevicek, baina Jugoslaviaren zatiketa eta Eslovenia, Kroazia eta Bosniako gerrak ekarri zituen.

1990 • Albaniarren matxinada indarrez erreprimitu zuen Serbiako Poliziak. Dozenaka hil. Uztailean, albaniarrek kontrolatutako legebiltzarrak independentzia aldarrikatu zuen.

1992 • Ibrahim Rugova idazlea —komunista izandakoa— hautatu zuten albaniarrek presidente. Serbiak ez zuen onartu. Rugovak indarkeriarik gabeko erresistentzia bultzatu zuen: boikota serbiarren erakundeei eta zergak ordaintzeari.

1993 • UCKren lehen ekintza: bi polizia serbiar hil zituen Drenican. Taldea Suitzan erbesteratutakoek sortu zuten, Rugovak berak zerbitzu sekretuen asmakizuna zela esan arren.

1997 • Albaniarren manifestazioak ugaritu ziren.

1998 • Polizia eta UCK gerra irekian hasi ziren Drenican. Maiatzean serbiarrek erasoari ekin zioten UCKren esku geratutako mendebaldeko eta iparreko lurrak bereganatzeko. Irailean, dozenaka milaka errefuxiaturen irudiekin batera jakin zen serbiarrek hainbat sarraski egin zituztela. Urrian, NATOren mehatxupean, su-etena indarrean jarri zen.

1999 • Eguberrietan hasitako borroka odoltsuak geratzeko, Kontaktu Taldeak prestatutako autonomia plana negoziatzen hasi ziren Rambouilleten eta gero Parisen. Albaniarrek martxoaren 18an izenpetu zuten akordioa, baina, presioak presio, serbiarrek ez dute egin.

Kosovo NATOren erantzuna

Kosovoko herriei erasotzen segitu dute serbiarrek

Nazio Batuetako langileek alde egin dute, Gurutze Gorrikoak geratu egin dira

Agentziak / **Pristina**

NATOren erasoak oraindik hasi gabe zirelarik, Jugoslaviako Armadak jendetza albaniarreko hainbat herri bonbardatu zituen atzo. Berri hori Albaniar Informazio Zentroak eman zuen (KIC), eta ez zen beste iturri batez baieztatua izan, OSCEko begiraleak martxoaren 20tik alde eginak baitaude Kosovotik.

David Brauchli / AP

Pristinako herritarrak, ogia erosteko ilaran, atzo goizean.

KIC Albaniar Informazio Zentroak emandako datuen arabera, Jugoslaviako Armadak kanoiez eraso die Kosovoko hainbat herriri, Podujevo eta Vicitrn (iparraldea), Kacanik (hegoaldea) eta Decane (mendebaldea) inguruneetan. «Aldiz, Drenican inork ez daki zehazki zein den egoera», aitortu zuen KICeko eledunak. Kosovo erdialdean da Drenica, eta UCK-ko gerrillariek han dute gotorlekuetako bat, eta iragan aste amaieraz geroztik Belgradeko indar armatuak erasotzen hasi dira. Albaniarren aldetik jakinarazi zuten azken hiru egunotan Drenicako 30 bizilagun hil direla eta hogei bat baino gehiago zauritu.

Ibrahim Rugova Kosovoko albaniarrek aukeratu zuten presidentearen eledunak, Xhemail Mustafak, zinki eskatu zuen atzo NATOko indarrek eraso egin diezaten serbiar militarrei, bere iritzian «argi baita Belgradek ez duela inolako borondaterik konponbide politiko bat emateko Kosovoko gatazkari». Errusiako Atzerri ministro Igor Ivanovek, bere aldetik, «zuhurki jokatzeko» deia egin zien Jugoslaviako agintariei, haren ustez Kosovoko albaniarrak «suari su ematen» ariko baitira NATOren eskuhartze militar bat justifikatzearren.

CICR-koek Kosovon geratzea erabaki dute

Ipar Atlantikoko Aliantza Militarraren erasoek serbiarrengandik eragin lezaketen ihardukitzeei aurrea hartzeko gisan, giza laguntzako erakunde gehienek alde egin dute azken egunotan Kosovotik. Hala izan da behintzat Nazio Batuei lotutako erakundeen kasuan, UNHCRko eledun batek atzo Genevan azaldu zuenez. Errefuxiatuen sustengurako erakunde horretako kideek eta Munduko Elikadura Programako (PAM) eta Unicef Nazio Batuen Haurren Laguntzarako Fondoko kideek ere Kosovotik alde egin zuten herenegun.

Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeak (CICR), aldiz, herrialdean geratzea erabaki du, laguntza ekarle erakunde horren eledun batek, Suzanne Bergerrek, baietsi zuenez atzo. Bergerrek zehaztu zuenez, CICR-ko 20 lagun geratu dira Pristinan (Kosovo), 13 Belgraden eta hiru Podgorican (Montenegro), eta «nahi dugu geratu edozein beharri erantzunteko gisan», gehitu zuen CICR-ko bozeramaileak.

Pristinan bizi zen giroari dagokionez, jakin zen deiadarrak entzun zirela 13:10ean lehendabizi eta orduz geroztik beste hainbat aldiz ere. Serbiar agintarien tokiko arduradun batek azaldu zuenez, proba egiteak besterik ez ziren izan, baina deiadar horiek beldurra eragin zuten herritarren artean eta lurpeko babeslekuetara sartu ziren trumilka.

Mazedoniak ireki die berriz muga iheslariei

ASTEARTE arratsean Kosovorekiko muga ixtea erabaki ondoren, Mazedoniako agintariek berriro irekiarazi zuten atzo. Hala, Tabanovceko postuan, Kumanovo hiritik 14 kilometrora, Kosovotik ihesi joandako 800 albaniar inguruk pasatua zuten muga atzo eguerdirako. Iheslari horietatik gutiz gehienak emakumeak eta haurrak ziren, eta oso puska gutxirekin zetozen. Bi albiste kontrajarri baziren berriro muga irekitze horri buruz. Batak zioenez, Mazedoniako mugazainek agindua zuten azken egunotan borrokak gertatzen ari diren Kosovoko herrialdeetatik etortzen diren albaniarrak bakarrik sartzen uzteko. Gurutze Gorriko ituriek segurtatzen zuten, aldiz, Kosovoko edozein bizilaguni uzten ziotela Mazedonian sartzen mugazainek.

Dena den, bai Gurutze Gorriko kideek bai Europako Batasuneko begiraleek kontrolatzen zuten Kosovoren eta Mazedoaniaren arteko muga, hura igarotzeko nekeziarik ez zela ziurtatzeko. Ezen, astearte arratsean Skopjeko agintariek manua eman zuten muga ixteko eta hala geratu zen zenbait orduz.

Erabaki horren ulertzeko jakin behar da azken garaiotan Kosovotik ihes egin duten 25.000 albaniarretatik gehienak Mazedoniarat jin direla eta egoera horrek neke batzuk eragiten dizkiela Skopjeko agintariei.

Prodi Europako Batzordeko buru

Santerren agintaldia bururaino eraman ondoren, bost urterako izendatuko dute

Allande Sokarros / **Baiona**

Romano Prodi Italiako lehen ministro ohiak ordezkatuko du Jacques Santer Europako Batzordeko presidente karguan. Hala erabaki zuten atzo Berlinen bilduak diren Europako Batasuneko estatuburu eta gobernuburuek. Prodi zen aipatuena Santerren ordezkatzeko, eta berari tokatuko zaio iruzur auziek belztutako Europako Batzordearen ibileran aldaketak bultzatzea.

HERIBERT PROEPPER / AP

Romano Prodi, Europako Batzordeko presidente berria, Frankfurteko udaletxean, atzo.

EUROPAKO BATASUNEKO (EB) 15 Estatuetako agintariek ez dute denborarik galdu nahi izan eta Prodi aukeratu zutela jakiterat eman zuten atzo arratsalde hasieratik. «Erakusterat eman dugu azkar ekiteko ahala badugula» adierazi zuen Gerhard Schroederrek; izan ere, Europako Batasuneko agintariek ez zuten Europaz ezintasun eta zalantza irudirik eman nahi, NATO, bere aldetik, Jugoslaviaren aurka egiterat abiatzen den unean.

Batasuneko zenbait Gobernuk nahiago izanen zuten denbora gehiago edukitzea batzordeko buruzagiaren aukeratzeko baina Alemaniak, Erresuma Batuak eta Frantziak, presio egin dute Santerren ordezkoa Berlingo goi-bileraren lehen egunetik aukeratua izan zedin. Ezen, iragan martxoaren 16an, bere komisario guztiekin dimititzean, Santerrek egoera kolokatsuan jarri zituen EBko egiturak. Uneotan, izan ere, etorkizunerako aukera oso garrantzitsuak egin beharretan da EB, hala nola Agenda 2000 erreforma egitasmoarekin.

Berlinen hartuko dituzten erabakien gauzatzeko eta Europako Batzordearen ibileran aldaketak egiteko batzordeburu eragile bat behar zen izendatu eta Prodi antzekotzat emana da. Italiako gobernuburu izendatu zutelarik, inor gutxik sinesten zuen herri hau Euroaren esparruan sartzeko gauza izango zenik. Alabaina, Estatu italiarraren ibilera gastuak zorrozki murriztuta eta garraztasun politika bat bultzatuta, Prodik eta bere Gobernuak lortu zuten ekonomiaz adituek ezinezkotzat ematen zuten apustua.

Batzorde berria jardunean ekainatik

Prodik ez du lan eskasik izango Santerrek zuzendutako batzordearen jarraipena bermatzeko. EB-ko estatu eta gobernuburuek erakunde honetan zein ere EB beraren ibileran egin beharreko aldaketez hitzegingo dute Prodirekin, apirilaren 12a baino lehen. Bilkura horren ostean, batzordeburu berriak Estrasburgoko Parlamentuaren onespen botoa jaso beharko du. Hortarik landa, bere inguruan lan egingo duten komisarioak aukeratuko ditu EB-ko gobernuburuekin batera. Gobernuek proposatzen dioten komisario bat gustuko ez badu, atzera bota ahal izango du.

Amsterdamgo itunak zilegi egiten dion bezala, Ekaineko hauteskundeen ostetik osatuko den Europako Parlamentuak, berriz, Prodiren batzorde honi onespena eman beharko dio, Santerrenak bete behar zuen agintaldia bukatu arte, hots 1999ko abendua arte. Alabaina, bost urterako agintaldi bat onartuko diote 2000. urtarrilatik hasita.

---

soslaia

ROMANO PRODI • *Europako Batzordeko lehendakaria*

Ekonomialaria politikagintzan sartua

EUROPAKO BATZORDEKO presidente berriak, Romano Prodik, ez du erabat politikari profesional baten ibilbidea. Italiako gobernuburu aukeratu zutelarik, 1996ko maiatzean, oso eskarmentu politiko eskasa zuen, 1978 eta 1979. urtetan Industria ministro egona baitzen bakarrik Giulio Andreotti kristaudemokrataren Gobernuan.

Esperientzia labur honen ondotik, ekonomia jardueretara itzuli zen. Izan ere, ekonomia da 59 urteko gizon honen espezialitatea. Milanoko unibertsitate katolikoko eta London School of Economics eskola handiko diplomak jaso ondoren, Boloniako unibertsitatean irakasle egon zen. IRI holding publikoko agintari egon zen bi aldiz eta egitura honek kontrolatzen zituen bankuen pribatisazioa burutu egin zuen.

Politika kontuetan, zentru-ezkerrean sailkatu daiteke Emilia-Romania herrialdeko seme hau. Hortaz, ez da gehiegi harritzekoa italiar kristaudemokraziak zart egin zuelarik, inguru honetako zenbait lagun eta ezkerreko jendeak elkartzea lortu bazuen Olibondoaren Aliantzan. Batasun horrek Legebiltzarrerako hauteskundeak irabazi ostean, gobernuburu izendatu zuen Italiako Errepublikako presidenteak, 1996ko maiatzean. Gastu publikoen murrizte zorrotza eta garraztasun politika bat bultzatu zituen Italia Euroaren esparruan sartzeko baldintza lortzearren. Lortu bai lortu zuen baina bere gobernu aliantzako ezkerrekoenak oldardu zitzaizkion eta bere agintearen aurkako zentsura mozia boto bakar baten gehiengoaz onartua izan zen. Hargatik, 1996ko maiatzetik 1998ko azaroa arte agintean egonda, Romano Prodiren Gobernua Italiak azken 50 urtetan ezagututako egonkorrena izan zen.

Allande Sokarros

---

laburrean

KORSIKA

■ Bi jendarmeria tirokatu dituzte, baina ez dute biktimarik eragin

PENTA DI CASINCA eta Piedicorte do Gaggio herrietako jendarmeriak tirokatu zituzten asteazken goizaldean. Metrailadorez egindako tiroek ez zuten inor zauritu, nahiz eta batzuek militar baten etxebizitzan sartu ziren. Pentsatzekoa denez, ekintzak Korsikako Askapenerako Fronte Nazionalaren adar historikoak egin ditu (FLNC).

ERRUMANIA

■ 400.000 sindikalista protestan

BUKAREST hiriburuan ehun mila lagun atera ziren atzo kalera sindikatuek deituta, bizi-mailaren jaitsiera kezkagarria salatzeko. Beste berrogei hiritan ere manifestazioak izan ziren, eta orotara laurehun mila sindikalista elkartu ziren. Aldarrikapen nagusiak hauek dira: soldatak inflazioa adina igotzea, argindarraren, gasaren eta gasolioaren prezioa jaistea eta gizarte babesa handitzea.

KATALUNIA

■ Autogobernua nola handitu ikertuko duen batzordea sortu dute Legebiltzarrean

KATALUNIAKO Legebiltzarrak azterketa batzorde bat osatu zuen atzo herrialdearen autogobernua nola handi daitekeen aztertzeko. PPk ez beste alderdiek aldeko botoa eman zuten, baina batzordearen zeregin zehatzaren inguruan ez daude guztiz ados.

FRANTZIA

■ Mont-Blanceko tunelean izandako sutean suhiltzaile bat hil da

SUHILTZAILE bat hil zen eta bederatzi zauritu ziren atzo goizean Mont-Blanc mendiaren azpiko tunel barruan piztutako sutean, Savoiako Alpeetan. Antza denez, istripu batek eragin zuen sutea. 11,4 kilometroko tunel horren barruan atera eziniki geratu zirenak atera behar izan zituzten suhiltzaileek. Iluntzean, gutxienez sei langile zeuden atera ezinik, segurtasun eremuetan.

'Pinochet auzia' ◆ Lorden epaia

STRAWK BERRIRO AZTERTUKO DU DIKTADORE OHIA ESTRADITATZEAREN ALDE ABENDUAN HARTU ZUEN ERABAKIA

Pinochet estraditatzeko aukerak murriztu dituzte, immunitaterik ez duen arren

- Britainia Handiko Lorden Ganberak atzo kaleratu zuen Pinocheti immunitatea aitortu ala ez ondorioztatzeko epaia
- Diktadore ohia estraditatzeko krimenak murriztu egin zituen: 1988ko irailaren 29tik aurrera eginiko tortura eta konspirazioak
- Tribunaleko zazpi lordetatik sei agertu ziren Pinocheti immunitatea ematearen aurka, eta bakar bat alde

Erredakzioa / **Donostia**

ERRESUMA BATUKO Lorden Ganberako Apelazio Batzordeak atzo ondorioztatu zuen Augusto Pinochet Txileko diktadore ohiak ez duela estatuburu immunitaterik, 1988ko irailaren 29tik aurrera egin zituen krimenenetarako: tortura kasu bat, eta tortura egiteko eta Espainian hiltzeko konspirazio batzuk.

Apelazio Batzordeko zazpi lordetako seik ukatu egin zioten immunitatea Pinocheti, nahiz eta ohar batzuk egin zituzten. Bakar batek esan zuen immunitatea zegokiola diktadore ohiari.

«Pinochet senadoreak ez du immunitaterik estatuburu ohi gisa estradizioa aurreikusitako krimenetarako, eta, beraz, apelazio horietako batzuk aintzat hartuko ditut», adierazi zuen Apelazio Batzordeko lehendakari lord Nicholas Browne-Wilkinsonek epaia irakurtzean.

«Kriminalitate bikoitzaren» oinarria ekarri zuen gogora Browne-Wilkinsonek: auziarekin zerikusia duten bi herrialdeek batera aitortu behar dute krimena. Baina 1988ko irailaren 29a arte Erresuma Batuak ez zituen tortura gisa aitortzen lurralde horretatik kanpo egindakoak. «Horregatik, Pinochet ezin da estraditatu aurretik egindako torturengatik, ez baitzegoen kriminaltasun bikoitzik».

Hala ere, tortura «krimen unibertsala» dela esatean sei lord bat etorri direla azpimarratu zuen Browne-Wilkinsoek: «Tortura nazioarteko krimena da; nazioarteko legeak eta Torturari Buruzko Itunak jurisdikzio unibertsala eman die epaitegi guztiei, tortura gertatu den edozein lekutan». Beraz, «estatuburu ohi batek ezin du pentsatu bere funtzioa betetzean nazioarteko krimena egin eta nazioarteko legeak immunitatea emanez babestuko duenik».

Jack Straw Barne ministro britainiarrak Pinochet estraditatzeko bidean jarrai dezakeela esan zuen Apelazio Batzordeko presidenteak. Diktadore ohia Espainiara estraditatzea baimendu zuen Barne ministroak iazko abenduaren 9an. Baina orduan hartutako erabakia berriz aztertzeko erabaki zuen Strawk atzo, lorden epai berria ikusita. Estradizio prozesua berriro zabaltzea onartzen duen edo ez hausnartuko du orain. Garbi dago Pinochetek preso segituko duela estradizioari buruz epaitegiek eta Strawk erabaki arte.



BROWNE-WILKINSON

«Pinochetek ez du immunitaterik estatuburu ohi gisa estraditazioa aurreikusi krimenetarako»

PHILLIPS

«Estraditatzea onartua dagoen krimenei dagokienez, Pinochetek ez zuen legezko jarrerarik izan»

MILLETT

«Espainiara estradita daiteke han eta edonon, noiznahi, egin zituen krimenei erantzuteko»



HUTTON

«1988tik aurreko torturengatik ezin da estraditatu, baina immunitaterik ere ez du krimen horietan»



HOPE OF CRAIGHEAD

«Ezin estradita daitekeela uste dudan arren, immunitaterik ez du 1988tik aurrera egindako krimenetan»

SAVILLE OF NEWDIGATE

«Apelazioa onartzen dut, nire kide aditu eta leial lord Browne-Wilkinsonek esan bezala»

DAVE CAULKIN / AP

Pinocheten aurkako txiletarrak, Salvador Allenderen argazkiarekin, lorden epaia ospatzen, Wentworth hirian.



GOFF OF CHIEVELEY

«Apelazioa atzera botatzen dut, eta arrazoiak jakin nahi dituenari idatziz erakutsiko dizkiot»

Abokatuek errekurritu egingo dute

Pinocheten abokatu defendatzaileek Pinochet estraditatzeko Strawk erabakitakoa errekurritu nahi dute. Abokatuek errekurtsoa aurkezteko baimena eskatu zioten atzo bertan epaile britainiar bati, eta baimena lortzen badute, hiru epailek osatutako goi auzitegi batek aztertuko du Barne ministro britainiarrak hartu zuen erabakia.

'Pinochet auzia' ◆ Lorden epaia

Tortura nazioarteko delitua dela diote lordek, eta «jurisdikzio unibertsala» duela

Hilabete batzuk igaroko dira Pinochet estraditatuko dutenetz erabaki arte

Idurre Eskisabel / **Donostia**

Lordena «erabaki salomonikoa» izan dela esaten zuten atzo hainbat adituk, hain zuzen ere, erdibidea hautatu dutelako. «Kriminalitate bikoitzaren» araua erabiltzea eta tortura nazioarteko delitutzat hartzea dira epai horren bi ardatzak.

AP

Mundu osoan ikusmira handia sortu zuen *Pinochet auziari* buruzko epaiak. Zazpi lordek banan-banan azaldu zituzten beren argudioak.

BI irizpide nagusi erabili dituzte lordek *Pinochet auziko* epaia ematerakoan: batetik, zein krimen diren estraditagarriak, eta, bestetik, krimen horiekiko immunitatea dagokion diktadore ohiari.

Krimen bat estraditagarria izateko, «kriminalitate bikoitzaren» araua bete behar duela ebatzi dute lordek, hau da, ustezko krimena egin den herrian ez ezik, estradizioa eman behar duen herrialdean ere krimen estraditagarria izan behar duela. Ildo horretatik, tortura eta torturatzeko konspirazioari dagokionez, Pinocheti ez dagokiola immunitaterik erabaki dute lordek. Dena dela, 1988ko irailaren 29an onartu zuen Erresuma Batuak Torturaren Aurkako Nazioarteko Hitzarmena, eta beraz, lordek uste dute orduz geroztik hasten dela betetzen «kriminalitate bikoitzaren» araua, eta, ondorioz, orduz geroztik egindako krimenengatik baino ezin dela estraditatu diktadore ohia.

Data horretatik landa 2 tortura delitu eta 20 bat desagertze leporatzen dizkio Baltasar Garzon epaileak Pinocheti. Desagertzeen inguruan duda juridiko bat sortzen da: zenbait legediren arabera, torturatzat hartzen dira desagertzeak, eta hala aplikatuko balitz, asko ugarituko lirateke Pinocheten aurkako kasu estraditagarriak. Areago, zenbait adituren arabera, tortura «exekuzio iraunkorra» da. Ondorioz, gertatzen den momentutik delitu hori epaitzen den arte irauten du krimenak. Printzipio hori aplikatuko balitz, diktadura garai osoko desagertze kasuengatik estraditatu ahal izango lukete.

Nolanahi ere, epaiak badu beste atal garrantzitsu bat: tortura nazioarteko krimena dela esaten du, eta delitu hori edonon gertatzen dela ere, edozein tribunalek duela haren kontra egin beharra; hots, jurisdikzio unibertsala duela.

Lorden Ganberaren epaiak zintzilik utzi dituen harimutur guztiak pixkanaka joango dira argitzen. Adituen arabera, hilabete batzuk beharko dira auzia betiko argitzeko.

puntuz puntu

Bost hilabeteko itxaronaldia

1998

Irailak 22 • Pinochet Londresera iritsi zen, Txileko Senatuak emandako pasaporte diplomatikoarekin.

Urriak 5 • The Clinic-en ebakuntza egiten zioten, hernia diskala osatzeko.

Urriak 16 • Garzonen aginduz, Pinochet atxilotu zuten.

Urriak 22 • Margaret Thatcherrek jenerala askatzeko eskatu zuen.

Urriak 28 • Gales eta Ingalaterrako Auzitegi Gorenak estatuburu ohi gisa Pinochetek inmunitatea duela epaitu zuen. Fiskalak Lorden Ganberan apelazioa aurkeztea erabaki zuen orduan.

Azaroak 6 • Erresuma Batuari Pinocheten estradizioa eskatzea onartu zuen Espainiako Gobernuak.

Azaroak 8 • *Sunday Times* aldizkariari eginiko adierazpenetan, txiletarren adiskidetzea oztopatzea egotzi zion jeneralak Espainiari.

Azaroak 25 • Lorden Ganberak Pinocheten immunitatearen kontrako epaia eman zuen, aldeko hiru botorekin eta kontrako birekin.

Abenduak 9 • Erresuma Batuko Barne ministro Jack Strawk onespena eman zion Pinochet Espainiara estraditatzeko prozesuari.

Abenduak 11 • Pinochetek Londresko auzitegi baten aurrean deklaratu zuen lehen aldiz. Haren jurisdikzioa ukatu eta akusazioak «gezurra» direla esan zuen.

Abenduak 17 • Jeneralak immunitatea berreskuratu zuen, eta aske gelditu zen zaintzapean, Lorden Ganberako apelazio batzordearen erabakiz.

1999

Urtarrilak 18 • Lorden Ganberan bigarren bista hasi zen jeneralaren immunitateaz epaitzeko.

Otsailak 19 • Vatikanotik Pinocheten aldeko gutun bat jaso zuela azaldu zuen gobernu britainiarrak.

Martxoak 17 • Lorden Ganberak martxoaren 24rako iragarri zuen epaia.

erreakzioak

Amnesty International•

«Mugarria da»

«Estatuburuen immunitateak ez du bermatzen gizateriaren aurkako krimenik, ez torturarik. Kasu hau mugarria da, giza eskubideen aro berri baten hasiera. Funtsean, aurrerapauso bat da»

Mary Robinson• Nazio Batuetako Giza Eskubideen komisarioa

«Tortura delitu unibertsala da»

«Epaiak tortura delitu unibertsala dela baieztatzen du, sendo. Inpunitatearen aurkako borrokan urrats bat da Lorden Ganberaren erabakia».

Margarita Mariscal• Espainiako Justizia ministroa

«Estradiziorako arrazoiak murrizten ditu»

«Estradizioa onartzeko arrazoiak nabarmen murriztu ditu epaiak. Orain, prozesu konplexu bat zabalduko da eta zain egon behar dugu. Jack Straw ministro britainiarrak bere iritzia eman behar du, eta oraindik hilabetetan luza daiteke auzia»

Pierre Guidoni• Frantziako Alderdi Sozialistako idazkari nagusia

«Pozgarria da»

«Gustura gaude, Pinochet jeneralaren aurkako karguak murrizten dituen arren, estradiziorako ateak zabaltzen dituelako epaiak. Pozgarria da»

Josep Borrell• Espainiako Alderdi Sozialistako hautagaia

«Justizia egiten hasi dira»

«Biktimekin justizia egiten hasi dira. Etorkizunean Giza Eskubideek urratzen dituzten guztientzat eredugarri iango da epaia, badakite-eta inon ez direla seguru egongo»

'Pinochet auzia' ◆ Lorden epaia

Pinocheten aldekoek eta aurkakoek pozez hartu dute Lorden Ganberaren epaia

Txileko Gobernuaren ustez, adituek zorroztasunez aztertu behar dute epaia

Erredakzioa / **Donostia**

TXILEKO Gobernuak «zorroztasunez» aztertuko du «epai konplexu hori». Jorge Arrate Lehendakaritzako ministro idazkari nagusiak atzo esan zuenez, erabakia «pertsona adituek zorroztasun handiz aztertu behar dute, zer dioen zehazki jakiteko». Arratek ez zuen iritzirik eman nahi izan, baina Londrestik iritsitako informazioaren inguruan gizarteko taldeek agertutako lasaitasunaren garrantzia azpimarratu zuen.

Txileko Gobernuan koalizioan agintzen duen Demokrazia Kristauaren (DC) ustez, epaiak ez du subiranotasun nazionala errespetatzen. DCko lehendakari Enrique Kraussek irakurritako agiriak dioenez, «epaiak lege penalaren atzeraeraginik ezaren printzipio unibertsala berriz onartu badu ere, ez ditu aintzakotzat hartu Txileko Gobernuaren argudioak arau penalen ezartzearen lurraldekotasunaren, subiranotasun jurisdikzionalaren eta immunitate diplomatikoaren gaietan. Hala ere, epaiak Pinochet Txilera buelta daitekeela pentsaraz dezake».

Koalizio berean dagoen Demokraziaren Alderdiko (PPD) lehendakari Sergio Bitar senadoreak, berriz, herrialdearen subiranotasuna zalantzan ez dagoela, epaiarekin pozik dagoela eta Pinochet Txilen epaitu beharko litzatekeela esan zuen. Txileko alderdi eskuindarrak ere gustura agertu dira erabakiarekin. Alderdi Sozialistaren ustez (PS), «aurrerapauso garrantzitsua da justiziaren eta giza eskubideen defentsan».

ALBERT OLIVE / EFE

Bartzelonan erbesteratutako txiletar talde bat, pozik, lorden epaia entzun eta gero.

1988a baino lehenagoko sarraskiak epaitu ezin badira ere, biktimen senitartekoak pozik daude Londresen emandako epaiarekin. «Pinochetek Londresen atxiloturik jarraitzea garaipen bat da; gure herrialdeko sendi askotan egindako kaltea konponduko du epaiak», esan zuen Atxilotu Desagertuen Senitartekoen Elkarteko lehendakari Sola Sierrak.

Epaia jakin ondoren, Westminster jauregiaren aurrean bildutako Pinocheten aurkako milaka lagunek abesten eta dantza egiten ospatu zuten erabakia. Pinochet Fundazioaren egoitzan bildutako aldekoek ere pozik hartu zuten epaia, 1988a baino lehen egindako delituetan immunitatea lortu baitu. Hala ere, «Pinochetek duen egoeraz arduratua» dagoela adierazi du Armadak.

Gonzalo Townsend Pinochetek, berriz, bere osabak immunitate osoa merezi duela esan zuen, eta epaia ez dela behar bezain positiboa, «1988 bitarteko eskubideak bakarrik onartzen zaizkiolako».

erreakzioak

Iñaki Anasagasti • EAJ

«Ikasbide ona da Espainiako justiziarentzat»

▸EAJko Iñaki Anasagastiren ustez, erabakia «albiste ona da, demokrazia eta justiziarentzat batez ere». Eta GAL auzian auziperatuak daudenentzako ere zigorra eskatu zuen, «ministro, zuzendari edo gobernadore izan arren». «Francori berdina gertatu ez izanaz» atsekabea agertu eta «Espainiako justiziarentzat ikasbide ona dela» esan zuen.

Begoña Lasagabaster • EA

«Estatuburuen ekintzek ezin dute immunitaterik eduki»

▸Pinocheten estradizioa egiten uztea, nazioarteko zuzenbidean oso aurrekari garrantzitsua dela eta Estatuko buruen ekintzek ezin dutela inmunitaterik eduki esan zuen Begoña Lasagabasterrek. «Beste inor tentaldi berdinean eror ez dadin, aurrekari garrantzitsua da», gaineratu zuen.

Pablo Castellano • IU

«Zuzenbidearen arrazoiaren garaipena da»

▸IUko Pablo Castellanok pozik hartu du erabakia, «arrazoi politiko-partidisten aurrean, zuzenbidearen arrazoiaren garaipena baita, eta delitu batzuk muga baten barruan gelditzeko aukerak gutxitzen dituelako».

Ricardo Solari

• ALDERDI SOZIALISTAKO LEHENDAKARIORDEA •

«Egun handia da gaurkoa»

Ainhoa Gerra / **Donostia**

■ **Pinocheti immunitatea ezeztatu diote. Zein da zuen balorazioa?**

Erabakiak garrantzi handia du, gure herrialdearen egoeraz eta Pinochetez beraz harantzago. Gizartearentzat balio handia duen erabakia da eta, ikuspuntu horretatik, egun handia da gaurkoa. Bestalde, Garzonek hasitako prozedura judizialean, gure trantsizio politikoan zintzilik zegoen giza eskubideen gaian justizia egiten ari da. Prozesuak aurrera jarraitzen du. Estradizioa egin daitekeen epea mugatu egin da. Baina atxilotu eta desagertuen kasua, delitu jarraitutzat jotzen dugu; beraz, Txilek torturaren aurkako batzordea onartu zuenetik indarrean dago.

Txilen bizitzak normal jarraitu du; Pinocheten atxiloketak ez du erakundeen funtzionamendua eraldatu. Aurten lehendakaritzarako hauteskundeak izango ditugu, eta lehendakaritza lortzea espero dugu sozialistok. Giza eskubideen kausa indartu egiten du erabakiak eta horrek poztu egiten gaitu.

■ **Zein prozesu jarraituko da hemendik aurrera?**

Biktimen senitartekoek esan digutenez, aurrekariak aurkeztuko dituzte berriz auzitegian. Ministroaren erabakia falta da, baina gure ustez extradizio prozesuak aurrera jarrai dezala esango du.

Roberto Leon

• DEMOKRAZIA KRISTAUAREN ALDERDIKO PRESIDENTEORDEA •

«Lordek mezu bat igorri diote Strawri»

A. Ormaetxea / **Donostia**

■ **Britainia Handiko Lorden Ganberaren epaiari buruz zer iritzi duzue?**

Bi ikuspuntutatik hartu dugu epaia. Batetik, Txileko Gobernuak subiranotasunaren oinarria aurkeztu zuen, eta hori ez dute aintzat hartu lordek; baina bai penal legearen atzeraeraginkortasunaren oinarria. Bestetik, Baltasar Garzon epailearekin batera estradizioa bultzatzen ari direnentzat epaia ez da ona, estradizioa arrazoitzeko erabilitako kasuetariko asko indargabetu egin direlako. Hemendik aurrera Jack Strawk du garrantzia. Lordek mezu bat igorri diote Barne ministroari: estradizioa onartzeko baliatu zen arrazoiak berriro aztertzeko. Eskenategi berria antolatu beharko du Strawk.

■ **Lorden bigarren epaiak Augusto Pinochet Espainiara estraditatzeko aukerak urritzen dituela uste duzu?**

Zalantzarik gabe Pinochet estraditatzeko aukerak hurrundu ditu.

■ **Eduardo Frei presidentea ministroekin bildu da, Gobernuak aurrerantzean egin beharreko urratsak koordinatzeko. Zein pauso egingo dira?**

Presidenteak orain gutxi eskatu digu epaiari buruz zuzenbide alorreko txosten bat lantzeko, Gobernuak zer egin dezakeen ikusteko. Baina oraingoz ez da txostena argitu.

Paraguaiko Behe Ganberak presidentea auzipetzeko eskatuko dio Senatuari

Diputatuek mozio bat onartu dute Cubas zereginak ez betetzeagatik epaitzeko

Agentziak / **Asuncion**

Raul Cubas presidenteari epaiketa politikoa egitearen alde azaldu da Paraguaiko Diputatuen Ganbera, lehendakariak dagozkion zereginak eta beste karguak behar bezala ez dituela egiten arrazoituta. Orain, Behe Ganberak Cubas auzipetzeko eskatuko dio Goi Ganberari, Senatuari. Paraguaik egoera zaila du, batik bat jantzi militarrekiko hiru pertsonek herenegun lehendakariordea tiroz hil eta gero. Oposizioko alderdien jarraitzaileak kalera irten dira hilketaren errua presidenteari leporatzeko, eta istiluak gertatu dira polizien eta manifestarien artean.

DIPUTATUEN GANBERAK bi aste barru egin behar zuen bozketa Raul Cubas Paraguaiko presidenteari epaiketa politikoa egin edo ez erabakitzeko, baina legebiltzarkideek aurreratu egin zuten bozketa, Paraguaik duen egoera larria ikusita.

73 legebiltzarkide zeuden bozketa egin zen unean: haietatik 49k epaiketa politikoaren alde egin zuten, eta 24k aurka.

Orain Goi Ganberak du azken hitza. Diputatuen Ganberak Cubas auzipetzeko eskatuko dio Senatuari, dagozkion zereginak eta bestelako karguak behar bezala ez dituelako egiten. Diputatuen herenek eman behar zuten baietza mozioa Senatura eramateko, eta hor 45 senadoreetako 30ek onartu beharko dute Cubas auzipetu ahal izateko.

Oposizioko alderdi nagusiko buruak, Alderdi Liberal Erradikal Benetako buruzagi Blas Llanok, esan zuen Senatuak egin behar duela gainontzeko lana: «Jainkoak nahiko ahal du Raul Cubas lehendakari kargutik kentzea eta baketze nazionaleko prozesua abiaraztea».

Oposizioko bigarren alderdia, Topaketa Nazionaleko Alderdia, berriz, ziur dago Goi Ganberak lehendakari kargutik kenduko duela Cubas.



LORENZO BARRIOS / AP

Manifestari batzuk korrika, poliziengandik ihesi, Asuncionen izandako istiluetan.

Diputatuen Ganberak bozketa egin zuenean, eraikineko atarian istilua gertatu zen manifestari batzuen eta Conrado Pappalardo diputatuaren artean. Colorado Alderdiko diputatu eta Lino Cesar Oviedo jeneral kolpista ohiaren aldekoa da Pappalardo, eta, eraikinera sartu aurretik, manifestariek atzetik segitu zioten eta kolpatu egin zuten.

Istiluak Poliziaren eta manifestarien artean

Istilu gehiago ere gertatu zen Asuncion hiriburuan. Oposizioko jarraitzaileak kalera irten ziren Luis Maria Argaña lehendakariordearen hilketa salatzeko. Argaña tiroz hil zuten herenegun jantzi militarrekiko hiru pertsonak, eta bai oposizioak bai Colorado Alderdiko Coloradoren Adiskidetze Mugimenduak Cubasi leporatu zioten hilketa.

Poliziak eta manifestariak elkarren aurka aritu ziren kaleetan. Polizia manifestariei oldartu zitzaien, eta gas negarreragileak eta ur txorroak jaurti. Zauritu ugari izan zen liskarretan. Langile eta nekazari sindikatuek, bestalde, mugagabeko greba hasi dute, demokrazia berriro ezartzeko exijitzeko.

Giroa asko baretu da Indonesiako Borneo uhartean

■ *Heldu dira jada Gobernuak bidalitako errefortzuko tropak*

Agentziak / **Jakarta**

INDONESIAKO Gobernuak bidalitako errefortzu militarrak iristearekin batera, aurreko eguneko gatazka egoera baretu egin zen atzo Borneo uhartean, Mendebaldeko Kalimatanen, Madura inguruan. Komandantzia militarrak emandako datuen arabera, inguru horretako jatorrizko biztanleek azken orduetan ez dute erasorik egin etorkinen aurka. Hala ere, denda eta bulego publiko gehienak itxita zeuden atzo ere.

Joan den asteko astearteen piztu ziren bertakoen eta etorkinen arteko borrokak, autobus txartel baten inguruko eztabaida baten ondotik, malay eta dalay etnietako jendea Madura uhartetik joandako kolonoei erasotzen hasi baitzen. Liskar horien ondorioz, 165 pertsona hil dira eta 13.000 lagunek alde egin dute etxetik, beldurtuta. Pertsona horiek eraikin publikoetan, kirol zelaietan eta kuarteletan aterpetu dituzte. Halaber, 12.000 lagun —Maduratik heldutako etorkinak guztiak— Singkawang herrian daude gordeta, Armadak handik noiz aterako zain.

Maduratik iritsitako kolonoak Mendebaldeko Kalimatango biztanleen % 2 dira, eta Suharto lehendakari ohiak bultzatutako barne migrazioaren ondorioz heldu ziren hara. Orain arte ez da arazo handirik izan.

laburrean

AFRIKA

■ Mendebaldeko Afrikako Atzerri ministroak arma politika ari dira eztabaidatzen

ARMEN ugaritzea da Mendebaldeko Afrikako Estatuen Komunitate Ekonomikoa (MAEKE) egiten ari den batzarraren ardatza. Hain zuzen ere, elkarte horretako Atzerri ministroak Barmakon daude bilduta, Maliko hiriburuan. Afrikako eskualde horretako herriak kezkatuta daude armen ugaritzeaz eta horrek sortzen dituen arriskuez.

TXINA

■ Arrisku handia sortzen dute dikeek

ADITU talde batek egindako azterketaren arabera, Txinako ibai eta aintziretako dikeen herenak gaizki daude, eta, ondorioz, dike horiek dauden inguruetako biztanleak arriskuan bizi dira. Gutxi gorabehera, 85.000 dike daude herrialde osoan, eta, Ur Baliabideetarako Ministerioaren arabera, 33.000 daude zahartuta edo gaizki eraikita. Iazko uholdeetan milaka dike hondatu ziren.



SAYID AZIM / AP

Kenyan 32 lagun hil dira, tren bat bidetik atera ondoren.

Istripu larria izan zuen atzo Nairobi hiriburutik Mombasarako bidaia egiten duen trenak, eta, ezbeharraren ondorioz, 32 pertsona hil ziren eta beste asko zauritu. Hildakoetako bost turista atzerritarrak dira. Trenean 645 bidaiari zihoazen, 300-entzako tokia bakarrik zuen arren, eta burdinbidetik atera zen.

• Futbola

Reala: Mikel Aranburu taldearekin izango da apirilean, ez baitiote Espainiako selekziotik deitu Mundialerako → 35

• Krosa

Elkarrizketa: Cristina Petite: «Handia litzateke Belfasteko Mundialean zazpi lehenen artean sartzea → 36

Athletic ◆ «Aldagela egoera onean» dagoela azpimarratu du azken zurrumurruei erantzunez

Fernandezen aitorpena

«Espanyolen aurka txarto jokatu genuela onartzen dut», dio entrenatzaileak

Asier Iturriagaetxebarria / **Bilbo**

ESPANYOLEN aurka berdinketa lortu zuen Athleticek azken minutuan Urzaizek sartutako gol bikainari esker. Puntu bat eskuratu zuen, baina talde zuri-gorriak ez zuen joko onik erakutsi, azken jardunaldietan egin duen legez. Eta Luis Fernandezek onartu egin du taldea gaizki jokatzen ari dela azkenengo jardunaldietan. «Espanyolen aurka ez genuela ondo jokatu onartzen dut», adierazi zuen Fernandezek asteko lehen entrenamendua amaitu ostean.

Athletic txarto jokatzen ari bada ere, Salamancaren aurka garaipena lortu zuen eta Montjuicen berdinketa. Fernandezek argudio hori erabili zuen. «Denboraldiaren hasieran ondo jokatzen genuen baina ez genuen garaipenik lortzen. Orain, ostera, hain ondo jokatzen ez badugu ere puntuak eskuratzen ditugu. Nahiago dut txarto jokatu eta partiduak irabazi, ondo jokatu eta batere punturik gabe gelditzea baino».

Era berean, azken hamaika jardunaldietan antzerako Athletic bat aurkituko dugula aurreratu zuen Fernandezek. «Liga bukatzeko gutxi falta da, eta talde guztiek dute zerbait jokoan. Niri atzetik baloia jokatuta ateratzea gustatuko litzaidake, baina aurrean beti izaten da aurkari bat». Horretaz gain, freskotasun faltari ere egotzi zion azken jardunaldietako joko eskasa.



MIKEL MARTINEZ

Luis Fernandez, Lezaman, prentsaurrekoan.

LUIS FERNANDEZ

«Nahiago dut gaizki jokatu eta partiduak irabazi, ondo jokatu eta batere punturik gabe gelditzea baino»

Aldagelako kontuak

Espanyolen aurkako norgehiagokan Carlos Garcia eta Aitor Larrazabal aldatu zituen Fernandezek atsedenaldiaren ostean. Dirudienez, Tamudoren golean huts egitea egotzi zion entrenatzaileak Loiukoari atsedenaldian, eta Carlos Garciak taldekidea defenditu zuen. Azkenean, ez bata ez bestea ez zen zelaira itzuli. Luis Fernandezek ez du arazorik nahi, eta beti defendatuko duela aldagela azpimarratu zuen. «Ni Athleticeko entrenatzaile naizen bitartean taldeak ez duela ondo jokatu esan hal izango da, edo beste jokalari horrek jokatu beharko lukeela. Baina, ni entrenatzaile naizen biatartean azken erabakia nik hartuko dut beti».

Halaber, izan den talde guztietan, jokalari zein entrenatzaile gisa, «kolektiboa garrantzitsuena» izan dela aipatu zuen. «Nik talde batu bat lortzeko lan egin dut beti, eta emaitzek arrazioa eman didate. Horrelakoa naiz, eta ez naiz aldatuko».

Asteburu honetan ez da Liga jardunaldirik izango, eta, jakina denez, apirilaren 4an jokatuko du Athleticek bere hurrengo partidua Realaren aurka. Azken egunetan kirol egunkari bati derbiaren inguruko adieazpenak egin badizkio ere , atzo ez zuen horrelakorik egin nahi izan Fernandezek.

Horretaz gain, Ismael Urzaiz eta Joseba Etxeberria ez ziren Lezaman izan atzo, Espainiako selekzioan daudelako. Ferreira, bestalde, taldearekin entrenatu zen.

Athletic-Reala, «arrisku handiko partidua»

Apirilaren 4an, Aberri Egunean, jokatuko den Athletic-Reala derbia «arrisku handiko norgehiagoka» dela esan du Espainiako Biolentziaren Aurkako Batzordeak.

Lacruzek nahiago du txarto jokatu eta irabazi

Mari Lacruzek bere entrenatzailearen iritzi bera du, eta atzo adierazi zuenez garrantzitsuena irabaztea da. «Nahiago dut bolada honi eutsi. Nahiago dut ez hain ongi jokatu eta goian izan, ondo jokatu eta igandero puntuak ez lortzea baino», adierazi zuen Bilboko irrati batean.

Clementek dio ez dela trukagarria Luis Fernandezekin

Zurrumurruek diotenez Betiseko Manuel Ruiz de Loperak Luis Fernandez fitxatu nahi du hurrengo denboraldirako. Betiseko egungo entrenatzaileak, Javier Clementek, ez direla trukagarriak aipatu zuen atzo. «Baina argi dago bakoitza bere lurraldean izango litzatekeela, bera andaluziarra delako eta ni euskal herritarra».

Oskar Vales Lezaman

Celtako jokalari Oskar Vales Lezaman izan zen atzo aspaldiko lagunak bisitatzeko. Fernandezek aipatu duenez, Basauriko atzelaria Athleticera itzuliko da ziurrenik.

Reala ◆ Aranbururi azkenean ez diote deitu

Ez doa Espainiako selekziora

Bera da Realean azken sei partiduetan titular jokatu duen bakarretako bat

Enekoitz Esnaola / **Donostia**

MIKEL ARANBURU jokalari gazteak Realarekin segituko du apirilean ere, ez baita joango Nigeriara 20 urtez azpikoen Munduko Txapelketa jokatzera Espainiako selekzioarekin, ez baitiote deitu. Atzo eman zuen deialdia Iñaki Saez hautatzaileak, eta Aranburu azpeitiarra ez zen ageri hemezortzi jokalariko zerrendan.

Azken unea arte guztiak ere dudan egon dira. Jokalariak berak ez zekien deituko zioten ala ez, nahiz eta lehengo astean ez parte hartu Espainiako selekzioko entrenamenduetan eta ez jaso jokalariek Nigeriara joateko beharrezkoa zuten txertoa —gaixorik zegoen egun haietan Aranburu—. Baina gaur egun 20 urtez azpiko mutil gutxi daude Espainiako Ligako talderen batean titular —zerrendatik Alavesekо Gerard baino ez da ohiko titularra, eta Barcelonako Xavik ere dezentetan jokatzen du—, eta horregatik zeuden Aranburu bera eta Reala dudan, azpeitiarra titularra delako orain Realean. Jokalariari eta klubari ez zitzaien askorik interesatzen mundialera joatea, mutila lau bat partidutan egongo zitekeelako lehen talde txuriurdinarekin jokatzeke.

Alberto, Pikabea, Arazanbal eta Aranburu

Hain zuzen, Aranburu da Realean Ligako azkeneko sei partiduetan titular jokatu duen bakarretakoa. Alberto, *Kote* Pikabea, Agustin Aranzabal eta laurak dira azkeneko sei neurketetan hasieratik zelairatu diren bakarrak. Eta horrek zerbait esan nahi du. Alegia, Bernd Krauss entrenatzaileak konfiantza handia duela mutil gazte azpeitiarrarengan. Kraussek hasiera batean Aranburu lehen taldean «pixkanaka» sartzen joateko asmoa zeukan, baina jokalariak ausart jokatu du, jokoa sortu du, gol garrantzizko bat ere egin du —Atletico de Madriden kontra—, eta entrenatzaileak kontraesanean erori behar izan du, ezinbestean. Ez du, ordea, inork kritikatu horregatik.

Aranbururi orain dela hilabete pasatxo ere deitu zioten Espainiako selekziora, baina giharretako arazoekin zegoen orduan eta ez zen joan.

Orain, jakinda ez dela Nigeriako Mundialera joango, oso partidu erakargarri bat jokatu ahal izango du: apirilaren 4an, Athletic-Reala derbia.

Aitzitik, Jose Javier Barkero, Reala B-ko erdilari aretxabaletarra joango da 20 urtez azpikoen mundialera. Bera da Realetik joango den bakarra.

EL MUNDO DEPORTIVO

Mikel Aranburu, Zubietan entrenatzen.

Aranburu 98-99ko Ligan

Partiduak	Minutuak
20. Mallorca-Reala	90
21. Reala-At. Madrid	80
22. Deportivo-Reala	60
23. Reala-Villarreal	90
24. Valladolid-Reala	45
25. Reala-Barcelona	90

Futbola ◆ Kosovoko gatazka dago horren atzean, eta Mazedonia-Hego Irlanda ere atzeratu du

UEFAk atzeratu egin du Jugoslavia-Kroazia

Agentziak / **Geneva**

UEFAk atzeratu egin du etzi jokatzekoa zen Jugoslavia-Kroazia partidua. Kosovoko gatazka dela eta, NATOk Jugoslaviako zenbait toki bombardatzeko agindua eman du, haien artean Belgrado —han zen jokatzekoa partidua—, eta horregatik hartu du UEFAk erabaki hori. Abuztuaren 18an jokatuko da Jugoslavia-Kroazia, 2000ko Eurokoparako sailkapen faseko partidua. Hilhonen 31n jokatzekoa zen Jugoslavia-Mazedonia ere atzeratu egin du, irailaren 4a arte. Baita Mazedonia-Hego Irlanda ere; neurketa Skopje hirian jokatu behar zen, larunbatean, eta hego irlandarrek segurtasun neurriak galdegin zituzten, hainbat iheslari Skopjeko hotel batean daudelako eta hego irlandarrek hotel horretan kontzentratzeko asmoa zutelako. Mazedoniak jada hogei mila iheslari hartu ditu.

Jugoslaviako egoera dela eta, hango Futbol Federazioko presidente Branko Bulatovicek «lasai» egoteko eskatu die jokalari jugoslaviarrak dituzten klubei, besteak beste, Realari, Darko Kovacevicek bertan jokatzen baitu. «Jokalari asko Budapestera abiatu dira, errepidez, eta, beranduenez, bihar [gaur] bakoitza bere taldearekin egongo da», zioen atzo Bulatovicek. Kovacevic Budapestera joan zirenetako bat da, gero hegazkinez Madrilera joateko eta handik Donostiara etortzeko.

ARTXIBOKOA

Kovacevic, Realeko jugoslaviarra.

hor zain

Sei euskal jokalari 20 urtez azpikoen mundialera

Iñaki Saez Espainiako selekzioko hautatzaileak sei euskal jokalariri deitu die 20 urtez azpikoen Munduko Txapelketa jokatzeko: Athleticeko Daniel Aranzubia atezaina eta Francisco Javier Yeste erdilaria, Osasunako Francisco Jusue atzelaria eta Pablo Orbaiz erdilaria, Realeko Jose Javier Barkero erdilaria eta Real Madrideko Iker Casillas atezaina. Mundiala Nigerian jokatuko da, apirilaren 3tik 24ra.

Amerikako Kopa jokatuko duela dio Ronaldok

Ronaldok ez du partidurik jokatu Brasilekin Frantziako Mundialaz geroztik, maiz min hartuta egon delako, baina esan du udan «dudarik gabe» bere selekzioarekin izango dela Amerikako Kopa jokatzeko.

Collymorek ez du denboraldian gehiago jokatu, «depresioagatik»

Stan Collymore, Aston Villako aurrelaria, «depresioak jota» dago otsailetik, eta, hori dela-eta ez du denboraldi honetan gehiago jokatu, atzo John Gregory entrenatzaileak esan zuenez. Aurrelari ingeles onenetakoa da Collymore.

Denilsonen truke De la Peña nahi ei du Loperak

Atzo Italiako egunkari batek zioenez, Betiseko buruzagiak, Manuel Ruiz de Loperak, Denilson Betisetik Laziora bidali nahi du, haren trukean Laziotik Ivan De la Peña fitxatzeko. Betisek bost mila milioi inguru ordaindu zituen Denilsongatik, eta Laziok horren erdia De la Peñagatik.

Errekopako finala Birminghamen jokatuko dela berretsi dute

Chelsea Errekopako finalerdietan da, eta finala Wembley estadioan jokatzea gustatuko litzaiokeela esan du, baina UEFAk esan dio ezetz, finala Birminghamen jokatuko dela, aurretik erabakita dagoen bezala.

Alaves

Liga hasiera aldatzearen aurka dago Karmona

Mundialerako deialdi ofizialean sartu dute Gerard

Ivan Santamaria / **Gasteiz**

ALAVESEK aste lasaia bizi du. Entrenamenduetan igandeko garaipen garrantzitsuaren eragina islatzen ari da, eta jokalariak hiru eguneko oporraldiaren zain dira dagoeneko.

Alta, beste kontu batek aztoratu du giroa. Izan ere, asteartean Gonzalo Antonek Liga hasiera aurreratzeko asmoa kritikatu zuen, eta atzo Antonio Karmonaren txanda izan zen. «Abuztuaren 15a ez da futbolean aritzeko garairik onena, jendea oporretan baita», azaldu zuen Karmonak. Horrez gain, aurrerapenak kirol arloan ere eragina izan dezakeela uste du atzelariak: «Entrenamenduak sei aste arinago hasi beharko genituzke, uztailaren hasieran. Jokalariok ez genuke atsedena hartzeko beharrezkoa den denbora izango, eta horrek eragina izan dezake luzera begira». Antzeko erabakiak hartzeko unean jokalarien iritzia ez dela kontuan hartzen salatu zuen Karmonak. «Talde handien interesen aldeko neurria izango da, eta jokalariok, beti bezala, erabaki horietan zeresanik ez dugula ematen du».

Gerard deitu dute Mundialerako

Bestalde, Iñaki Saez hautatzaileak atzo kaleratu zuen Nigeriako 20 urtez azpikoentzako Mundialera joango diren jokalarien zerrenda ofiziala. Ez zen ezusterik izan, eta azkenean Gerard erdilaria Mundialera joango da. Beraz, Gerardek martxoaren 30ean Madrilen izan beharko du, selekzioko taldekideekin batera Nigeriara abiatzeko. Mundialak martxoaren 31tik apirilaren 25era iraungo du, eta, Espainia finalerako sailkatuko balitz, Ligako lau norgehiagoka jokatu barik gelditukо litzateke Bartzelonako jokalaria.

Cristina Petite

• ATLETA •

■■■ Belfasteko kros laburreko Munduko Txapelketan parte hartuko du Cristina Petitek hurrengo asteburuan, Ipar Irlandan. ■■■ Sasoi bikainean dago bizkaitarra, Japoniako Mundu Txapelketan erakutsi zuen legez: Espainiako errekorra ontzeko zorian izan zen 3.000 metroetan. ■■■ Udarari begira, ez du helburu zehatzik finkatu nahi, baina inoiz baino amorru handiagoz ari da entrenatzen.

«Gauza handia litzateke Belfasten lehenengo zazpien artean sartzea»



MONIKA DEL VALLE

CRISTINA PETITE abadiñarra denboraldi bikaina ari da egiten. Horren eredu da Japoniako Munduko txapelketan egin zuen lana: Espainiako errekorretik 11 ehunenekotara gelditu zen 3.000 metroetako lasterketaren finalean. Asteburu honetan lan bera egin nahi izango du Kros laburreko Munduko Txapelketan.

■ **Japoniako pista estaliko Munduko Txapelketan lan bikaina egin zenuen. Kros laburreko Munduko Txapelketan Japonian egin zenuen lana errepikatzea espero duzu?**

Egia esanda, Japonian ondoegi joan zen dena. Espainiako 3.000 metroetako errekorra apurtu nuen ia, 11 ehunenekotara gelditu nintzen 8 minutu 52 segundo eta 55 ehuneneko markarekin. Hala ere, kontuan izan behar da pista eta krosa ez direla gauza bera. Pistan marka da garrantzitsuena eta krosean, aldiz, postua.

■ **Eta zein posturekin gelditukо zinateke gustura?**

Kirolean ez dago gustura edo pozik gelditzeko astirik. Kirolari batek goranahia izan behar du zerbait izan nahi badu, hori baita daukan gauza garrantzitsuena. Baina, hala ere, Belfasten hogei lehenen artean sartzen banaiz nire lana beteko dudala uste dut; eta lehenengo zazpien artean sartzea gauza handia litzateke.

■ **Zein izango dira zure aurkari nagusiak Belfasten?**

Batez ere Etiopiako eta Kenyako atletak izango dira, baina emakumezkoetan ez dute gizonezkoetan duten besteko nagusitasunik. Kontuan izan behar da egungo munduko txapelduna Sonia O'Sullivan irlandarra dela, atleta zuria. Horretaz gain, aurten O'Sullivan ez da ariko, haurdun dagoelako. Beraz, ez dago txapelketa irabazteko faborito garbirik.

Krosa ala pista?

«Krosean gehiago gozatzen dut, korrika presiorik gabe egiten dudalako. Baina pistako denboraldia ere oso gustukoa dut: udan gozamena da eguzkipean entrenatzea»

■ **Munduko Kros Txapelketa Ipar Irlandan jokatuko da, leku hezean. Zer nolako zirkuitua espero duzu?**

Ez dakit nola egongo den, baina ez dut uste lokaztuta izango denik. Esan didatenez, zirkuitua golf zelai batean dago, eta, beraz, oso zaila izango da lokaztuta egotea. Nik zirkuitu lokaztuak atsegin ditut, Euskal Herrian makina bat aldiz lasterka egin behar izan dudalako horrelako egoeran, baina badirudi Belfasteko zirkuitua ez dela txarto izango.

■ **Non ibiltzen zara gusturago, pistan ala krosean?**

Krosean gehiago gozatzen dut, presiorik gabe korrika egiten dudalako. Baina udako pista denboraldian ere oso gustura ibiltzen naiz, bere alde ona duelako: ez du euririk egiten, eta gozamena da eguzkipean entrenatzea.

■ **Denboraldi bikaina egiten ari zara. Zein da horren arrazoia?**

Beharbada aurten inoiz baino amorru gehiagorekin ari naizela entrenatzen. Iaz ezin izan nuen Budapestera joan, zuntz haustura izan nuelako, eta horrek haserrarazi egin ninduen. Bestalde, aurten beranduago hasi naiz entrenatzen. Azaroan hasi nintzen egunero eta serio entrenatzen, batez ere Sevillako Espainiako Txapelketari begira.

■ **Pentsatzen dut pistako denboraldia izango dela zuretzat garrantzitsuena...**

Bai, baina nire burua presionatu gabe. Hor egoten saiatuko naiz, zain, eta zerbait lortzen badut, bada, hobeto. Bestalde, nire helburua egunero entrenatzea da, eta ez min hartzea. Iaz Espainiako Txapelketako finala eserita ikusi behar izan nuen, eta hori oso gogorra da. Aurten Sevillan 5.000 metroetako finalean izatea espero dut.

■ **Eta Sevillako Munduko Txapelketa?**

Ez da nire helburuetan sartzen hori. Lehendabizi sailkatu beharra dago, eta hortik aurrera zerbait badator, hobeto.

Asier Iturriagaetxebarria
ABADIÑO

Atletismoa ◆ Azkoitia-Azpeitia maratoi erdia korrituko da igandean

Gomezek Fizen errekorra nahi du

Goi mailako korrikalariak izango ditu probak

Erredakzioa / **Donostia**

AZKOITIA-AZPEITIA maratoi erdiak gai mailako parte hartzaileak izango ditu , iaz bezala. Antolatzaileek maratoian puntan aritzen diren hamar bat korrikalari jarriko dituzte lehian gizonezkoetan: Alejandro Gomez, Diego Garcia, Alberto Juzdado, Antonio Silio, Hicham Chatt eta Mohamed Erraui marokoarrak, Fekadu Bekele etiopiarra, Peter Kipkoech keniarra, Asier Zarraga,... Eta hauekin batera, Asier Cuevas, Vicente Capitan eta Teodoro Cuñado izango dira besteak beste. Maila bikaina. Emakumezkoetan ere, korrikalari bikainak izango dira Azkoitiako irteeran. Rocio Rios Espainiako errekorraren jabea bertan izango da, Ana Mari Pardo eta amaia Insaustirekin batera. Proba goizeko 10:45etan hasiko da, eta ibilbideak ohikoa izango da.



ARTXIBOKOA

Alberto Juzdado eta Diego Garcia onenen artean izango dira gaur.

Gomezek Fizen errekorra ondu nahi du

Alejandro Gomez galiziarrak iazko esperientzia txarra ahaztu nahi du, eta horretarako Martin Fizek duen Espainiako maratoi erdiko errekorra ondu nahi du. Gomezek iaz garaipena eskura izan zuen, baina azken metroetan pankartaz erratu eta Abel Antonek aurrea hartu zion.

Antolatzaileek 1000 parte hartzailetik gora nahi zituzten, baina ez da posible izan. Azken datuen arabera, 800 inguru izango dira Azkoitiako irteeran.

Keniarrak faborito Gallartako lasterketan

Igande honetan Zierbenan korrituko den Gallartako lasterketan hiru keniar dira garaipena eskuratzeko faborito nagusiak: Weslwy Cherem, Gideon Talam eta John Miaka. Probak 10 kilometro luzera izango du.

Saskibaloia ◆ Korac Kopako finaletako joanekoa jokatu zen atzo

Estudiantesek eskura du

Estudiantes	Barcelona
93	77

Estudiantes.- Azofra (13), Jimenez (9), Barcenas (4), Reyes (16), Vandiver (17), —hasierako bostekoa—, Martinez (6), Robles (11), De Miguel (12), F. Reyes (4), Braña (1).

Barcelona.- Djordjevic (20), Esteller (15), Alston (16), Gurovic (8), Rentzias (8) —hasierako bostekoa—, Rodriguez (3), Dueñas, Junyent, Fernandez (7).

ATSEDENEAN: 39-42.

Gorka Zabaleta / **Donostia**

ESTUDIANTES taldeak erabakigarria izan daiteken abantaila lortu zuen atzo Barcelonaren aurka jokatutako Korac Kopako finaleko lehen partiduan. Madrildarrek bigarren zatian egindako defentsa bikainean oinarritu zuten garaipena, eta orain Barcelonak 16 puntuko desabantaila gainditu beharko du Palaun.Partidu hasiera oso orekatua izan zen. Estudiantesek erasoan lortutako erreboteei esker eutsi zion Barcelonari, eta madrildarrek izan ziren markagailuan abantaila lortu zuten lehenak (21-13). Barcelonak, ordea, ez zuen etsi eta atsedenaldian kataluniarrak ziren aurretik (39-42). Bigarren zatiaren hasieran apurtu zuen partidua Estudiantesek. Defentsa bikainari esker Barcelona ez zuen erasoan asmatzen, eta madrildarrak 18 puntuko abantaila izatera iritsi ziren. Azken minutuetan gizon garrantzitsuak galdu zituen Estudiantesek, baina ongi eutsi zion aldeari.

laburrean

JOAU ABREU MIRANDA / EPA

Collin McRaek irabazi du Portugalgo Rallya.
Ford etxeko Collin McRae gidari eskoziarrak irabazi du Portugalgo Rallya, Carlos Sainz espainiarraren aurretik. Sainzek 12 segundora amaitu zuen, eta ezin izan zuen lehen postua eskuratu. Hirugarren Didier Auriol frantziarra izan zen, 16 segundora. Tommi Makinen finlandiarrak lider jarraitzen du Mundialean, McRae eta Auriolen aurretik.

E R R U G B I A

■ Irazu berriro aritu zen V Nazioetako Torneoan
DANIELE IRAZU hendaiarrak Frantziarrekin jokatu zuen emakumezkoen V Nazioetako Torneoaren laugarren jardunaldian. Ingalaterraren kontra aritu zen, eta ingelesak gailendu ziren 8-13, entsegu bana eginda. Ingalaterrak fisiko eta teknika hobea erakutsi zuten. Bestalde, martxoaren 28tik apirilaren 3a bitarte gizonezkoen junior mailako Munduko Txapelketa jokatuko da Galesen. Frantziak jakitera eman du deialdiaren zerrenda, eta hiru euskaldun daude: Henri Vermis (Baiona), Beñat Arraiet (Maule) eta Ismael Harinordoki (Garazi).

E S K U B A L O I A

■ Barcelonak eta Ciudad Realek gaur jokatuko dute finalerdietako lehen partidua
BARCELONAK eta Ciudad Realek gaur ekingo diote elkarren arteko finalerdiari. Lehen partidua Palau Blaugranak jokatuko da, arratsaldeko 8:30etatik aurrera (Sportmania). Kataluniarrak dira berriro Liga irabazteko faborito nagusiak, eta Ciudad Realek badaki ez duela Barcelona kanpoan uzteko aukera handirik.

T X I R R I N D U L A R I T Z A

■ Atzo aurkeztu zen Eibarren igandean korrituko den Balentziaga Oroitzarrea
ATZO arratsaldeko 8:00etan aurkeztu zuten Eibarren igande honetan korrituko den afizionatu mailako Balentziaga Oroitzarrea lasterketa garrantzitsua.

Pilota ◆ Jose Javier Tabernaren iritziz, «nahikoa pilota badago Labrit frontoirako»

Jokatzekoak bai, baina...

Nagorek «pilota gehiago» nahi zuen Tabernaren kontra aritzeko

Enekoitz Telleria / **Donostia**

NAFARROAKO Pilota Federazioak emandako baimenaren ostean, Altiko eta Asegarceko bi pilotari nafar bildu ziren atzo Iruñean, Labriten, Euskal Herriko Buruz Buruko Txapelketan aritzeko pilotak aukeratzeko: Jorge Nagore eta Jose Javier Taberna.

Fernando Tapia azkoitiarrak otarrean jarritako piloten artean, 104,2 eta 104,1 gramoko bi pilota aukeratu zituen Jorge Nagorek, eta 105,3 eta 104,4 gramoko beste bi Jose Javier Tabernak. Gustura gelditu zen egindako aukerarekin atzelari lesakarra, ez, ordea Jorge Nagore. Aukeran jarritakoen artean zegoena baino «pilota gehiago» nahi zuela esan zuen Irurtzungo aurrelariak. Kandido Elizalde botileroak berretsi egin zuen bere pilotariak esandakoa: «Oso gustuko pilotak ez zaizkigu egokitu, baina nik uste jokatzeko pilotak direla. Pilota gehixeago nahi genuen, baina ez zegoen eta ez dago ezer egiterik».

Jose Javier Tabernari «normala» iruditu zitzaion Jorge Nagorek pilota gehiago eskatzea. «Jorgeren sakea aprobetxatu nahi dute. Nire ustez, hala ere, pilota nahikoa badago frontoi honetarako. Pilota zakarrak dira, gainera, eta nahiz eta asko irten ez, engainatu egiten dute. Pilotak azpitik anitz ibiltzen dira eta kostako zaigu mugitzea», esan zuen Lesakako atzelariak.

JOSEBA OLALDE

Jorge Nagore ez zen gustura gelditu aukeratutako pilotekin.

Nagoreren sakea aipatu zuen atzo Tabernak behin baino gehiagotan, sakean dagoelako, haren esanetan, partiduaren gakoa: «Nire aukerak sakearen arabera daude. Sakea nola altxatzen dudan, horren arabera daude nire aukerak. Hagitz zaila izango da. Hagitz sake indartsua du eta bastante tanto eginen dizkit. Sakearekin, gainera, pilota dominatuta hartuko du, baina sakeak dezente altxatzen baditut, aukeraren bat izanen dudala uste dut».

Atzo, bestalde, Balmasedan ere pilota aukeraketa egin zen. Etzi jokatuko dute bertan Barriolak eta Pascualek Euskal Herriko bigarren mailako buruz buruko finalerdia. Abel Barriolak 104,9 eta 104,8 gramoko pilotak aukeratu zituen. Iñigo Pascualek, berriz, 103,7 eta 103,1 gramokoak. Txapelketako partidu horren ostean, Balmasedako Torneoko finala jokatuko dute Berasaluze VIII.a-Belokik eta Alustiza-Errastik.

gaurko partiduak

DEPORTIVO. 17:00
• Zeberio-Leunda / Goitia-Ibarra• **Euskal Herriko txapelketako finalerdia (desenpatea):** Daniel-Garrido / Iriondo-Rekalde • Urkia-Juan Pablo / Insausti-Beldarrain.

GALARRETA. 16:00
• Agirresarobe-J. Etxeberria / Bereziartua-Amenabar
• Ezkurra-Urretabizkaia II.a / Altuna II.a-Eizagirre
• Matxin-Iriarte / Elizalde-Aizpuru • Lezea-Zandio / Bitoria-Mendizabal.

biharko partiduak

DURANGO. 22:30 (ETB1)
• **Ibilaldiaren aldeko jaialdia:** Eugi-Zezeaga / Goñi II.a-Elkoro
• Berasaluze VII.a-Milikua / Badiola III.a-Almandoz.

SESTAO. 19:00
• **Sestaoko lau t'erdiko torneoa:** Haritz / Gonzalez
• Etxaniz-Santi / Esain-Lasa.

txokoan

Daniel-Garrido eta Iriondo-Rekalde pala txapelketako finalaren bila

Euskal Herriko Pala Txapelketako finala jokatzeko azken aukera dute gaur Daniel-Garridok eta Iriondo-Rekaldek. Partidu bana irabazi dute finalerdietan. Iriondo-Rekaldek lehenengoa (41-45), eta Daniel-Garrido errioxarrek bigarrena (45-26). Desenpateko partidua da gaurkoa. Irabazleek Urkia eta Torreren kontra neurtu beharko dituzte indarrak finalean, horiek desenpatearen beharrik gabe Insausti eta Ibarra txapelketatik kanpora utzi zituzten . Larunbatean bertan jokatuko da finala Bilbon, Deportivon. Ohi baino lehenago, 16:15etan, hasiko da partidua eta ETB1ek zuzenean emango du.

Koteto Ezkurra eta Garikoitz Altuna aurrez aurre Galarretan

Aurreko koadroetan ez da saltsarik faltako gaur Hernanin, Koteto Ezkurra eta Garikoitz Altuna nor baino nor ariko dira-eta Galarretan. Urretabizkaia II.a izango du Ezkurrak lagun atzeko koadroetan, eta Jon Eizagirre zarauztarra Amezketako aurrelari gazteak. Altunak eta Eizagirrek bikote handia egiten dute, baina Ezkurra tartean denean...

Lau t'erdi barruko torneoa antolatu du Aspek Sestaon

Bihar hasiko da Sestaoko Las Llanas frontoian Aspe enpresak bere koadroko aurrelari gazteekin antolatu duen lau t'erdi barruko torneoa. Haritzek eta Gonzalezek ekingo diote txapelketari, eta irabazleak Atxaren kontra jokatuko du finalerdia. Badiola III.ak Berasaluze VII.aren kontra jokatuko du apirilaren 9an, eta irabazleak Berraondoren kontra jokatuko du finalerdietan. Apirilaren 30ean jokatuko da finala.

Berezkoen buruz buruko xapelgoko bi partida gaur

Baionako San Andres trinketean, Berezkoen Buruz Buruko Xapelgoko bi partida jokatuko dira gaur (15:30). Bigarren itzuliko norgehiagokak dira: Jauregi-Lopetegi, eta Fontan-Agerrere.

Txirrindularitza ◆

110 kilometroko ihesaldiaren ostean, Bruno Boscardinentzat Setmanako etapa

Boterok jarraitzen du lider, eta Pantanik minutu bat galdu du

Efe / **Hospitalet de Llobregat**

SWISS POST taldeko Bruno Boscardin beteranoak irabazi zuen atzo Castello de Ampurias eta L'Hospitalet de Lobregat herrien artean jokatu zen Setmana Catalanako 3. etapa. 176 kilometrokoa zen atzoko etapa, eta horietatik 110 ihes eginda, bakarrik, egin zituen Boscardin suitzarrak. Botero liderraren tropela lau minutu baino gehiagora iritsi zen Erik Zabel alemaniarra buru zuela, eta Marco Pantanik, berriz, minutu bat galdu zuen helmugan liderrarekiko —azkeneko 10 kilometroetan sartuta zeudela jausi egin zen italiarra—. Euria egin zuen etapak iraun zuen bitartean eta eroriko asko izan ziren. Euskaltel-Euskadiko Joseba Beloki, esaterako, erietxera eraman zuten klabikulan kolpe handia zuelako. Marco Pantanik, berriz, ez du arazorik izango lasterketan jarraitzeko.

Aurreko eguneko etapa gogorraren ostean, lasaia izan zen atzokoa. 60. kilometroan egin zuen ihes Bruno Boscardinek eta zortzi minutuko abantaila ere izan zuen 108.ean. Kelme eta Mercatone tropelaren buruan jarri zirenean hasi zen abantaila hori jaisten, baina uste baino astiroago, hala ere. Sei minutuko abantailarekin sartu zen Boscardin L'Hospitaleten, eta lau minutukoarekin helmugan.

Etapa gogorra gaur

L'Hospitalet de Llobregat eta Cerdanyola herrien artean korrituko da gaur laugarren etapa eta, biharko erlojupekoaren atarian, erabakigarria izan daiteke. 166 kilometro ditu eta hiru mendate: Montserrat eta d`Etenalles lehen mailakoak, eta Tibidabo bigarren mailakoa. Helmugatik 22 kilometrora azken hori.

ATZO GAUEAN BANATU ZITUEN EABK 1999KO JOKULARI SARIAK, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAN EGIN JAIALDIAN

Lukax Dorronsororen ibilbidea saritu du Euskal Aktoreen Batasunak

- Gaueko 20:30ak baino lehentxeago hasi zen jaialdia, atzerapen pittin batekin, aretoak jende kopuru polita erakusten zuela
- Ane Gabarainek jaso zuen Zinema Saria, *Pecata minuta* filmean eginiko lanagatik; eta Alex Angulok Telebista Saria
- Antzerki Saria Koldo Losadarentzako izan zen, eta Jokulari Berria izenekoa Nagore Aranbururentzat

Amagoia Iban / **Donostia**

IKUSLEAK txalo egiteko gogo biziz agertu ziren atzo EABren jaialdia hasi eta berehala, Tirri-Tarra fanfarearen sarrerarekin batera. Ohiko «uniformeaz» jantzita, *can-can* doinuz eman zioten hasiera ikuskizunari, mozorroturiko bi aktoreri lekua eta hitza emanez: «Bost istorio dakarzkigu gaur hona. Bost sari», esan zuten hauek.

Eta sariak ekartzen lehenak zazpi aktore biluzi izan ziren, oihal zuri bat estalki zutela. Zinema Saria eman zuten, Ane Gabarainen eskuetara joan zena, Ramon Barearen *Pecata Minuta*-n betetako lekaime rolagatik.

Telebista Sariaren irabazlea ezagutaraztea izan zen hurrengo lana. Joxe Felipe Auzmendiri egokitu zitzaion lan hori, ordu arte jende artean txintxo-txintxo egonak ziren Sobradun taldeko bi partaideren «baimenaz».

Alex Angulorentzat izan zen azkenik Telebista Saria, Tele 5 kateko *Periodistas* sailean egindako lanagatik.



Ane Gabaraini Zinema Saria eman behar ziotenak alboko argazkian ikus daitekeen gisan agertu ziren oholtzan. Alex Angulok (behean), Telebista Saria jaso zuen.

EDURNE KOCH



EDURNE KOCH

Nahiago lan egin eta sariak jaso

Antzerki Saria, bestetik, Koldo Losadaren eskuetara joan zen, *Desperrados* antzezlanean beteriko rolagatik. Aurreko bi sarituek bezalaxe, saria eskertu eta lankideei eskaini zien, saria irabazarazi dion pertsonaiaren esaldi bat gogoratzeko ondoren: «Langabezian egotea egoerarik garbiena dela diot *Desperrados*-eko pasarte batean, baina lan egin eta honelako sari politak jasotzea nahiago dut».

Antzerkiak beste arte mota batzuekin uztartzeko duen gaitasuna erakutsiz, 9 urteko Maria Eugenia Silguero kontrabaxu jole sarituaren tartea heldu zen ondoren. Bere ahizpa Mari Karmenek lagundu zion pianoan, bost minutu inguruko pieza eder bat eskainiz. Jokulari Berria Sariaren irabazlearen izena jakinarazteko unea zen jada. Irabazlea benetan ezustean harrapatu zuen sariak, gainera, antolakuntza taldeko partaide moduan Silguero ahizpei lore sorta bana ematera oholtzara aterea zen Nagore Aranbururentzat izan baitzen. Malkoak isurtzerainoko sorpresa hartu zuen aktore eta antzerkigile azpeitiar gazteak. «Hau ez nuen espero eta ez daukat hitzik. Eskerrik asko» xume batez agurtu zuen antzokia negarrez, txalo bero artean.

Antzerki amateurrari Besarkada Saria

Azkenik, bizitza osoko antzerki ibilbidea saritzeko EABk eman ohi duen Besarkada Saria nork jasoko zuen jakitea besterik ez zen falta, eta agertokian ezarria zegoen pantaila handian Ataungo irudiak agertu zirenean eman zuten lehen arrastoa sari banatzaileek. Irabazlea seminarioan ibilia zela esan zuten ondoren, Debako herrian urte askotan lan egina zela gehitzeko. Goaz antzerki taldearen sortzailea zela erantsi zutenean, ez zen ja zalantzarik: Lukax Dorronsororentzako zen saria.

Dorronsorok ez zuen Victoria Eugenian egoterik izan. Ahotsik gabe omen zen atzo. Ohar labur-labur bat bidali zuen, ordea: «Ez dagokit niri Besarkada Sari hau jasotzea, antzerki amateurrari baizik. Eta 25 urte betetzen dituen Goaz taldeari».

Tirri-Tarrakoek itxi zuten gaua, baina beste «uniforme» batez jantzita agertu ziren. *Drag Queen* moduan azaldu ziren denak, *glamour* pittin baten falta sumatzen zuenari *glam* ukitua eta umore mordoa eskainiz. Euskal telebista, zinema eta atzerki munduarekin harremana duten aurpegi ezagunenak hurrengo urtean berriro bildu arte.

Pili Kaltzada: «Etorri bezala, barne-barnetik isuri diren gogoetak dira poema hauek»

'Ur-tximeletak' olerki liburuarekin literaturarako jauzia egin du kazetariak

Jon Eskisabel / **Donostia**

Pili Kaltzada kazetari donostiarrak literaturaren mundurako jauzia egin du *Ur-tximeletak* poema liburuarekin. Bizitza eta maitasunari buruzko «barne-barneko gogoetatik» sorturiko poema intimoak irakur daitezke Erein argitaletxeak plazaraturiko liburuan.

JAGOBA MANTEROLA

Azken urtean idatzitako poemak bildu ditu Pili Kaltzadak 'Ur-tximeletak' liburuan.

«IDAZLE berri baten liburu bat hartzean berehala igartzen da egileak asko irakurtzen duen edo ez. Kasu honetan, garbi dago poesia asko irakurtzen duen egilea dela, eta beraz poema hauek ez dira kapritxo hutsa», esan zuen Iñaki Aldekoa Erein-eko arduradunak *Ur-tximeletak* liburuaren aurkezpenean.

Literaturan aurpegi berria da Pili Kaltzada (Donostia, 1970), orain arte komunikazioaren munduan aritu baita. Zenbait komunikabidetan (Egin Irratia, Euskadi Irratia, EGUNKARIA, ETB) egin du lan, eta gaur egun Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluko komunikazio arduduna da. *Ur-tximeletak* osatzen duten poemak lagun baten bidez iritsi ziren Aldekoaren eskuetara, eta argitaletxeko kideak berehala konektatu zuen olerkiekin, ia-ia Kaltzadaren «aitabitxi» bihurtzeraino. «Nire mundu eta esperientzietatik oso hurbil dauden poemak dira. Askotan nahikoa da poema batzuk irakurtzea liburuak emango duenaz jabetzeko. Alde horretatik, nire aukera izan da liburua, eta beti defendituko dut», adierazi zuen Aldekoak.

Pili Kaltzadak azaldu zuenez, «etorri bezala isuri diren gogoetak dira poema hauek, barneari begira egindakoak. Ez dira sortu publiko baten onespena jasotzeko». Haatik, gerora konturatu da «oso intimotzat jotzen ditugun sentimenduak mundu guztiarenak direna. Espero dut irakurleak espazio komun horiekin topo egitea, eta gogoetak ekarpen bihurtzea».

Poemen sentimendu isurketa naturalak topo egiten du idazleak bere buruari ezarri zion diziplinarekin. «Astero zazpi olerki idaztera behartu nuen neure burua». Hainbat poematan gaztelania erabili du Kaltzadak. «Biak ditut nire hizkuntzatzat, eta gaitasun bera dut zenbait gauza azaltzeko. Niretzat hori sekulako zortea da», azaldu zuen.

Emakume buruz eta emakume gorputzez

Laura Mintegi mahaikide izan zuen Kaltzadak. Mintegik *Ilusioaren ordaina* ipuin liburuaren berrargitalpena aurkeztu aurretik hitza hartu zuen Kaltzadari literatur mundura ongi etorria emateko. Montserrat Roigen hitz batzuk ekarri zituen gogora: «Esaten zuen urtetan aritu zela buruz gizon eta gorputzez emakume idazten, eskizofrenia horretan luzaroan aritu behar izan zuela. Nik ikusten dut emakumeon artean eskizofrenia hori gutxitzen goazela. Gero eta gehiago gara kapaz emakume buruaz eta emakume gorputzaz idazteko. Pozgarria da beste emakume bat sartzea literaturgintzan. Litekeena da zenbat eta emakume idazle gehiago izan eskizofrenia hori gero eta gutxiago pairatu behar izatea».

Kaltzadaren liburuko *Ahazturaz* poema nabarmendu zuen Mintegik –«izugarri gustatu zait eta baimena eskatu diot nire nobela batean sartzeko»–, eta haren bukaera irakurri zuen. «Maitasunaz eta bizipenaz hitz egiten du. Zenbat eta gehiago maite, gero eta biziago dago pertsona, eta zenbat eta biziago egon, gero eta gehiago sofritzen du. Poema hauetan maitasuna, sofrimendua, poza ikusten da. Hori da bizitza, emakume gorputzaz eta emakume buruaz».

Mintegiren 'Ilusioaren ordaina' berrargitaraturik

LAURA MINTEGI-REN *Ilusioaren ordaina* ipuin liburua berrargitaratu du Erein argitaletxeak. 1983an argitaratu zen lehen aldiz liburua. Lehen argitalpena ia agortuta zegoen, eta geratzen ziren ale bakanak duela bi urteko uholdeek eraman zituzten. Hori dela eta, berreskuratu nahi izan du Ereinek.

Hamasei urteren buruan, liburuarekiko ez ezik ipuingintzarekiko ere distantzia hartu duela azaldu zuen Mintegik. Hain zuzen ere, horixe da idatzi duen ipuin liburu bakarra. «Ez da kasualitatea. Erosoago ikusten dut neure burua nobelagintzan. Gustatuko litzaidake ipuingintzan aritzea, baina ez naiz kapaz, gogoak eskatzen dit nobelak idaztea. Ez nuke esango nobelak heldutasuna dakarrenik, baina bai eskatzen duela bestelako teknika, eta, batez ere, ofizioa bizitzako esperientziak prozesatzen jakiteko. Adin bat ere eskatzen du. Hori beharbada 20 urterekin ez nuke esango, baina orain bai, 40ak gainditu ditudala. Uste dut orain hasi naizela nobelagintzaren ofizioa egiten. Hemendik 80-90 urte izan arte daukat denbora nobelak egiteko», esan zuen.

Euskaltzaindiak egin ditu jatorrizko argitalpenaren zuzenketak. «Ni zeharo ezgauza naiz boligrafoa berriz sartzeko amaituta dagoen testu bati», zioen. Aldekoaren iritziz, «liburuak ez du ezer galdu 16 urteotan».

Ramon Barearen 'Pecata minuta' filma Madrilen estreinatuko da

«Isolaturik bizi direnen xalotasun nerabea» islatu nahi izan du bilbotarrak

Efe / **Madril**

RAMON BAREA aktore bilbotarrak zuzendutako lehen film luzea estreinatuko da asteburu honetan Madrilen. *Pecata minuta* iazko Donostiako Zinemaldian aurkeztu zen, eta geroztik zenbait jaialditan erakutsi da, baina orain arte ez da areto komertzialetan estreinatu.

Izen bereko antzerki obra arrakastatsuan oinarrituta dago filma, eta euskal aktore berberak dira filmeko protagonistak: Elena Irureta, Loli Astoreka, Ane Gabarain eta Aitzpea Goenaga. Laurak dira klausurako moja-etxe batean hogei urte itxita eraman ondoren bertatik ateratzeko eta kanpoan izan diren aldaketak ezagutzeko sekulako gogoa izango duten lau mojak.

«Ez da moja bizitzaren kronika bat, baina errealitatearekin lotura bat baino gehiago du. Egunkari batean irakurri nuen Alcala de Henaresko mojatxo batzuek tunel bat ireki zutela landa ikusteko, eta zigortu zituztela pekatu egiteagatik», adierazi zuen Bareak atzo Madrilen egindako aurkezpenean.

Antzerki obra zinemara eramateko gidoia berriro idatzi zuen Bareak, gehienbat antzerkian agertzen ez ziren pertsonaiak filmean egokitzeko. *Pecata minuta* pertsonaien film bat dela uste du Bareak. «Gidoia idazten ari nintzela, argumentuari berari baino gehiago pertsonaia bakoitzaren barne bizitzari erreparatu nion, oso garbi bainuen filmaren giro orokorra».

Alde horretatik, isolaturik bizi direnen «xalotasun nerabea» islatu nahi izan zuen Bareak, klausurako moja-etxeak «Elizaren ildo erradikalena» ordezkatu arren. «Elizak jada ez daki zer egin konbentuetan geratzen diren moja bakanekin. Konbentuak ia hutsik daude, bokaziorik ez dagoelako. Horregatik askotan etorkinak hartzen dituzte». Filmean Hijas del Sol taldeko kideak agertzen dira moja afrikarren rolean.

'Mari-Marietta' liburua poliki saltzen ari da Frisian

Maite Gonzalez Esnalen ipuina frisieraz plazaratu du Utjowerij etxeak

Amagoia Iban / **Donostia**

Maite Gonzalez Esnalek duela hiru urte plazaratu zuen *Mari-Marietta* liburua (Alberdania). Espainiako Literatur Sari Nazionala jasotzeko hautagaien zerrendan sartu zuten beranduago, eta orain beste zerrenda batean topa daiteke lan hori: Frisiako Koperative Utjowerij argitaletxearen eskaintzenean.

KOPERATIVE UTJOWERIJ argitaldaria Bolswardekoa da (Frisia), eta bere izenak dioen bezala, kooperatiba moduan osatua dago, Europako iparraldeko argitaletxe askoren ereduari jarraiki. Hamabi liburu berri plazaratzen ditu urtean, frisieraz guztiak, eta aurtengo dozena horretako bat Maite Gonzalez Esnalen *Mari-Marietta* ipuina da, «harreman pertsonalen bidez argitaratua», idazleak nabarmendu duenez: «Idazle frisiar batzuk lagun ditut, eta horietako bat kooperatiba horretako kidea da. Nire liburuaren berri izan zutenean, irakurri nahi izan zuten, eta nik badut beste lagun bat, Elisabeth Watson, euskaraz hitz egin ez, baina ongi ulertzen duena. Berak itzuli zuen ingelesera, eta horren bidez irakurri ahal izan zuten nire lana argitaletxe hartakoek».

Irakurri ostean, frisieraz argitaratzea erabaki zuten Utjowerijekoek, eta, horrenbestez, *Mari-Marietta* izan da argitaratu duten lehen itzulpena. «Badute horrelako gehiago plazaratzeko asmoa, baina pixkanaka».

Gonzalez Esnalen lanak, zenbait moldaketa behar izan ditu Frisiako eta Euskal Herriko gizarte ezberdintasunek eraginda. *Mari-Marietta*-ko protagonista apartamentu askoko eraikuntza batean bizi da, sotoan, bere familiak atezain lana betetzen baitu. Frisian ia ez da horrelako etxerik ezagutzen. Atezainik ere ez da han. Gonzalez Esnalen liburuan ageri den beste pertsonaia bat ere, amaordea, ulergaitza da Frisian, ez baita horrelakorik hango gizartean. Horregatik, frisierazko bertsioan amaordea izeba moduan ageri da. «Horrelakoak kontuan izanda, ohar batzuk ere sartu behar izan ditugu liburuan, sanmarkosetako opilak eta marigorriak zer diren azalduz, esate baterako», esan digu Gonzalez Esnalek.

Emaitzarekin oso gustura ageri da idazlea: «Duela hiru aste plazaratu zen han, Liburuaren Astea ospatu baitzuten orduan. Poliki saltzen ari dela esan didate. Kritikak jasotzen ari naiz orain, nahiz eta argitaletxeak irakurle talde bat baduen, argitalpena egin baino lehen liburua irakurri zuena, eta galbahe hura gainditu zuen».

JOSEBA OLALDE

Euskarazko lanen itzulpengintza antolatzeko beharraz mintzatu da Maite Gonzalez Esnal.

Eremu urriko hizkuntza bi

Euskal Idazleen Elkarteko idazkari izaki, euskarazko produkzioaren errealitatea zuzenetik ezagutzen du Maite Gonzalez Esnalek, eta frisiera ere eremu urriko hizkuntza izaki, bi literaturen arteko errealitateen artean badela antzekotasunik dio: «Antzeko arazoak ditugu, baina bideko beste toki batean daude. Ezberdintasunik nabarmenena da hango gizartea hemengoa baino dezente irakurzaleagoa dela. Herrixka guztietara astero furgoneta bat heltzen da, liburutegi mugikor lana betetzen duena. Irakurzaletasuna, ordea, krisian sartu da han ere».

Mari-Marietta galegora ere itzuli diote Gonzalez Esnali: «Nire beste lagun batek itzuli du. Horrekin esan nahi dudana da merkatuko sareen beharrean gaudela euskal idazleok. Lagunen bidez ari gara oraindik, eta hori ez da nahikoa».

Kataluniako eta Galiziako esperientziak aipatu ditu ildo horretatik: «Han, edozein liburu itzultzen dela ere, argitalpen kontratua erakutsita, itzultzaileak ziurtatua du bere lanaren ordaina eta sare arruntetako sarrera».

Yasar Kemal kurduaren liburu bat kaleratu dute

'Zanpa ezak sugea' lana Xabier Aranburuk itzuli du, eta Txalapartak kaleratu

Erredakzioa / **Bilbo**

ZANPA EZAK SUGEA eleberriak ez du, zuzenean bederen, herri kurduaren egoeraz hitz egiten. Yasar Kemal liburu horren idazleak «errealismo magikoa» landu du lan horretan, liburuaren itzultzaile Xabier Aranburu *Artzaik* atzo Bilbon egin prentsaurrekoan adierazi zuenez. «Errealismo magiko balkaniarra», itzultzaileak argitu zuenez. «Nekazal drama bat kontatzen du eleberrian Kemalek», Aranbururen zehaztapenen arabera. Halaber, «gustura» irakurtzen dela esan zuen itzultzaileak.

Yasar Kemal idazlearen garrantziaz eta ekarpenaz ere mintzatu zen Aranburu: «Kurduentzat Yasar Kemal mito bizi baten pare da, eta nazioartean prestijio handia du, bai idazle bezala eta bai herri kurduaren defentsan egin lanarengatik».

Aurkezpenean Txalaparta argitaletxeak beste liburu bat ere aurkeztu zuen, hura ere kurduen ingurukoa: Jacqueline Sammali idazlearen *Ser kurdo, ¿es un delito?*. Liburu hori ez da fikziozkoa, aurrekoa bezala, aitzitik, Turkiak mendean duen Kurdistango zatian eginiko ikerketa baten ondorioa da. Txalaparta argitaletxeko arduradun Carlos Aznarezek adierazi zuenez, liburu hori «herri kurduak existitzeko daraman borrokaren biografia gordina da».

Nestor Felli, Newroz elkarte euskal-kurduaaren ordezkaria ere izan zen aurkezpenean, eta, haren iritziko, «ia sinestezina da kurduen inguruko bi liburu argitaratuta ikustea».

«Lehen eta bigarren mailako herritarrak daudela agerian uzten du antzezlanak»

'El hombre elefante' jokatuko dute gaur, bihar eta etzi Barakaldo antzokian

Kristina Martin / **Bilbo**

***Proteo sindromea* gaixotasunaren ondorioz desitxuratuta geratu zen John Merricken benetako istorioa da antzezlaneko istorioaren oinarria. «Hala ere, haratago doa antzezlana, gizarteari edertasunak sortzen dion menpekotasuna auzitan jartzen duelako», esan zuen Pere Ponce aktoreak.**

XOUSE SIMAL

***El hombre elefante* antzezlanean parte hartzen duten aktoreak, atzoko aurkezpenean, Bilbon.**

«EZ naiz animalia, gizakia naiz!». Hala oihukatu zuen John Merrickek, *El hombre elefante* David Linchen pelikularen oinarria izan zen neurofibromatosiak jotako gizonezkoak. John Merrick existitu zen, eta, gaixotasun arraro horren ondorioz, gorputza desitxuratu eta aurpegian sortu zitzaion deformazioak gizartearen gutxiespen eta bazterketa ekarri zion. Joan den mendean bizi izan zen, baina gaur egunera ekarri dute egoera. «Izan ere, inoiz baino garrantzi handiagoa duen edertasun fisikoaren esklabotasuna auzian jartzen du testuak», azaldu zuen antzezlanean Merricken rola betetzen duen aktoreak, Vicente Diezek.

Barakaldo antzokian eskainiko dute *El hombre elefante* antzezlana, ostiraletik igandera arte. Mariano Barrosok zuzendu du, *Mi hermano del alma* eta *Éxtasis* filmekin egin bezala, testuaren antzerkirako egokitzapena, eta Aitana Sanchez Gijonek eta Carlos Abadek sortutako Strion konpainiak ekoitzi du.

Zortzi aktorek hartuko dute parte antzezpenean: Vicente Diez John Merrick protagonista izango da, Pere Poncek medikuaren rola beteko du, eta Maru Valdivielso, berriz, Mrs. Kendal izango da. Adolfo Fernandez, Claudio Rodriguez, Maria Pujalte, Naya Gonzalez eta Miguel Forondak osatzen dute aktora taldea. Horietako aktore batzuek pertsonaia bat baino gehiago jokatuko dute.

«Antzezlana filma baino urrunago doa»

John Merricken istorioa literatura lan askoren inspirazio iturri izan da, baina aipamen berezia merezi du 1980an David Lynchek filmatutako pelikulak. «Antzezlana pelikula baino urrunago doa. Gai sakonagoak lantzeko erabiltzen du Merricken kasua; esaterako, edertasunak inposatzen duen tirania, egungo gizartean desberdina izateak dakartzan arazoak. Azken finean, Merricken istorioa metafora bat da, eta gizartearen hainbat jarrerari kritika egiteko aitzakia ematen du. Gizartearen balioak kolokan jartzen dira antzezlanean», esan zuen Pere Poncek.

Claudio Rodriguez aktoreak nabarmendu zuen Mariano Barroso zinemagintzan ibilia izateak eragina duela eszenaratzeko moduan. «Argiztapena, muntaia musikala eta zinemaren ezaugarriak agerikoak dira antzezpenean», adierazi zuen Claudio Rodriguezek.

Maru Valdivielsoren hitzetan, «Merrickengandik hurbil dauden pertsonaia guztien bizitza aldatu egiten da. Denek auzitan jartzen dituzte zituzten balioak; edertasunari ematen zioten garrantzi itzel hura gainditu egiten dute. Azkenean, hazkunde pertsonala lortuko dute harengana hurbiltzen ausartu direnek».

Mariano Barroso aztezlanaren zuzendariak berak esan zuenez, *El hombre elefante* lana «duintasunaren garaipena da, beldurraren, gezurraren eta gorrotoaren gainetik».

GARI GARAIALDE

'Irudipuinak' gaur Usurbilen. Mattin marrazkilariak eta Ixabel Agirresarobek *Irudipuinak* muntaia emango dute gaur, 22:00etan, Usurbilgo Txiriboga tabernan. Komikia, ipuina eta aldiberekotasuna nahastuko dituzte ikuskarian.

Esther Ferrer artista donostiarra Veneziako Biurtekoan izango da

■ *Hiru instalazio jarriko ditu ikusgai han*

Erredakzioa/ **Donostia**

ESTHER FERRER artista donostiarra Veneziako Biurtekoan izango da. Espainiako pabilioiaren barnean jarriko ditu ikusgai bere lanak.

Europako arte erakusketa garrantzitsuena da Veneziako Biurtekoa, eta bertan erakutsi ahal izatea artisten mailaren erakusgarri da. Aurten, ekainaren 13an hasi eta azaroaren 11ra bitarte egingo da.

Esther Ferrer Donostian jaioa da, baina aspaldian Parisen bizi da. *Performance*-ak egin ohi ditu; hau da, artea leku eta denbora errealean kokatu nahi izaten du, eta, horretarako, sarritan bera izaten da arte ekintzaren protagonista.

Hiru instalazio jarriko ditu

Artelana, harentzat, objektua bera baino gehiago, objetu horrek izan dezakeen esanahia da, eta horregatik lerratzen da orain dela 40 urte Duchamp frantziarrak sortutako arte kontzeptualaren mugimenduan.

Venezian hiru instalazio jarriko ditu ikusgai: bi propio harako eginak, eta bestea aspaldian abian jarritako proiektu baten segida. Ez du *performance*-rik egingo, horrelakoek ez dutelako lekurik Biurtekoan, artista berak adierazi duenez. Hala ere, erakusketen erakusketa den biurteko horrek beste modu batera ezin gauzatuko zituen obrak egiteko parada eskaini dio.

Diskurtso koherenteko eta euskarri sakoneko arte ibilbidea egin du Ferrerrek. Euskal Herrian haren obrak ez dira aise ikusten. Azkenengoz orain bi urte erakutsi zituen, Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean egin zen atzera begirakoan.

Ferrer Biurtekora doan euskal bigarren artista da, Jorge Oteizaren ondotik. Ferrerrekin batera, Manuel Valdes valentziarra joango da Veneziara.

Eszena 99 Jaialdiak dantza ekarriko du Nafarroara datorren apiriletik aurrera

Nafarroako Gobernuak haur eta gazteentzako emanaldiak antolatu ditu aurten

Edurne Elizondo / **Iruñea**

Hamaika konpainiak parte hartuko dute Eszena 99 Dantza Jaialdian, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Antzerki Eskolaren eta Zizur Nagusiko Udalaren laguntzaz antolatuta. Aurtengoa hirugarren ekitaldia izanen da, eta hainbat berrikuntza ekarriko ditu, tartean haur eta gazteentzat propio antolatutako dantza ikuskizun eta lantegiak.



ARTXIBOKOA

Miarritzeko Baleteko bi dantzari, *Ouverture Cubaine* ikuskizunean.

NAFARROAKO Gobernuak Eszena Dantza Jaialdiaren beste ekitaldi bat antolatu du, Nafarroako Antzerki Eskolaren (NAE) eta Zizur Nagusiko Udalaren laguntzaz. Datorren apirilaren 16tik maiatzaren 20ra bitartean izanen dira emankizunak, Iruñean eta Zizur Nagusian, eta hamaika konpainiak parte hartuko dute. Aurten, aurreneko aldiz, Euskal Herriko eta Espainiako hainbat autonomia erkidegotako dantzariekin batera, Argentinako eta Frantziako profesionalak ariko dira jaialdian.

Beste berrikuntza batzuk ere izango dira aurtengo Eszena Dantza Jaialdian, Nafarroako Gobernuko Kultura Zuzendaritza Nagusiko buru Tomas Yerrok atzo Eszena 99 aurkezteko egin agerraldian jakinarazi zuenez. Batetik, Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatzeko, Iruñeko karriketan aurkeztuko dituzte dantzariek euren ikuskizunak, apirilaren 29an, eta, bestetik, haur eta gazteentzat propio prestatutako emanaldiak eta dantza lantegiak antolatu ditu Nafarroako Gobernuak.

Dantzaren jarraitzaile kopurua igo egin da

Dantzaren egungo ildoak erakutsiz eta kalitateko ikuskizunak aurkeztuz, Eszena Dantza Jaialdiaren helburua arte diziplina horrek gure herrialdean duen jarraitzaile kopurua urtetik urtera igotzea dela azpimarratu zuen Tomas Yerrok atzoko agerraldian.

Espainiako Balet Berriak emanen dio hasiera Eszena 99 Dantza Jaialdiari, apirilaren 16an. *Flamenco directo* ikuskizun berria aurkeztuko du konpainiak, Iruñean, Gaiarre antzokian. Apirilaren 20an eta 21ean Chicos Mambo Show taldea ariko da, Gaiarren bertan. Apirilaren 23 eta 24an, berriz, Zizur Nagusiko kultur etxean General Electrica taldearen *Night* ikuskizuna izanen da.

Apirilaren 28an, dantza, musika eta bideoa nahastuko dira Nafarroako Antzerki Eskolaren egoitzan, Sol Pico konpainiaren *E.N.D. (Esto No Danza)* ikuskizunarekin. Biharamunean, Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatuko dute Iruñean, eta hiriko karriketan ariko dira egun osoan dantzariak; besteak beste, Frantziako Erre que Erre, Asociacion Os Bambas da Copeira eta Les Saltindances taldeak ariko dira.

Maiatzaren 1ean eta 2an, *Ana y el arco de colores* aurkeztuko du Aracaladanza taldeak Zizur Nagusian, eta, hilaren 5ean, *Blanc d'Ombra (Recordant Camille Claudel)* Marta Carrasco dantzariak. Hilaren 7 eta 8an, berriz, Nafarroako Tempomobile konpainiak *A way* lana aurkeztuko du. Jon Munduate dantzaria NAEn izanen da, maiatzaren 12an, *Lucia con zeta* obrarekin, eta, 16an, Miarritzeko Baleta Gaiarren izanen da. Gelabert-Azzopardi konpainiak eta Argentinako Quat'Zarts-Catherine Berbessou taldeak emango dituzte aurtengo azken ikuskizunak.

III. Akordeoi Jaialdia izango da larunbat gauean Ordiziako Herri Antzokian

■ *Hainbat musika estilotako piezak jo beharko dituzte parte hartzaileek*

Erredakzioa / **Donostia**

AKORDEOIA musika tresna nagusi duten taldeei zuzendurik dago Ordiziako Akordeoi Jaialdia, adin mugarik gabe, eta aurtengo jaialdia Ordiziako Herri Antzokian izango da etzi, larunbata, gaueko 21:45etan. Larrun-Arri elkarteak antolatu ohi du jaialdia, Gipuzkoako Akordeoi Federazioaren laguntzaz.

Lehengo urteko emaitza onak ikusita, Larrun-Arri elkarteak sariak handitzea erabaki du. Hala, irabazleak 300.000 pezeta (12.000 libera inguru), txapela, garaikurra eta Pigini markako akordeoia erosteko 100.000 pezetako txartela jasoko du. Bigarren saria 150.000 pezetakoa da, eta hirugarren, laugarren eta bosgarren saridunek 50na mila pezeta eskuratuko dituzte.

Lehiakideek hainbat estilotako programa jo beharko dute, besteak beste fandangoa, folka, rocka, tangoa, rumba eta balsa, eta aukera libreko beste lau pieza.

Salvador Olazabal (Irun), Nerea Labaien (Berastegi), Jokin Goenaga (Lasarte), Philippe Ezkurra (Urruña) eta Beñat Mitxelena (Arantza) ariko dira Ordiziako III. Akordeoi Jaialdian, beste hainbat musikarirekin batera.

Bilbo eta Txorierri taldeak ariko dira igandean Bertsolari Gazteen BBK Sariketako finalean

■ *Atzoko eta herenegungo saioen ostean, amaitu da sailkapen fasea*

Erredakzioa / **Bilbo**

HELDU den igandean izango da Bertsolari Gazteen VII. BBK Sariketako saio nagusia, Bilboko Kafe-Antzokian, eguerdian, eta hor ariko dira Bilbo eta Txorierri taldeak, sailkapen saioetako multzo bakoitzeko irabazleak, alegia.

Bermeoko eta Derioko institutuetan izan dira sailkapen faseko azken bi saioak. Busturia eta Arratia taldeak aritu ziren Bermeon, eta Txorierri eta Durango taldeak Derion. Busturia eta Txorierri taldeak izan ziren irabazleak saio bakoitzean. Ondorioz, Bilbo, Busturia eta Arratia taldeen multzoan, Bilbok bi puntu lortu ditu, bi saioetatik biak irabazi baititu, eta gauza bera gertatu da beste multzoan Txorierri taldearekin. Durango eta Lea-Artibai izan dira azken multzo horretako beste bi taldeak.

Sariketa honetan bertsolariek taldeka parte hartzen dute, eta talde bakoitzak Bizkaiko eskualde bat ordezkatzen du. Bi adin mailatan banatuta aritzen dira bertsolariak: 18 urte artekoak maila batean, eta 19 urtetik 23ra artekoak bestean.

musika ◆ KATALUNIAKO ORKESTRA SINFONIKOA

Saio truke onuragarria

■

Orkestra: Bartzelonako Orkestra Sinfoniko eta Kataluniako Orkestra Nazionala. **Zuzendaria:** Edmon Colomer. **Egitaraua:** Julio Garretaren *Medahuarteak*, Felix Mendelssohnen *Piano eta orkestrarako 2. kontzertua Re minorrean, Op. 40*, Gustav Mahlerren *Titan 1. Sinfonia Re maiorrean*. **Piano jolea:** Laia Massamon. **Non:** Ayala antzokian. **Noiz:** Martxoaren 20an. **Jende kopurua:** 700 lagun.

KATALUNIAKO eta Euskadiko orkestrek burutu duten elkartrukeaz denok irabazi egin dugula ematen du. Katalandarrek Bilbotik egin duten kukuan baieztatu egin dute Donostian hasitako onegite musikala. Gure orkestrak hemengo sortzaileen lanak lau haizeetara zabaltzen duten bezala, eurek ere XX. mendeko hasieran bizi zen Julio Garretaren *Medahuarteak* rapsodiaren antzeko musika eskaini ziguten sarrerarako.

Musika lanak Wagner-en eragin zuzena dauka Mediterraneoko zipristinekin nahastua azken zati koloretsuan. Joko sinfonikoaren eskasiagatik luzeegi iruditu zitzaidan, eta zinemarako musika erromantikoa zirudien gehiago.

Ez da luzimendu askotakoa edo konplexutasun handikoa Mendelssohn-en piano eta orkestrarentzat den bigarren kontzertua. Loia Massamon hamazazpi urteko piano jolearen digitazioa ez da hain indartsua, baina egoki jo zuen guztia, argitasuna azalduz bai eskaletan eta bai arpegio desberdinetan, lehenengo eta hirugarren joaldietan, eta xarma lirikoa erakutsi Adagioan: publikoaren gustukoa.

Mahler-en *Titan* autografikoa den lehenengo sinfonian lehertu egin zuen OBC-k eta adierazi ere bere benetako maila eta Edmon Colomer-en artea eta entrega. Nahiz eta hasieran harizko agudoak eta metalezkoak zalantzakor hasi, laster inposatu zen harizko familia sendoa, bakarlari desberdinen bizitasuna eta metalezkoen ziurtasuna.

Xehetasunezko bertsioa, delikatua eta nostalgikoa: espresakor erromantikoa zati geldoetan, distiratsua dantza joaldi erritmotsuetan, espresionista eta barnerakoia, trumoitsu tuttietan. Erabat *mahleriarra* konplexutasunean Colomerrek eskainitako bertsioa: preziosizta eta nostalgikoaren artean zegoen.

Orquestre Sinfónica de Barcelona y Nacional de Catalunya handia da. Eta horrela zalapartatsu adierazi zuten entzuleek arrakastaren produktua. Euskaldunok eduki badaukagu nondik aztertu elkartrukearen ikaskizunak.

Jesus Mari Begoña



ARTXIBOKOA

Bartzelonako Orkestra Sinfoniko eta Kataluniako Orkestra Nazionala.

Iheitza taldeak bost kantu bildu ditu CD batean bere musika ezagutarazteko

■ *Sakanako seikoteak urte amaierarako kaleratu nahi du lan luzea*

Joxi Ubeda / **Donostia**

◀

IHEITZA taldea 1997ko udan sortu zen Nafarroako Sakana bailaran. Berbenetan, txarangetan eta antzeko beste zereginetan aritzen ziren hainbat gaztek sortu zuten taldea. Iragan urtean maketa bat kaleratu zuten, eta duela aste batzuk bost kantu grabatu eta CD batean bildu dituzte. Urte honen amaierarako edo datorrenaren hasierarako osatu nahi dute lehen lan luzea, baina, bitartean, beren musika ezagutarazi nahi dute, eta horretarako kaleratu berri dute bost kantuz osaturiko promozio CDa.

1998ko Euskal Kantu Txapelketan irabazle izan ziren, eta kantaldiak emateari ekin zioten. «Ikusleen harrera ona ikusita, bideari lotu, eta hementxe gaude, ilusioz beterik», Iheitza taldeko kideek esan dutenez.

Dantza egiteko gonbita

Ordubete inguruko saioak eman ohi dituzte, eta berbena giroko kantuak, pop ukitua duten piezak, baladak, folk aireak eta ska erritmoak jotzen dituzte. «Kontzertu osoa atsedenik hartu gabe dantzan aritzeko gonbita da».

Iheitza taldeko kideek hamaika musika tresna jotzen dituzte, eta haietako batzuk ez dira normalean ikusten kantaldietan. Besteak beste, fliskornoa eta flageoleta.

laburrean

M U S I K A

■ Asier Polo biolontxelo joleak gaur joko du BOSekin

BILBAO ORKESTRA SINFONIKOAK denboraldiko kontzertu bi eskainiko ditu gaur eta bihar arratsaldeko 20:00etan Ayala Antzokian. Gaur Berlioz eta Escuderoren konposizioak entzun ahalko dira, eta Asier Polo biolontxelo jolea ariko da bakarlari lanean. Bihar, ordea, Schumannen 2. sinfonia do maiorrean interpretatuko du BOSek.

■ Jez Lowek folk britainiarra ekarriko du gaur Getxora

GETXO Antzokiak hartuko du gaur 20:00etan Jez Lowe irlandarraren emanaldia. *The parish notices* Loweren azken diskoaren kantak joko ditu musikariak. Lowek musika garaikidearen eta folk britainiarraren doinuak nahastu ditu lan horretan. Kontzerturako sarrerak 1.200 balio du.

■ Ainhoa Artetak zarzuela kantatuko du etzi Oviedon

AINHOA ARTETA sopranoak zarzuela kantatuko du, berriz ere, larunbatean Oviedoko Campoamor Antzokian. Estatu Batuetan hainbat kontzertu eman ditu soprano tolosarrak, eta egin duen «bira gogorra» amaitu ostean «dena emateko prest» dagoela azaldu zuen atzo Oviedon bertan. Hainbat opera zati eta zarzuela kantatuko ditu Campoamor antzokian, Asturiasko Printzerriko Orkestra Sinfonikoarekin, eta Enrique Garcia Asensio maisuaren zuzendaritzapean. Datozen hilabeteetan, Estatu Batuetara itzuliko da Arteta, eta, hango hainbat hiritan kantatu ondoren, Londresko Covent Garden aretoan ariko da lehen aldiz. Las Palmas, Santander, Madril, Segovia, eta Espainiako estatuko beste hainbat hiritan ere izango da soprano tolosarra datozen hilabeteetan.

L I T E R A T U R A

■ 'Beterriko liburua' literatur aldizkariaren bigarren zenbakia argitaratu du Larramendi bazkunak

LARRAMENDI BAZKUNAK *Beterriko liburua* literatur aldizkariaren bigarren zenbakia argitaratu berri du Gipuzkoako Beterri-Ariztondoko eskualdean. Hots, Aduna, Amasa, Villabona, Andoain, Asteasu, Larraul eta Zizurkil herrietan. Euskarazko literaturaren berri ematea eta euskal literaturaren irakurzaletasuna suspertzea da zortzi orrialdez osaturiko aldizkari horren xedea. Hala, 1996an Joxean Agirreren *Elgeta* liburua saritu zuen, eta 1997an Ur Apalategiren *Gauak eta hiriak*. Beterri-Ariztondoko herritarrek osatzen dute saria erabakitzeko epaimahaia, eta apirilaren 22an izango da *Beterriko liburua 1998* izendapen ospakizuna.

A N T Z E R K I A

■ 'Moliere Dandin' lana antzeztuko du EHUko Antzerki Tailerrak gaur Iruñean

EUSKAL Herriko Unibertsitateko Antzerki Tailerrak *Moliere Dandin* antzezlana taularatuko du, gaur, Nafarroako Antzerki Eskolaren (NAE) egoitzan, Iruñean. Goizez, 11:30etan, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak antolatu antzerki zikloaren baitan, gaztelaniaz eskainiko du EHUko konpainiak obra, eta, arratsaldeko 20:30etan, berriz, euskaraz, NAEk berak eta Iruñeko Udalak antolatuta. *Moliere Dandin* antzezlanaren emankizunak zabalduko du Unibertsitate Antzerki Topaketa.

MUSIKA

BILBO

- **Hipster.** Mina espazioan, 20:00etan.
- **Labrit Zabala.** Deustuko Izangon, 21:00etan.

DURANGO

- **Joseba Tapiarekin dantzaldia.** Berbaro tabernan, 20:00etan.

GETXO

- **Jezz Lowe.** Folk kontzertua, Getxo antzokian, 20:00etan.

HONDARRIBIA

- **San Inazio abesbatza, Santa Zezilia abesbatza eta Musikabi orkestra.** Parrokian, 20:30etan.

ORDIZIA

- **Musika sakratua.** Ordiziako Musika Eskolako kantu ikasleak. 20:30etan parrokian.

ANTZERKIA

BILBO

- ***P. Arruperen*** testuekin eginiko antzezlana eskainiko da Paraninfoan, 19:30etan.
- ***Mis rarezas dirías tú.*** Ander Lipus Antzerkixe, Kafe Antzokian, 22:30etan.

GASTEIZ

- ***La Isla Encubierta.*** La Nave taldearen eskutik, 11:00etan unibertsitateko pabilioian.
- ***El hombre elefante.*** Strion Teatro taldea, Principal antzokian.

DONOSTIA

- ***Arriba hay mucha marcha.*** Jose Greciano eta Ana Laffarga. Be Bop tabernan, 22:30etan.
- ***La maldición de Poe.*** Lugaritz kultur etxean, 20:30etan, Corsario taldea.

LAUDIO

- ***Tu quoque fili.*** Iparraldeko antzerki taldea, Korrika Kulturala.

MIARRITZE

- ***Nerudaren postaria.*** Maskarada taldea, Koliseoan, 21:00etan. *Bi harriz lau xori* astearen barneko ekitaldia.

ZINEMA-BIDEOA

BEASAIN

- ***Trono de sangre.*** Goeniz zinekluba, 21:00etan. Akira Kurosawaren filma.

GETXO

- ***El rostro.*** Areetako Gran Cineman, 20:00etan.

GASTEIZ

- ***Sol de otoño.*** Guridi zineman, 20:00etan.
- ***On connait la chanson.*** Unibertsitateko areto nagusian, 12:00etan.
- ***Abbas Kirostami zikloa.*** Zinematografia ikastaldi irekia. 19:30etan, Luis de Ajuria kultur aretoan.

LASARTE

- ***In company of men.*** Auditorioan, 22:00etan.

ZUMAIA

- ***El dulce porvenir.*** Zine-forum zikloa. Aita Mari zineman, 22:15etan.

HITZALDIA

ABADIÑO

- ***Realeko jokalarien hitzaldia.*** Behelaino kultur taldeak antolaturik, 19:15etan, kultur etxean.

BALMASEDA

- ***La pasión en Balmaseda.*** Txomin Etxeberria historialariaren eskutik, ateneoan.

BILBO

- ***Emakumeak euskal mitologian.*** Anuntzi Aranaren eskutik, Likinianon, 20:00etan.
- ***Violencia doméstica frente a la salud.*** Enrique Gonzalez Duroren eskutik, Hikaatenoan 19:30etan.

DONOSTIA

- ***Euskal Herria eta Lurraldea*** hitzaldia, 20:00etan, Groseko San Inazio parrokian. Hizlariak Erramun Baxok, Tomas Urzainki eta Xabier Kintana izango dira. Antolatzaileak Groseko Lizarra-Garaziko taldeak.
- ***Antsietatea: aldaketaren motorra*** hitzaldia 19:30etan, Egiako kultur etxean.

ELIZONDO

- ***Parkinson gaixotasunaren diagnostikoaren ondorioak*** hitzaldia 19:00etan, kultur etxean. Hizlaria Alfredo Martinez Larrea psikiatra izanen da.

GASTEIZ

- ***Eskia Eskandinavian.*** Ane Miren Miralles eta Iosu Iztueta, Estadio Kkltur aretoan, arratsaldeko 20:00etan.
- ***El estado autonómico: problemas y horizonte.*** Ramon Jauregik eskainiko du hitzaldia, Canciller Ayala hotelean, 19:30etan.
- ***Bake prozesuari buruzko*** hitzaldia, IU-EBren egoitzan, 19:00etan. Hizlariak: K. Usin, J. Jimeno eta J. Perez.
- ***Akuoriofiliarako sarrera. Gizarte modernoa, akuoriofilia eta ekologia.*** Raul Hidalgoren eskutik Vital Kutxako kultur aretoan, 20:00etan.

HONDARRIBIA

- ***Patxi Zabaleta eta Pedro Esarte.*** Zuloaga etxean, 19:30etan.

IRUN

11:00: **Zinema.**
El misterio de la joya. Zuz.: Terry Marcel. Aktoreak: Emma Samms, Denis Lawson. 1991.
13:00: **Con mucha marcha.**
15:15: **Saber y ganar.**
15:45: **Grandes documentales.**
16:45: **Txirrindularitza.** Setmana catalana.
17:45: **El escarabajo verde.**
18:20: **Hyakutake.**
19:00: **Un chapuzas en casa.**
20:00: **Informativo territorial.**
20:30: **Saskibaloia: Euroliga.** Real Madrid-Teamsystem.
22:00: **La2 noticias.**
22:20: **Loteria primitiva.**
22:30:**Documentos TV.** *Mexico D.F.*
23:40: **Las claves de...***J. K. Galbraith.*
00:45: **El tercer grado.**
01:20: **Patinaje artistikoa.**
02:15: **Concierto de Radio-3:** Jackson Browne.
02:45: **Cine Club.**
Rápido, casémonos. Zuz.: William Dieterle. Akt.: Ginger Rogers, Ray Milland. 1964.
04:25: **Cine Club.**
Mi guerra mundial. Zuz.: Jenny Bowen. Akt.: Lukas Haas, Lea Thompson. 1988.

TF1

05:55: **Les annes fac.**
06:20: **Elisa Top model.**
06:45: **TF1 INFO.**
06:55: **TF! jeunesse.**
08:30: **Tele shopping.**
09:05: **Le medecin de famille.**
10:15: **Alerte Cobra.**
11:10: **Hooker.**Telesaila. .
12:05: **Tac o Tac**
12:10: **Cuisinez comme un grand chef.**
12:15: **Le juste prix.**
12:50: **A vrai dire.**
13:00: **Le journal.**
13:40: **Bien Jardiner.**
13:50: **Les feux de l'amour.**
14:40: **Arabesque.** Telesaila. *Meurtre dans l'oasis.*
15:40: **Le rebelle.** Telesaila. *Partenaires.*
16:35: **Video Gag.**
16:50: **Sunset Beach.** Telesaila.
17:35: **Beverly Hills.** Telesaila. *Plaisir d'offrir.*
18:25: **Exclusif.**
19:10: **Le bigdil.**
20:00: **Le journal.**

20:50
Julie Lescaut.



Telesaila.

22:40: **Telefilma.**
Les visiteurs de la nuit.
00:20: **Les rendez-vous de l'entreprise.**
01:00: **Tres chasse.**
01:55: **Reportages.**
02:20: **Histoires naturelles.**
02:50: **Enquetes a l'italienne.**

FRANCE 2

05:55: **La chance aux chansons.**
06:30: **Télématin.**
08:35: **Amoureusement vòtre.**
09:05: **Amour, gloire et beauté.**
09:30: **C'est au programme.**
10:50: **Flash info.**
11:00: **Motus.**
11:40: **Les z'amours.**
12:20: **Pyramide.**
12:50: **Rapports du loto.**
13:00: **Le Journal.**
13:50: **Derrick.**
14:50: **L'as de la crime.** Telesaila.
15:40: **Tiercé.**
15:55: **La chance aux chansons.**
16:45: **Des chiffres et des lettres.** Telesaila.
17:20: **Cap des pins.**
17:50: **Hartley coeurs a vif.**
18:45: **Et 1, Et 2, Et 3!**
19:20: **Qui est qui?**
19:55: **Météo.**
20:00: **Le journal.**

20:55
Direct.

Magazina.

23:00: **Zinema:**
Dracula. Zuz.: Francis F. Coppola. Akt.: Gary Oldman, Winona Ryder.
01:30: **La 25e Heure.**
03:35: **Mezzo l'nfo.**
03:50: **Femmes: Les Trois Revolutions du siecle (2/3).**
04:55: **24 heures d'info.**
05:15: **Nicaragua: La situacion de l'enfance.**

FRANCE 3

06:00: **Euronews.**
06:45: **Les minikeums.**
08:40: **Un jour en France.**
09:45: **Brigade criminelle.**
10:40: **Simon et Simon.**
11:30: **A table!**
11:55: **Le 12-13.**
13:20: **L'odysse fantastique.**
13:50: **On s'occupe de vous.** Magazina.
14:45: **Keno.**

14:50
Mallory.

Boris Sagalen telefilma.

16:40: **Les minikeums.**
17:45: **Le kadox.**
18:20: **Questions pour un champion.** Lehiaketa.
18:50: **Un livre, un jour.**
18:55: **Le 19-20.**
20:05: **Cosby.**
20:35: **Tout le sport.**
20:50: **Consomag.**
20:55: **Zinema.**
Neuf mois aussi. Zuzendaria: Chris Columbus . Aktoreak- Hugh Grant, Julianne Moore.
22:45: **Soir 3.**
23:20: **La preuve par trois.**
00:15: **Espace Francophone.**
00:40: **Telefilma:**
Freres a la vie a la mort Aktoreak: Gottifried John.
02:15: **Nocturnales.**
02:50: **Amaiera.**

A 3

06:20: **Cuentos de la crípta.** Telesaila.
06:40: **La bella y la bestia.** Telesaila.
07:30: **Club Megatrix.** Haurrentzako saioa.
09:30: **Noticias.**
09:30: **El primer café.**
10:25: **Zinema.**
Los casos más sonados de Perry Mason: Asesinato en la Universidad. Zuzendaria: Christian Nyby. Aktoreak: Raymond Burr, Barbara Hale. 1989.
12:30: **Los vigilantes de la playa.** Telesaila.
13:30: **Padres forzosos.** Telesaila.
14:00: **Cosas de casa.** Telesaila.
14:30: **El principe de Bel Air.** Telesaila.
15:00: **Noticias-1.** Albisteak.
15:55: **El tiempo.**
16:00: **Sabor a ti.**
19:05: **Alta tension.** Constantino Romerok gidatutako lehiaketa.
20:00: **Los Simpson.** Marrazki bizidunak.
20:30: **Impacto Tv.**
21:00: **Noticias-2.** Albisteak.
21:50: **El tiempo.**
22:00: **Manos a la obra.** Telesaila.
00:35: **Arevalo y Cia.**
01:15: **Noticias.** Albisteak.
01:55: **Zinema.**
Camino del sur. Zuzendaria: Jack Nicholson. Aktoreak: Jack Nicholson, Mary Steenburgen, Christopher Lloyd. 1994.
03:50: **Televenta.**

T 5

05:45: **Avance de programación y espacios promocionales.**
06:00: **Informativos Telecinco.**
10:00: **Hart to Hart.** Telesaila.
11:00: **Cocina con fundamento.**
11:15: **Día a día.** Maria Teresa Camposek aurkeztutako saioa.
14:00: **El juego del euromillón.**
14:30: **Informativos Telecinco.** Albisteak.
15:25: **Al salir de clase.** Telesaila.
16:00: **Zinema.**
La desaparición de Vonnie. Zuzendaria: Graeme Campbell. Aktoreak: Ann Jillian, Joe Penny, Kim Zimmer, Graham Beckel. 1994.
18:00: **Diagnostico asesinato.** Telesaila.
19:00: **Siete en el paraiso.**
20:00: **El super.** Historias de todos los días.Telesaila.
20:30: **Informativos Telecinco.** Albisteak.
21:30: **Telecupón.**
21:35: **El informal.**
22:00: **Ally McBeal.** Telesaila.
00:00: **Crónicas marcianas.**
02:00: **Informativos Telecinco.** Albisteak.
02:45: **Infocomerciales.**
04:15: **Zinema.**
Que cosas tiene el amor. Zuzendaria: Germán Llorente. Aktoreak: Peret, Silvia Monti, Andres Pajares. 1970.
05:45: **La mujer prohibida.** Telesaila.

M 6

06:25: **Boulevard des clips.**
08:00: **M6 express.**
09:05: **M6 boutique.**
12:00: **Ma sorcière bien-aimée.**
12:35: **La petite Maison dans la prairie.**
13:30: **Telefilma.**
Les caprices de Samantha. Zuzendaria: Stephen La Rocque . Aktoreak: Martha Plimton Dermot Mulroney..
15:25: **Central park west.** *Faux depart.*
16:20: **Boulevard des clips.**
17:35: **Agence Acapulco.**
18:25: **Lois et Clark.** *destruction virtuelle.*
19:20: **Maries deux enfants.**
19:54: **6 minutes.**
20:00: **Mode 6.**
20:10: **Notre belle famille.**
20:40: **Passé simple .**

20:50
Monolithe.

John Eyresen telefilma.

22:35: **Zinema:**
Blackout. Zuzendaria: Douglas Hickox. Aktoreak: Richard Widmark, Keith Carradine.
00:20: **Frequenstar.**
01:20: **DJ d'une nuit.**
03:20: **Turbo.**
03:50: **Fan de.**
04:10: **Taj Mahal.**
05:35: **Plus vite que la musique.**

CANAL + (e)

07:01: **Factoria de modelos. Dokumentala.** 08:00: **CNN News.** 08:20: **Transworld Sport.** 09:10: **Lo + Plus.** 10:00: **Zinema: Atomica.** 11:40: **Zinema: Resultado final.** 13:15: **Piezas.** 13:30: **Los 40 principales.** 14:00: **Más deporte.** 14:55: **Noticias CNN+.** 15:00: **De repente Susan.** 15:30: **Dokumentala: 100 fotos del siglo XX.** 15:37: **Dokumentala: Niños prematuros.**16:25: **Zinema: La mujer del predicador.** 18:25: **Zinema: La ronda nocturna.** 20:00: **Dame un respiro .** 20:30: **Lo + Plus.** 21:30: **Noticias CNN+.** 22:00: **Zinema: Suerte.** 23:27: **Nuetro cine.** 01:21: **Zinema: La ultima cena.** 02:48: **Zinema:Agarrame esos fantasmas.** 04:35: **Zinema: Trinidad y Bambino (Tal para cual).**

CANAL + (f)

07:00: **Flash Info.** 07:05: **ABC News.** 07:25: **Le journal de l'emploi.** 07:30: **Teletubbies.** 07:55: **T.V. +** 09:00: **Zinema: Le dernier parrain.** 11:30: **Que personne ne bouge!.** 12:30: **Un autre journal.** 13:30: **Le journal de l'emploi.** 13:35: **Le journal du cinéma.** 13:55: **Zinema: The end of violence.** 15:55: **Le vrai journal.** 16:55: **Zinema: La fille d'en face.** 18:30: **Nulle part ailleurs.** 20:40: **Nuit Gore:** 03:35: **Izotz Hockeya.** 05:35: **Telefilma: Objectif clonage.**

LA CINQ

05:30: **Les amphis de la cinquième.** 06:25: **Méthode Victor.** 06:45: **Ça tourne Bromby.** 08:00: **Au nom de la loi (63/94).** 08:30: **Les ecrans du savoir.** 10:40: **Arrêt sur images.** 11:40: **Le monde des animaux.** 12:10: **La vie au quotidien.** 12:25: **Celulo.** 12:50: **100 % Question.** 13:15: **Tous sur orbite!** 13:30: **La vie au quotidien.** 13:45: **Le journal de la santé.** 14:00:**Secretes secretaires.** 14:30: **La cinquieme rencontre... Justice-Societe.**16:00: **P1= 3,14.** 16:30: **Correspondance pour l'europe.** 17:00: **Au nom de la loi (53/94).** 17:30: **100 % question.** 17:55: **Blue vortex, voyage au coeur d'un galcier.** 18:25: **Météo.** 18:30: **Le monde des animaux.**

ARTE

19:00: **Voyages, voyages.** 19:50: **Arte info.** 20:15: **Reportage geo.** 20:45:**Voyage au bout de la droite. Dokumentala.** 22:40: **Debat.** 23:00: **Zinema: Avoir la haine. Zuzendaria: Uwe Friesner.** 00:35: **Nous sommes le peuple.** 00:55: **Telefilma: Prise d'otages en direct (2/2).** 02:25: **Bob et Margaret.** 02:50: **Amaiera.**

telebista ◆ irratia

Bakero ETBko 'Sikofonia' saioan

ETB1 • 22:30etan

Jose Mari Bakero futbolari ohia izango da *Sikofonia* saioko gonbidatua. Bakerok egun partiduen kontakizuna egiten du telebistan.

ETB 1

06:40: **Bertatik Bertara.**
07:20: **Superbat.** Marrazki bizidunak eta telesailak. 'Superheroiak', 'Mamu harrapakariak', 'Reboot', 'Pottokiak', 'Martitzeko motosaguak', 'Sable zalduna eta izarretako sheriffak'.
09:40: **Axut.** Lehiaketa.
10:05: **Goenkale.** Telesaila. Errepikapena.
10:45: **Euskal Herritik.**
11:15: **Ikusgela.**
12:15: **Bertatik Bertara.**
12:55: **Iparraldearen orena.**
13:05: **Tom eta Jerry.** Marrazki bizidunak.
13:30: **Gaur egun.** Albistegia.
14:20: **Goenkale.**
14:55: **XXI.mendeko arka.** Dokumentala.
16:00: **Hamaika korapilo.**
17:45: **Superbat.** Ikusgela, 'Candy, Candy', 'Ninja Dortokak'.
19:05: **Supernet.**
19:20: **Euskaraokea.**
19:45: **Superrak.**
20:00: **Gaur egun.** Albistegia.
20:55: **ETB kirolak.**
21:05: **Bertatik Bertara.**
21:45: **Goenkale.**
22:30: **Sikofonia.** Gonbidatua: Jose Mari Bakero.
23:30: **Algara.**
00:30: **Bakarrik.**
02:00: **Baratze basatia.**
02:50: **Axut.**
03:20: **Nire bi aitak.**
03:45: **Hamaika korapilo.**
05:30: **Ikusgela.**
06:25: **Bizi giroak.**

ETB 2

07:50: **Empresa vasca.**
08:25: **Del pais de los vascos.** Dokumentala.
08:55: **Adderly.**
09:40: **Mis dos padres.**
10:05: **Forum.**
10:35: **Zinema.**
La historia de RoseMary Clooney. Zuzendaria: Jackie Cooper. Aktoreak: Sondra Locke, Tony Orlando. 1982.
12:10: **A mediodía.**
12:30: **La cocina de Pedro Subijana.**
12:45: **El comisionado.**
13:35: **La botica de la abuela.**
14:00: **Información territorial.** Albistegia.
14:28: **Teleberri.**
15:20: **ETB kirolak.**
15:50: **Lo que faltaba.**
18:20: **Matt Waters.**
19:10: **Pacific Blue.**
20:05: **Todo o nada.**
20:58: **Teleberri.**
22:00: **Zinema.**
Vaya par de idiotas. Zuzendaria: Peter Farrelly, Babby Fanaro. Aktoreak: Randy Quaid, Woody Harrelson.
00:10: **Zinema.**
Viento de otoño. Zuzendaria: Charles B. Pierce. Aktoreak: Jack Elan, Jeanette Nolan. 1985.
02:00: **Ruth Rendell.** Telesaila.
02:50: **Lo que faltaba.**
05:10: **Forum.** Errepikapena.
05:40: **Amaiera.**

gaurko filmak

Ane Muñoz

■ RAPIDO, CASEMONOS. Ginger Rogers aktore eta dantzari ahaztezinak William Marshall senarrarekin batera ekoitzitako abentura arina da, atsegina eta erraz ikustekoa. William Dieterle maisuak, kameraren atzetik, zuzen antolatu zituen planoak eta sekuentziak, bestelako lan nabarmenik lortu gabe. Rogers anderea da, noski, protagonista, Ray Milland izarraren alboan.

■ DRACULA. Coppolaren film fantastiko garesti honek, estreinatu aurretik, ikusmin handia sortu zuen, asko eta asko hitz egin baitzen hari buruz, eta horrexegatik, hain zuzen, ez gintuen ez harritu, ez ustekabean harrapatu, aretoetara iritsi zenean. Agindutakoa betetzen baitu, eta espero genuena eskaini. Istorioa ederki eratua dago, narrazioa bitxia da, eta eszenaratzea kuriosoa. Aktore talde bikain batek antzeztu izanak are erakargarriagoa egiten du filma. Jantzi ederrak, orrazkera eta makillajeak, diru eta baliabide askorekin eraikitako dekoratuak eta soinu banda landua, esate baterako, oso lagungarriak zaizkio azken emaitzari. Wynona Ryder eta Gary Oldman beldurgarria —Tom Waits abeslari handia tartean— dira zeluloide puska odoltsu aluzinagarri honetako izarrak *Dracula* honetan.

■ EN EL NOMBRE DEL PADRE. Jim Sheridan irlandarraren lanik ederrena da. Daniel Day-Lewis, Emma Thompson eta Pete Postlethwaite (*Tocando el viento*) modakoek antzezten dituzte rol nagusiak, aktore talde bikaina osatuz. Salaketa modura planteatutako drama politiko eta sozial gogorra da, oso interesgarria. Ipar Irlandako gazte batzuen bizitza erabat aldatuko da poliziaren eta justiziaren hankasartze gogor baten ondorioz kartzelatzen dituztenean. Sheridan irlandarrak, ikuspuntu errealista zenbait unetan efektismo exageratuarekin estaltzen badu ere, oro har oso eszena tragiko sinesgarriak filmatu ditu lan honetan.

ARTXIBOKOA

Randy Quaid, *Vaya par de idiotas* komedian.

Farrellitarrak, bikote zozoa baina jatorra

■ VAYA PAR DE IDIOTAS. Farrelli anaia eroek elkarrekin egindako lehen film luzea are eroagoa da. Woody Harrelson (*Asesinos natos*) eta Randy Quaid ezagunek protagonizatutako komedia basatia da. Nahikoa entretenigarria da, zuzendari horien *There´s Something About Mary* arrakastatsuaren mailara iristen ez bada ere. Dena den, Farrellitarrek Estatu Batuetako zinemagintza independentean txoko bat aurkitu dute jadanik, eta handik kanpo ere jarraitzaile ugari lortu dute, astakeriaz jositako film ausart horiekin. Peter Farrellik aurretik zuzendutako *Dos tontos muy tontos* komertzialaren tankerakoa da; anaiak gidoia idazten lagundu zion orduko hartan. Bill Murray aktorea, komedietan aditua, bigarren mailako rolean azaltzen da.

Asesinato en la universidad	1989, Christian Niby	♠♠ 10:25 A3
La historia de RoseMary Clooney	1982, Jackie Cooper	♠♠ 10:35 ETB2
El misterio de la joya	1991, Terry Marcel	♠♠ 11:00 La2
La desaparición de Vonnie	1994, Graeme Campell	♠♠ 16:00 T5
Scream	1996, Wes Craven	♠♠ 20:40 C+(f)
Neuf mois aussi	1995, Chris Columbus	♠♠ 20:55 F3
Vaya par de idiotas	P.Farrelly, B.Fanaro	♠♠♠ 22:00 ETB2
En nombre del padre	1993, Jim Sheridan	♠♠♠♠ 22:00 TVE1
Dracula	1992, Francis Ford Coppola	♠♠♠♠ 23:00 F2
2000 maniaques	1964, Hershell Gordon	♠♠♠ 23:20 C+(f)
Blackout	1985, Douglas Hickox	♠♠♠ 23:20 C+(f)
Viento de otoño	1985, Charles B.Pierce	♠♠ 00:10 ETB2
Camino del sur	1978, Jack Nicholson	♠♠ 01:55 A3
Harvard, movida americana	1986, Steve Miner	♠♠♠ 02:15 La2
Que cosas tiene el amor	1970, Germán Llorente	♠ 04:15 T5
Rápido, casémonos	1964, William Dieterle	♠♠♠ 02:45 La2
Mi guerra mundial	1988, Jenny Bowen	♠♠ 04:25 La2

♠ TXARRA · ♠♠ ESKASA · ♠♠♠ BALEKOA · ♠♠♠♠ ONA · ♠♠♠♠♠ BIKAINA

irratia ◆

Euskadi Irratia. *Goizean Behin* goizeko magazinaren barruan, tertulia ekonomikoa izango dute Karmelo Urdangarin, Joseba Garmendia, Joseba Barandiaran eta Eduardo Malagonekin, 08:45etatik aurrera. Hiru ordu laurden geroago, Martin Ibarbiari egingo diote eguneko galdera: «Gaur zer ibiliko duzu buruan?». 10:00etan, Jakoba Errekondok asteroko bisita egingo du, landareen inguruko guztiak kontatzeko asmotan. 10:30etan, heriotza zigorraz hitz egingo dute Amnesty Internationaleko kide batekin. Ordu laurden geroago, *Kontaiguzu zuk* lehiaketa hasiko da, eta, 11:00etako albistegiaren ostean, Andoni Egañaren esaldiaren eta esanaren txanda izango da. 11:15etan, Euskal Aktoreen Batasunak ematen dituen sarien irabazle zenbaitekin hitz egingo dute. 11:25ean, bestalde, Gaztea Sarien berri emango du Joxeina Etxeberria Euskadi Gaztea irratiko esatariak, gaur gauean banatuko baitituzte.

Arrate Irratia. Ohi bezala, 09:00etan Mutrikutik meza emango dute zuzenean. 11:15etan, berriz, Elgoibarko azokako berriak emango dituzte, eta, horren ondoren, elkarrizketen tartea izango da. Eguerdian, 12:20an, Zaldibar, Elgoibar eta Tolosako kronikak eskainiko dituzte. Iluntzean, 20:00etan, *Euskal Giroan* saioa hasiko da, eta, euskal musikaz eta herri kiroletako albisteez gainera, *Berriketan* tartean Txomin Garmendia izango da.

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE • Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI • Kontseilari Ordezkaria: IÑAKI URIA • Zuzendaria: MARTXELO OTAMENDI • Gerentea: FERNANDO FURUNDARENA • Publizitatea: IDOIA SANZ.
Egoitza Nagusia: Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain ✆ 943300222 / Erredakzioko faxa: 943300255-943590354 / Publizitateko faxa: 943300707 • Web gunea: www.egunkaria.com
• Posta elektronikoa: egunkaria@jalgi.com/ publizitatea: publi@egunkaria.jalgi.com

Egunkaria
Osteguna, 1999ko martxoaren 25a
X. urtea / 2.574. zenbakia

Batzorde Parekidea: 72564 E • Lege Gordailua: SS 800/90 I ISSN 1134-640X
OJDk IKUSKATURIKO HEDAPENA
Ordezkaritzak: • Araba: San Antonio, 20-1. ezker / 01005 Gasteiz / ✆ 945233872 / Faxa: 945233873 Publizitatea: ✆ 945131965 • Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) 31011 Iruñea / ✆ 948178078-79 / Faxa: 948178077 / ✆ Publizitatea: 948176686 • Bizkaia: Zabalburu Enparantza, 2-1.ezkerra / 48003 Bilbo / ✆ 944104046 / Faxa: 944103715 / ✆ Publizitate Orokorra: 944701199-80 / Publizitate Lokala: 944701114 • Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoa: Pannecau 14, 1/503 Posta kutxatila, 64100 Baiona / ✆ 559593575 / Faxa: 559257511

Baionako portuaren urtea

Urte osoan erakusketak eta ekitaldi ugari izanen dira haren inguruan

AURTEN Baionak portuaren urtea ospatuko du, Jean Grenet auzapezak adierazi duenaren arabera portuak garrantzi handia duelako hirian, garapen ekonomikoari dagokionez bereziki. Gainera, Merkataritza eta Industria Ganbera eskertu du, portuaren bultzatzeak duen «interes handia» ulertu duelako. Portuaren urtearen karietara, ekitaldi ugari izanen da, guti edo aski portuaren gaiari lotuak. Apirilaren 30a arte, argazki lehiaketa batean parte har daiteke. Gaia, noski, portua da. Hiru kategoria badira: profesionalentzat, 13 urtez gorako amaturrentzat eta 13 urtez beherako haurrentzat.

Ondoko hitzordu nagusia apirilaren 16an eta 17an iraganen da, Baionako portuaren iragana, orainaldia eta etorkizuna aipagai izanen dituen kongresua eginen baita Merkataritza eta Industria Ganberan. Raquel Garcia Arancon Nafarroako Unibertsitateko irakasleak 1242tik 1274 bitarteko Baiona eta Nafarroako erresuma aztertuko ditu. 1420tik 1578ra portuak izan zuen itzalgunea eta haren ondorioak ere aztertuko dituzte, baita oroitu ere Baionak Landesetako portuaren funtzioa bete zuela XVIII. mendean, beste hainbat ikuspegi historikoren artetik. Etorkizunari buruz Baionako portuarentzat aurreikusten diren estrategiak agertuko dituzte bigarren egunean.

> Apirilean Baionako portuaren iragana, orainaldia eta etorkizuna aipagai izanen dituen kongresua eginen da

BOB EDME

Baionako portuak hiriaren garapenean duen garrantzia azpimarratzea du helburu urte osorako prestatu den egitarau zabalak.

Erakusketaz erakusketa

Erakusketa andana bat antolatuko dute, eta horietarik lehena Euskal Erakustokian estrenaituko da, ekainaren 15ean. Barkuak, maketak eta Baionaren ikuspegi panoramikoa izanen dira erakusketa horren ardatz nagusiak. Irailetik aitzina, portuaren historiari buruzko erakusketa ezarriko dute Merkataritza Ganberan: alde batetik, erromatarren garaitik orain arteko historia aipatuko dute; bestetik, Baionako portuaren ibilmoldea eta ofizioak aurkeztuko dituzte; eta, azkenik, etorkizunari begira portuak beteko duen pisu ekonomikoa eta dituen proiektuak erakutsiko dituzte. Historia naturalen erakustokiak, berriz, nahiko erakusketa berezia eskainiko du udazkenetik aurrera. Portua sarrera gisa aurkeztuz, garai bateko espedizioetatik ekarri landare edo abereak aurkeztuko dituzte. Espedizio horiek egin zituzten itsasgizonak izanen dituzte aipagai, hitzaldi, film eta bisiten bitartez.

Udan, Atalante zinema gelak ekitaldi berezia eskainiko du portuaren hegian, kanpoan eginen baitu film emanaldi bat, portuaren urtearen karietara: *Le Corsaire Rouge* filma ikusten ahalko da. Film ospetsu hori Burt Lancaster-ekilakoa da. Ez da lehen urtea horrelako proiekzioak egiten dituena Atalante zinemak, baina bai portuan izanen den lehen aldia.

Lehiaketekin hasi eta lehiaketekin bukatzeko, margolaritza eta marrazki lehiaketak izanen dira udazkenean. Lehenaren helburua kreazio artistikoaren bultzatzea da; bigarrena, berriz, Baionako haurrei zuzendua zaie.

Eneko Bidegain
BAIONA

kasu!

2.500 kilo txakur kaka

Bazter guztiak daude txakur kakaz beteta. Lasai ederrean paseoan zabiltzala, plast! horietako bat zapaltzea baino gauza nazkagarriagorik ez dago. Bada, Gasteizen hori gertatzeko arriskua oso da handia, aste bakar batean garbitzaileek 2.500 kilo txakur kaka bildu izan baitute. Egoera hori konpondu nahirik, Udalak kanpaina zorrotza jarriko du martxan: indarrean den araudiaren berri ematen duten eskuorriak banatuko ditu, eta, gero, kakak jasotzeko zorro bereziak banatuko ditu. Hala egin ezean, isun gogorrak jarriko dizkiete txakur-jabeei.

Zikoinei ongi etorria

Udazkena eta negua Afrika epelean igaro ostean, zikoinak itzuli dira jada gure artera. Iruñeko San Frantzisko elizako dorrean, esate baterako, jada egin dute euren habia. Haien jarduera gertutik ikusi ahal izateko Gurelur talde ekologistak behatokia jarriko du bihartik aurrera Blanka Nafarroakoaren enparantzan.

Garagardoak hainbat gaitzen arriskua gutxitzen du

Espainiako Elikagaien Teknologiaren Institutuak egindako azterketaren arabera, garagardoa ona da hainbat gaitz prebenitzeko, besteak beste, anemia, koloneko minbizia eta kolesterola.Institutu horrek dioenez, garagardoak B taldeko bitamina ugari ditu, baita fosforo eta silizio mineralak ere.

▼ gari garaialde

barkatu ama

Literatura gazteak

baditu milaka aurpegi

▲ gari garaialde

aste honetan

Gazte Irratia Gure Irratian · **Sepultura eta Anthrax** · **Alain Michel**

EGI gazte erakundearen kanpaldia Zestoan asteburuan.



Egi Eguna Zestoan

Egi Eguna ospatuko dute Zestoan asteburu honetanHala, bihar 20:00etan Ikurrinaren igoerarekin emango diote hasiera kanpaldiari. 23:00etan, berriz, dantzaldia egongo da Basakabi taldearekin.

Larunbat goizean paella erraldoia prestatu eta kale antzerkia egongo da. Arratsaldean, berriz, hitzaldiak eskainiko dituzte 17:00etatik aurrera. Kurdistani buruzkoa izango da lehen hitzaldia eta Faru, Kurdoen Asanbladako ordezkaria eta Xabier Ormaetxea legebiltzarkidea izango dira hizlariak . Beranduago Joseba Egibarrek eta Juan Mari Juaristik *Euskal herriko egungo egoera politikoa* hitzaldia eskainiko dute. Gauean Cover Company taldearen kontzertua izango da. Igandeko ekitaldi politikoarekin itxiko dute kanpaldia. Xabier Arzalluz eta Joseba Egibar izango dira bertan.

Bekak

Film luzeetarako gidoiak egiteko laguntzak ■ Zinemarako gidoiak egiteko diru laguntzak eskatzeko epea zabaldu du Espainiako Kultura eta Hezkuntza Ministerioak. Edozeinek egin dezake eskaria. Laguntza 2.000.000 pezetakoa izango da, eta eskaerak apirilaren 2a baino lehen aurkeztu behar dira. Informazio gehiago Espainiako Buletin Ofizialean aurki daiteke.

Bideoa ■ Nafarroa. Film laburrak eta bideo lanak egiteko laguntzak emateko bekak abian jarri ditu Nafarroako Gobernuak. Filmek 35 mm-tan edo bideoan eginak izan behar dute eta gehienez 30 minutukoak. Eskaerak hilaren 31 baino lehen egin behar dira. 99-02-17ko Nafarroako Buletinean dago informazioa.

Ikastaroak

Bideoa-Dantza tailerra ■ Loiola (Donostia). Bideo esperientzia duten eta mugimendua eta dantza interesatzen zaien bideo egileentzako ikastaroa da hau. Iñigo Garridok emango du, Oak´s Bark Aims-eko zuzendari artistikoak. Alde praktikoa eta teorikoa izango ditu tailerrak, eta apirilaren 12tik 25era iraungo du, astelehenetik ostiralera, Artelekun. Tailerraren iraupena 45 ordukoa da eta 18.500 pezeta kostatzen da (740 libera inguru). Izen ematea, ondoko zenbakiotan: 943 280178 edo 943 493440 (adeshoras@hotmail.com)

Erakusketak

Argazkiak ■ Bilbo. Bilboko Espacio de los Mundos tabernan, Luis Mirandaren argazkiak izango dira ikusgai apirilaren 6a bitartean. *Naturaleza oculta* (Natura ezkutua) da erakusketaren izenburua.

Margoa ■ Irun. Santi Almandoz margolariaren lanak ikusgai jarri dituzte Kabigorri Ateneoan. Martxoaren 31 bitartean zabalik izango da erakusketa.

Jardunaldiak

Euskal Gatazka Nazionala ■ Irun. Kabigorri Ateneoak jardunaldiak antolatu ditu larunbat honetarako. Hala, etzi, martxoak 27an, hitzaldiak izango dira Javier Villanueva idazle eta ikerlariaren eskutik. Hiru hitzaldi izango dira goizeko 10etatik aurrera. Lehena *Protagonista nagusiak* izeneko hitzaldia. Bigarrena, *Egungo euskal gatazkari buruzko kartografia*, eta hirugarrena, *Euskal eraikuntza nazionala*.

Hitzaldiak

Emakumea mitologian ■ Bilbo. Egunotan Bilboko Likiniano gunean egiten ari den *Goi-andereen itzulia* zikloaren barruan, Anuntzi Aranak *Emakumeak euskal mitologian* izeneko hitzaldia eskainiko du gaur, iluntzeko 20:00etan.

Komando Autonomoak ■ Zaldibar. DDTren Durangaldeko taldearen aurkezpena egiten ari dira egunotan Zaldibarren, eta horren *barruan Komando autonomoak: una historia anticapitalista* liburua aurkeztuko dute bihar, arratsaldeko 19:30etan, Katuetxen.

Hitzorduak

Marrazki-ipuin kontaketa ■ Usurbil. Korrika 11ren emanaldien barruan, Ixabel Agirresarobek eta Egunkariako Mattin komikigileak Marrazki-ipuin kontaketa eskainiko dute gaur Usurbilgo Txiriboga tabernan, gaueko 22:00etan.

Kultur errota ■ Elgoibar. Kultur Errota egitasmoaren barruan, hurrengo larunbatean, hilak 27, Iñaki Salvador, Jexus Artze eta Kirikoketa taldea Elgoibarko kultur etxeko sotoan izango dira. Iñaki Salvadorrek pianoarekin eta Kirikoketa taldeak txalapartarekin, euskal musika tradizionalaren irakurketa librea eskainiko dute. Ondoren, Mai Gorostiaga antzezleak, berriz, *Euskaldun berri baten bizipenak* monologoa eskainiko du. Emanaldia 22:30etan hasiko da eta 500 pezeta balioko du (kafea, pastak eta kopatxoa barne).

Kubari buruzko bideo-dokumentala ■ Bilbo. *Cuba en trova* izeneko bideo-dokumentalaren aurkezpena egingo dute Joseba Maciasek eta Juanjo Elordik bihar, ostirala, arratsaldeko 20:00etan Bilboko Hikaateneoan (Iberri kalea, 1). Ondoren musika, janedanak eta giro kubatarra izango dira.

Bertso-saioak

Bertso trama ■ Soraluze. *Bertso trama* izeneko saioa gero eta toki gehiagotara zabaltzen ari dira Unai Iturriaga, Igor Elortza, Jon Maia eta Josu Goikoetxea gidoilaria. Gaur bertan Soraluzeko Gaztelupe tabernan aurkeztuko dute, gaueko 22:00etan.

Mahai-inguruak

Disidenteak betiko ■ Iruñea. *Disidenteak betiko* fanzinearen arduradunek mahai-ingurua prestatu dute gaur arratsalderako. Jakue Pascual soziologoaz gain, Esan Ozenkiko eta DDT-Banaketak-eko kideek hartuko dute parte. Mahai-ingurua Txantreako Auzotegin izango da 19:30etan.

Internet en irristatzen

jabi zabala

irristatzen@egunkaria.jalgi.com

Kontrainformazioa sarean

Berripaper alternatibo asko Interneten ere agertzen dira

Sarean dauden komunikabide handien ondoan bada komunikabide alternatiborik. Bertatik kanpo gertatzen den moduan, baliabide urriagoak eta hedapen murritzagoa dute buletin edo berripaper hauek, baina sarean argitaratzeak bere abantailak baditu: printzipioz antzeko hedapena izan dezakete, mundu osokoa, eta ale kopuru mugagabea. Banaketan ere ez da lan handia egin behar, paperezko buletinak direnean ez bezala, eta informazioa jasotzeko e-posta bide erraza da.

Berripaper hauek ideia libertarioekin bat datoz gehienetan, eta horregatik informazioan ere eredu horizontala ezartzearen aldekoak dira. UPA agentziak Madrilen editatzen duen *Molotov* buletinaren azalpenak dioenez, informazioa norabide bitan mugitzean datza masa komunikabide handiekiko ezberdintasuna.

Molotov-en, besteak beste, lan eta gizarte gaiak, antifaxismoa, kartzelak, mobilizazioak eta deialdiak agertzen dira. Aragoi aldetik, *Aragon Info* argitaratzen dute, oso aktiboa. Asturiasen *Llar* eta Katalunian *Per Tots Els Mitjans* daude, baina ez daude azken aldion oso eguneratuta. Bartzelonako *Usurpa*-k okupen gaineko berriak biltzen ditu. Gurean *Eztanda*-ren gunea eta *Ekintza Zuzena* aldizkariarena aipa daitezke.

Helbideak interesgarriak:

- **Boletin Molotov** http://www.nodo50.org/lucha-autonoma/molohome.htm
- **Aragon info** http://www.tao.ca/~csl/index.html
- **Usurpa** http://personal.redestb.es/gurmanyach/usurpa.htm
- **Eztanda** http://www.geocities.com/CapitolHill/3793/
- **Ekintza zuzena** http://personal.redestb.es/cbarona/inicio.html
- **Llar Asturies** http://www.uv.es/~jordi/llar
- **Per tots els mitjans** http://www.fightgrafics.com/ptem/

Gure Irratia, Gazte irratia

Baionako Gure Irratiak hats berria eman nahi die bere emankizunei azken denbora hauetan ● Entzule gazteen hunkitzeko saio batzuk abiatu zituzten duela zenbait hilabete, eta orain *Gazte irratia* sail bat badagoela ukaezina da ● Alabaina, orain, arrats guziz, 20:00etatik 22:00etara, gazteentzat zuzenduak diren emankizunak egiten dituzte, eta iduri luke beren helburua lortzen ari direla.

▲ kepa etxandi

Asteko egitaraua

Hona zein diren Gure Irratian gazteentzako saioak, arrats guziz, 20:00etatik 22:00etara.

- **Astelehena.**
  Herri topa: musika internazionalista, gomitak, eztabaidak, herrien aktualitate soziopolitikoa, talde internazionalistak.
- **Asteartea.**
  Uhain xaplasta: emankizun musikala (punk, hardcore, noise, indus)
  Euskal Herria Zuzenean: hilabeteko lehen asteartean.
- **Asteazkena.**
  Kalamua: emankizun musikala (reggae, dub, ska, ragga)
- **Osteguna.**
  O Zenbakia: munduko musika eta tertulia (zinema kritika, literatura)
- **Ostirala**
  Erne: euskal musika, gomitak, kontzertuetarako txartelak irabazteko jokoak, hitzorduak.
- **Larunbata**
  Txakurrok: emankizun musikala, bertsolaritza, eztabaidak, kantu eskaintzak, txisteak.
- **Igandea**
  Metal oihua: emankizun musikala (heavy, trash, death, techno-trash).

eneko bidegain

Gazte irratia sail hori ez zen egun batetik bestera egin. Hastapenean, ostiral arratsetako emankizun bat izan zen: *Erne* saioa. Gazteei zuzendua zitzaien, ordu pare batez. Baina emankizun horrek ere baditu bere *arbasoak*. Lehenago, duela zenbait urte, gazte talde batek *Txakurrock* saioa egiten zuen. Emankizun horrekin entzuleria gaztea lortu zuten, eta horren berreskuratzeko hasi ziren *Erne* emititzen, ohartzen baitziren gazteek ez zutela entzuten Gure Irratia.

Geroztik urak egin du bide, eta, astean arrats batez emititzeko ordez, gazteentzat arrats guziz egiten dituzte emankizun bereziak. Eta arrats bakoitzak badu bere nortasuna. Batez ere, musikak betetzen ditu arrats horietako minutu gehienak. Baina gau bakoitzean musika ezberdinak pausatzen dituzte. Horrela, Gorka Torre emankizun horien koordinatzaileak azaldu digunez, entzuleen artean emankizun horietarik baten bederen entzuteko ohitura sor dadin nahi dute.

Baina musika ez da emankizun horien helburu bakarra. Gazteak hunkitzen dituzten hainbat gai jorratzeko ere baliatzen dituzte Gure Irratiaren uhinak. Zinema kritikak, literatura, antzerkia eta abar aipatzen dituzte. Elkarrizketa ugari ere eskaintzen dute gazteen lan baldintzei buruz, euskarari buruz, bidaiei buruz. Esaterako, hiesari eta toxikomaniari buruzko emankizun berezi bat izan berri da. Azken asteetan, esperientzia berri bat badute eginik bertsolaritzarekin: *Bertsozirika* jokoaren bidez, Iparraldeko gazteei bertsolaritza ezagutarazteko xedea zuen Gure Irratiak.

Irratiak gazte ekimenen aldeko tresna izan nahi du

Gazte irratia-ren helburua ez da euskaldun gazteei bakarrik zuzentzea. Euskararik ez dakiten gazteak ere erakarri nahi dituzte musikaren bidez, gisa horretan erakutsiz badirela euskaraz bizi diren gazteak. Eta, emankizun horien inguruan, propaganda lan berezia egiten ari dira, Iparraldeko besta eta lizeo gehienetan plaketa elebidunak banatzen baitituzte. Gorka Torrek orain artekoaren bilan baikorra egin du. Zenbait gauez Gure Irratia pizteko ohitura gero eta gazte gehiagok dutela dio. Hori bide egokia da, haren ustez, Gure Irratiko beste emankizunak ere entzuteko, beste orduetan. Baina oraino askoz gehiago egin behar dela pentsatzen du, helburua gazteen baitan erreferentzia bilakatzea baita.

Bestalde, *Gazte irratiak* gazte ekimenen aldeko tresna bat izan nahi du, haiekin elkarlanean.

Irrati saio horien inguruan dinamika berri bat sortu da Lapurdiko irratian. Hamalau bat parte hartzailek molde egonkorrean segurtatzen dute saio horien iraupena. Orotara, hogei bat laguntzaile dira, eta erran gabe doa laguntzaile guztiak urririk ari direla lanean. Gazteen erakartzeko xedea arratseko saioetatik urrunago doala ere erran daiteke, egun osoan lanean ari diren animatzaile eta berriketarietan gero eta gazte gehiago baita.

▼ François Truffaut zinemagilearen *Les 400 coups* filma da *Nouvelle Vague* mugimenduko filmik ezagunena.

Uhin berriaren 40. kolpea

Nouvelle Vague mugimenduaren eragina ezinbestekoa izan da mundu osoko zinemagileendako. 40 urte iragan dira, eta Chabrol, Resnais, Rohmer eta Godard zaharren zinemak gazterik dirau oraindik

iñaki lazkano

Gazteak ziren. Erromantikoak. Berrogeita hamarreko hamarkadan Frantzian nagusi zen *qualite*-ko zinemari gorroto zioten, eta aldarrikatzen zituzten ideia berrien bitartez zinema irauli nahi zuten. Euren artean oso ezberdinak izan arren, *Nouvelle Vague* izenarekin bataiatu zituzten sasoi hartan sortutako zinemagile berritzaile guztiak.

Andre Bazin-ek zuzentzen zuen *Cahiers du Cinéma* zinema aldizkari prestijiotsuko kritikari gazteak izan ziren *Nouvelle Vague* mugimenduaren muina. Zinema kritikari izatetik zinegile izatera igaro ziren. 1959. urtean, Cannesko Zinemaldian, hasi zen iraultza. Bertan, François Truffaut gazteak zuzendari onenaren saria jaso zuen *Les 400 coups* filmarengatik. Alain Resnaisen *Hiroshima mon amour* lanak aipatu zinemaldian kritikaren saria erdiesteaz gain, mundu guztia zur eta lur utzi zuen. Claude Chabrolen *Les Cousins* filmak, berriz, Berlingo Urrezko Hartza bereganatu zuen.

Cahiers du Cinéma aldizkarian bildutako zinemagile gazteen artean bi joera nagusi bezain kontrajarri topa zitezkeen. Talde esanguratsuenean François Truffaut, Claude Chabrol, Jean-Luc Godard, Jacques Rivette eta Eric Rohmer zeuden, eta bestean, berriz, Alain Resnais eta Agnes Varda nabarmen ditzakegu. Lehen taldea osatzen zutenek Howard Hawks, Alfred Hitchcock eta zinema amerikar berria zuten maite. Alain Resnais eta besteak postmodernoagoak ziren, eta zinema amerikarrak liluratutako kideak konformistatzat zituzten. *Cahiers du Cinéma* aldizkariaren magalean hazi ez zen zinemagile garrantzitsurik ere bazen *Nouvelle Vague* mugimenduaren barnean. Louise Malle, kasu.

Haustura, gai berriak eta inkonformismoa

Nouvelle Vague mugimenduko kideek hamaika maisulan sortu zituzten. Horien artean, aipatutakoez gain, *A bout de souffle* (Jean-Luc Godard), *L'année dernière à Marienbad* (Alain Resnais), *Jules et Jim* (François Truffaut), *Le Genou de Claire* (Eric Rohmer) eta *Le Boucher* (Claude Chabrol) azpimarra daitezke.

*Nouvelle Vague*ko kideek *egile zinema*-ren aldeko hautua egin zuten hasiera-hasieratik. Konbentzionalismoekin apurtu eta zinemaren beraren hizkuntza garatzen ahalegindu ziren. Muntaiak filmetan zuen eragina ahalik eta gehien saihestuz, naturalismoaren aldeko apustua egin zuten hastapenetan. *Nouvelle Vague*-k mundua aldatu ez zuen arren, zinema ulertzeko era iraultzea lortu zuen. Gaia berriak proposatu zituzten zinemagile gazteek euren filmen bitartez. Hala, haurtzaro gordinak, ezarritako erakunde tradizionalak apurtzen zituzten desoreka eta krisi emozionalak, gazteriaren izaera konformagaitza, konpromiso ideologikoa eta zinema ulertzeko modu berri bat nagusitu ziren *Nouvelle Vague*-ren zigilua zuten zeluloide matxinoetan. *Nouvelle Vague*-ren sorreratik berrogei urte bete diren honetan, uhin berriaren urek oraindik ere bustitzen dute amerikar turismoak kutsatutako hondartzetako harea idorra.

eskETXAK



▲ Karra Elejalde, kamera aurrean zein atzean.

Karra Elejalde zuzendari Karra Elejalde eta Fernando Guillen Cuervo aktoreek *Año Mariano 1999* filma zuzenduko dute. Komedia surrealista horren grabazioa hurrengo hilean hasiko omen da. Zuzendari biak, kameraren atzean ez ezik, aurrean ere jarriko dira. Karra Elejaldek merkatari mozkorti eta liskarti baten rola beteko du. *Año Mariano 1999* amaitu ostean, Alfonso Ungria zuzendariak errodatuko duen film berrian hartuko du parte. Lanik ez zaio falta behintzat.

Lorca, La Fura dels Baus-en arabera Donostiako Victoria Eugenia antzokiak La Fura dels Baus antzerki talde berritzailearen *Ombra* ikuskizuna eskainiko du bihar eta etzi, arratsaldeko zortzietan. La Fura del Baus-ek literatura, antzerkia, dantza eta musika uztartzen dituen ikuskizun erakargarri bat osatzen du *Ombra* interesgarrian. Ikuskizun horretan Federico Garcia Lorca olerkari andaluziarra da muina. Lorcaren giza nortasuna biluzten digute La Fura del Baus taldeko kideek bideoaren narrazio bisuala, poetaren olerkiak, blues musikaren esanahi sakona eta flamenkoaren sentimendua nahasiz.

Kurosawaren azken gidoia film bihurtuko da Takashi Koizumik, Akira Kurosawaren zuzendaritza laguntzaile izandakoak, Japoniako zuzendari handienak hil aurretik idatzitako gidoia zinemara eramanen du aurki. *Ame agaru* izena hartuko du film horrek, eta samuraien istorio berri bat izanen du ardatz. Bertan, Akira Terau aktoreak beteko du prota-

Vacilus

Diruaren usainean

Irteerarik gabeko kale batean bizi diren 3 eskaleren istorioa da Vacilus. Behin, batek herentzia bat jasotzen du. Egun batetik bestera aberats bihurtzen dira eta beren barrenean lo egon diren ametsak iratzarri egiten dira.

ainhoa irazu

Vacilus La Burla eta Yu-yu taldeen koprodukzio bat da. Taldeok arduratu dira antzezlana goitik behera egiteaz: gidoia, eszenografia, musika, argiztatzea, jantziak.... Lan txukuna egin dute *troupe* horietako partaideek.

Istorioa kale batean kokatzen da. Farola bat, sare bat, pixa-potea eta hiruzpalau zabor ontzi beltz baino ez daude bertan. Hantxe ematen dute eguna zein gaua gure protagonistek: Belinda Pufok (Paki Caballero), Truko Cabronek (Iñaki Puga) eta Kalek (Inma Irazustabarrena). Hantxe egiten dute amets, hantxe kaka.

Vacilus komedia bat da; «absurdoa, baina ez arraro horietakoa», esan digu Javi Alonso gidoiaren egile eta aktoreen zuzendariak. Antzezlanari ipuinaren egitura eman nahi izan dio egileak. Diruaren boterea du hizpide.

«Pertsonek dirua tartean dagoenean egiten dituzten tontakeriez mintzo gara. Diruak gauza askoren gainetik agintzen du: harremanen eta lagunen gainetik, moral ororen gainetik... Gizakiak diruarekin eraiki egiten duela uste du. Egia da eraki ohi duela, baina bere burua eta beste hainbat gauza suntsitzearen truke. Hori izango litzateke antzezlanaren mamia; baina ez hori bakarrik».

Pertsonaiak bitxiak dira, eta karikaturetako pertsonaiekin zerikusi handia dute. Kal esaterako, ez da emakume ez gizon. «Anbiguitatea eman nahi izan diogu. Gizon batek bezala hitz egiten du baina emakumeak bezala ibiltzen da», dioskue.

Testuei dagokienez, barregarriak eta zirikatzaileak dira. Ikusleak sinestu egiten du ikusten eta entzuten duena errealitatearen isla delako, egunerokoaren isla. Berari ere nozbait gertatu zaio antzeko zerbait.

Yuyu eta La burla

Yu-yu eta La burla emociones escénicas taldeentzat *Vacilus* ez da lehendabiziko ekoizpena. Yu-yuko Pakik eta Milak, esaterako, kafeantzerkian eskarmentu handia dute *El komplot* lanarekin. La Burlako Javi Alonsok, Javi Corerak eta Lucia Ocariz argi teknikariak, gainera, musika, antzerki eta zine saiakera zenbait egin dituzte. Nahia ere dantza kontutan jarduna da. Guztiak Euskal Herriko antzerki amateurraren munduan dabiltzan gazte ipurterreak dira. Beltz ikusten dute, baina, antzerki amateurraren geroa. «Antzerki amateurrari ez zaio garrantzirik ematen. Horren alde apustu egin behar da. Hortaz, antzerkia antolatzeko orduan programatzaileek ez liokete diruari erreparatu behar. Antzerkiak babesa behar du. Bada hasi berria den jendea, eta jende horri aukera bat eman behar zaio», esan digu Pakik.

Vacilus Saroben estreinatu zuten joan den udan, eta oraingoz emankizun gehiegi egin ez badituzte ere, gogoz dabiltzala dirudi. «Beste antzezlan bat idazten ari naiz. Udazkenerako estreinatzea nahi nuke. Berez, trilogia bat izango da. *Vacilus* lehendabiziko zatia da. Orain bigarren zatiarekin ari naiz», esan digu Javi Alonsok.

Etorkizunerako proiektuak behintzat ez zaizkie falta.

gonistaren rola. Takeshi Kitano zuzendari apartak ere paper txiki bat izanen du Koizumiren film berrian.

Guediguianen azken proiektuak Robert Guediguian zuzendari frantziarrak, *Marius et Jeannete* filmaren egile ezagunak, bi proiektu ditu urte honetarako. *La ville est tranquille* film beltza da gauzatuko duen lehen proiektua. Horretaz gain, *A l´attaque* izeneko komedia bat ere zuzentzeko asmoa du. Ohi duen legez, Marseillan kokatuko ditu film biak, eta ohiko aktoreekin lan egiteko asmoa du.

Kafe-Antzokia antzerkiaz blai Antzerki aukera oparoa eskaintzen du aste honetan Bilboko Kafe-Antzokiak. Gaur, esaterako, Hika taldeak *Arrautza delikatuak* antzezlana eskainiko du. Bihar, berriz, Ander Lipus-ek *Mis rarezas dirías tú* ikuskizun berritzailea aurkeztuko du. Antzezlan hori Ander Lipusen *Anderground* trilogiaren azken partea dugu. Egungo gizartearen kritika dakarkigun komedia da *Mis rarezas dirías tú*. Larunbatean, azkenik, Antzerkiaren Nazioarteko Eguna ospatzeko, Gaitzerdi taldeak *Giro-bira* obra ekarriko digu; abanguardiaren eta antzerki totalaren artean kulunkatzen den ikuskizuna.

Ander Lipus edo antzerkia ulertzeko beste era bat. ▼

ANTZERKIA

Las últimas lunas ■ (Entrecajas-Galiardo). Gaur eta bihar, Bilboko Arriaga antzokian, 20:00etan. Larunbatean, 19:30etan eta 22:30etan. Igandean, 19:00etan.

La maldición de Poe ■ (Corsario). Gaur, Donostiko Lugaritzen, 20:30etan.

El hombre elefante ■ (Strion). Gaur, Gasteizko Principal antzokian, 20:30etan. Bihar eta larunbatean, Barakaldo Antzokian, 20:30etan. Igandean, 20:00etan.

Nerudaren postaria ■ (Maskarada). Gaur, Miarritzeko Colisée-n, 21:00etan.

Arrautza delikatuak ■ (Hika). Gaur, Bilboko Kafe Antzokian, 20:30etan.

Mis rarezas dirias tú ■ (Ander Lipus). Bihar, Bilboko Kafe Antzokian, 22:30etan.

Ombra ■ (La Fura dels Baus). Bihar eta etzi, Donostiko Victoria Eugenia antzokian, 20:00etan.

Izarretako Bitakora. ■ Bihar, Ordiziko Herri Antzokian, 22:15etan.

Dakota ■ (Tanttaka). Bihar, Debako Zunbeltzu antzokian, 22:00etan.

El Castillo ■ (La Chusma). Bihar, etzi eta igandean, Bilboko Mina Espazioan, 20:00etan.

Giro-bira ■ (Gaitzerdi). Larunbatean, Bilboko Kafe Antzokian, 20:00etan.

DANTZA

Kiev-eko Operako Ballet eta Orkestra ■ Asteartean eta asteazkenean, Donostiko Victoria Eugenia antzokian, 20:00etan.

ZINEMA

El trono de sangre ■ (Zuz: Akira Kurosawa). Gaur, Beasaingo Usurbe antzokian, 21:00etan.

El muro ■ (Zuz: Alan Parker). Gaur, Iruñeako Golemetan, 22:30etan.

Marius y Jeannete ■ (Zuz: Robert Guediguian). Bihar, Irungo Amaia Kultur Zentroan, 20:00etan.

El espejo (Zuz: Jafar Panahi) + **Amor de madre** ■ Asteartean, Bilboko El Carmen aretoan, 19:45etan.

Los amantes crucificados ■ (Zuz: Kenji Mizoguchi). Asteazkenean, Donostiko Antzoki Zaharrean, 20:15etan.

▼ gari garaialde

Ezkerretik eskuinera, Jon Garate, Jasone Osoro, Iñigo Otaño, Unai Villena eta Jon Eugi, Urruzuno taldeko kideak.

Oker dabil Euskal Herrian literaturak ez duela ondorengorik esaten duena oker dabil Idaztea gutxi batzuen kontua dela baieztatzen duena ere oker dabil Gazteek ez dutela sormenik diotena ere oker dabiltza Oker dabil literatura gaztea ezkutuan dagoela esaten duena Izan ere, badira idazle gazteak, eta horren adibide pare bat ekarri nahi izan ditu **Barkatu ama**-k ondoko lerrootara: Vladimir eta Urruzuno.

Literaturaren

ane sarasketa

Ondoko argazkietan ageri diren gazteak idazleak dira. Batzuk ezagunak, beste batzuk ez hain ezagunak, baina idazleak guztiak ere. Horrek batzen ditu: literaturarako zaletasuna. Baina, bestalde, bi taldeak literaturaren zabaltasunean kokatuz gero, bi aurpegi oso ezberdin erakusten dituzte. Vladimir taldeak filosofia eta ideologia jakin bat du, eta hori ardatz dutela, hilabetero beren aldizkaria kaleratzen dute: *Vladimir*. Urruzuno taldeko kideek, berriz, *Hamaika Litera* izeneko aldizkaria sortu berri dute. Lehen alea kalean da dagoeneko, eta ideologia eta filosofiarik gabeko taldea eta aldizkaria da elgoibartar horiena.

«Idazle gazteen taldeak badira Euskal Herrian»

Pedro Migel Urruzuno idazlea hil zela 75 urte bete ziren iaz. Urteurren hori aukeratu zuten Elgoibarko zenbait gaztek literatur talde bat osatzeko: Jon Garatek, Mikel Artolak, Unai Villenak, Iñigo Otañok, Jasone Osorok eta Jon Eugik.

Hala, Elgoibarko Izarra euskara elkartearen barruan sortu zen literatura gaztearen harrobi txikia. Orain, hilabete gutxi batzuk bete berri dituenean, aldizkari bat kaleratu du Urruzuno taldeak: *Hamaika Litera*.

Belaunaldi ezberdinetakoak dira Urruzunoko kideak, baina guztiek idaztea dute gustuko, eta horrek lotzen ditu. «Taldean ez dugu ardatzik, filosofiarik edo ideologiarik. Sentitzen duguna idazten dugu, ez dugu inolako mugarik edo eredurik», diote. Orain, uda bitartean badute lanik: atera berri den aldizkariaren bigarren zenbakia prestatzea alegia.

'Hamaika Litera', jateko pintxo bat

Hamaika Litera-k formatu berezia du. «Euskara elkarte baten barruan gaudenez, aurrekontu bat dugu, eta horrek aukerak ematen dizkigu produktu txukuna kaleratzeko. Azken finean argi genuen jendeari erakargarria egingo zaion zerbait nahi genuela», adierazi du Jasone Osorok.

Lau mila ale banatu zituzten lehenengo aldian, baina bigarren alea bazkide egiten direnek bakarrik jasoko dute, doan. Bazkide egiteko ondoko zenbakietara deitzea besterik ez dago: 64 41 12 edo 74 16 26. «Literatura gastronomia balitz, *Hamaika Litera* pintxo bat izango litzateke. Ea jendeak pintxo bat jaten duen eta gero beste bat, hala literatura jatera ohitzeko gero», esan dute.

> «guk konpromiso bat hartu dugu, eta konpromiso horrekin idazten jarraitzen dugu»

Orain abian dira berriro Urruzunoko kideak; izan ere, gaur hitzaldia antolatu dute Elgoibarko kultur etxean. Ana Irigoienek Frida Kahlori buruzko solasaldia eta diapositibak eskainiko ditu, 19:00etan. Bestalde, hasi dira prestatzen *Hamaika Litera* aldizkariaren bigarren alea; izan ere, urtaro bakoitzeko zenbaki berri bat eman nahi baitute argitara.

Literaturak esfortzua eskatzen duela diote sei kideek, baina horretarako prest agertu dira. Unairen esanetan, Urruzuno taldea sortu zutenean eurentzako sortu zuten. «*Hamaika Litera*-rekin ere gure lanak bideratzea lortu nahi dugu. Ez dakit lortuko dugun literatura suspertzea herrian eta kanpoan, baina guk konpromiso bat hartu dugu, eta konpromiso horrekin idazten jarraitzen dugu. Gure lanek badute nonbait agertzeko aukera. Aukera hau izango ez bagenu, seguru asko, gutako batzuek ez genuke idazten jarraituko», esan du.

Amaitu aurretik zera galdetu diegu: «Zergatik daude idazle gazteen hain talde gutxi? «Ez dira hain gutxi», esan dute ia une berean. «Euskal Herria moduko lurralde txiki batentzako nahiko talde daudela esango nuke nik», dio Jon Eugik, seguru.

«Gainera, gero eta liburu gehiago argitaratzen dira, beraz merkatua badagoela dirudi», gehitu du Jasonek. Belaunaldien katea ez da hautsi beraz. Izango dira euskal idazleak etorkizunean.

Ezkerretik eskuinera Garikoitz Berasaluze, Jurgi Olaizola, Gurrutxaga eta Ekaitz Berasaluze Vladimir taldeko kideak.

▲ gari garaialde

bezidor berriak

maika *Litera*-ren lehen alean aleratutako poesietako bat duzue ondorengo:

Kaoba

Hautsa kaobaz tindatuko nuke
eguna luzatzerik balego,
poza mastekatzerik,
negarra mozorrotzerik balego.
Ausentzia moda balitz,
soineko gorriz jantziko nuke,
trenbide zatiekin josi
biklez lotuko nuke.
rroa bazina,
katu egingo nuke,
gela ilun batean itxita,
ak eternitate bihurtuko nituzke.
eta erre,
a ke eta kea hodei izan arte.
birikak labana batez urratu
zure ausentziaren ordez,
baren hautsa zabalduz

Literatura gorriaren ordezkariak

Vladimir gorria da. Vladimir sobietarra da. Vladimir zarauztarra da. Vladimir literatur talde bat da. Hori guztiori batu, eta *Vladimir* aldizkari bat ere bada: literatura gorriaren txoko txiki bat mundu zabalean.

Vladimirreko kamisetak jantzita zituztela agertu ziren hitzordura taldeko bost gazteak: Garikoitz Berazaluze, **Barkatu ama**-ko kolaboratzailea, Ekaitz Berasaluze, Jurgi Olaizola, Jon Benito eta Iñaki Gurrutxaga. Orain bi urte sortu zuten Vladimir, 1997. urtean, Sobietar Iraultzaren 80. urteurrenean. Taldea sortu bezain laster, aldizkaria sortu zuten: *Vladimir* hau ere.

Argi dute taldekideek: «Sobietar Iraultza garaiko nostalgikoak», dira. Hilabetekaria kaleratzeaz gain, bestelako literatur ekitaldiak ere antolatzen dituztelako akaso. *Idazleak kalean* egitaraua, esate baterako. Hala, bi hilabetetik behin solasaldiak antolatzen dituzte. Apirilean, esaterako, Unai Iturriaga izango da Zarautzen, eta maiatzean, Jasone Osoro. Errezital bat ere prestatu du Vladimir taldeak, eta apirilaren 16an aurkeztuko dute, Zarautzen bertan, Arrano tabernan seguru asko.

«Idazle gorriak nahiko ahaztuta daude, eta nahiz eta hor egon, jendeak ez ditu ezagutzen»,

Idazle ezkertiarren txokoa

Idazle ezkertiarren txokoa izan nahi du aldizkariak, eta oraingoz 25 pezetan edo libera batean saltzen dute hilabetekaria, tabernetan. Era berean bazkide sarea ere sortu dute. Hala, bazkide egin nahi duenak 32 pezetako edo libera bateko zigiluak bidaltzea besterik ez du ondoko posta kutxara: 391 Zarautz (vladimirbrigadak@yahoo.com). 60 bat bazkide ditugu, eta horietatik 12 presoak dira, azaldu dute. Pasadizoak ere badituzte: «Aurreko astean gutunazal bat jaso genuen, 3.000 pezeta zituen barnean. Mitxel Sarasketa preso ohiak bidali zizkigun beste lauzpabost presorentzako harpidetza egiteko: Karmelo Landa, Irusta...». «Orain Mitxel gure ohorezko bazkidea da», diote. Literatura gorriaren fanzinea kaleratzen dute, idazle ezkerzaleak aldarrikatzeko. «Idazle gorriak nahiko ahaztuta daude, eta nahiz eta hor egon, ez dituzte ezagutzen», iritzi diote.

Gazteak irakurri?

«Gazteak eta literatura? Ez dago inolako mugimendurik», diote. Telebistan emandako inkesta bat jarri dute horren adibidetzat. «Zarautzen egin zuten inkesta, eta erantzunak oso txarrak izan ziren. Inork ez du irakurtzen. Gazteek klasean agindutakoa bajkarrik irakurtzen dute», dio Ekaitzek. Badirudi, ordea, Vladimir taldeko gehienak alderantzizkoa egiten dutela: «Guk ikasi beharrean irakurri egiten dugu klasean», esan dute. Asko irakurtzen dute, baina gustuko dutena bakarrik. «Kafka hartuz gero... hilabeteak», dio Jurgik barrezka. Gero jakin dugu badabilela liburu bat amaitzeko ahaleginetan. Beste galdera bat egin diegu amaitu aurretik: «Nor omenduko zenukete?». «Omenaldi bat egitekotan Sarrionandiari egingo genioke», erantzun dute. «Eta nori ez? Loreak mendian eta behiak larrean daudela dioten liburuen egileei».

Vladimir zer eta nolakoa den guk azaltzea baino egileen hitzak jasotzea hobe dela pentsatu dugu. Horregatik jaso dugu ondoren *Vladimir* aldizkariaren lehen aleko editoriala.

Literatura gorriaren eztanda da hau, kamarada. Aspertuta gaude loreak mendian eta behiak larrean daudela dioten liburuekin, kalean sua, odola eta gasolina usaina besterik topatzen ez dugun bitartean. Horregatik sortu dugu *Vladimir*, batera hiltzen ikasi behar izan dugulako, bizitzen hasteko. Hemen gerra ez delako amaitu. Poeta guztiak ez daudelako kartzelan eta hilerrian. Oraindik ez gaituzte derrotatu eta izanen dute aurrerantzean gure berri. Hilero, Vladimir Brigadak sinatuta. Literatura munduko itsasoetan dabilen untzi boiatu bat izan daitekeen bitartean, iraultzaren berri onak herrietan barrena zabaltzeko. Lenin, Maiakovski eta gure odolaren gorria bezala, Vladimir.

Sepultura

Berpizte indartsua

Sepultura Brasilgo taldeak Bilboko Kasilla kiroldegian joko du datorren asteartean Anthrax taldearekin batera

Max Cavalera abeslariak alde egin eta taldeak *Against* diskoa kaleratu du

Derrick Green estatu batuarra da taldeko kantari berria.

mikel lizarralde

Sepultura itzuli egin da. Orain dela hiru urte *Roots* diskoak izandako arrakasta kontuan izanik, ez dirudi arraroa denik; baina, harrezkeroztik talde barruan izan diren aldaketei erreparatzen badiegu, ordea, ez zegoen horren argi Brasilgo talde ezagunenarekin zer gertatuko zen. Max Cavaleraren eta beste taldekideen arteko harremanak ez ziren orduan oso onak, eta taldeko *frontman*-ak taldea uztea erabaki zuen azkenean, orain dela urte pare bat. Cavalera Sepulturako abeslaria eta konpositorea zen, eta baita taldeko kide ezagunena ere. Hark taldea utzi eta Soulfly talde berria sortu ondoren, jende askok hilda ikusi zuen Sepultura. Taldean gelditu ziren kideek ere ez zuten batere garbi zer gertatuko zen: «Urte eta erdi honetan aukera guztiak aztertu ditugu. Dena pikotara bidaltzea ere pasatu zitzaigun burutik, baina une larriak ziren eta ez genuen inolako erabakirik hartu. Lasai hartu genuen, dena ondo pentsatzeko», azaldu du Andreas Kisser taldeko gitarra joleak.

Derrick Green estatubatuarra da Sepulturako abeslari berria

Maxek taldea utzi ondoren, gainerako kideek (Andreas, Igor Cavalera eta Paulo Pinto) abesti berriak egiteari ekin zioten, taldearekin zer egin jakiteko asmoz. Igorrek berak azaldu duenez, horrek eman zion taldeari aurrera segitzeko indarra: «Ez genekien Sepultura izena erabiltzen jarraitu behar genuen . Abesti batzuk idaztzi eta Sepulturaren antzik ez bazuten izen hori ez erabiltzea hitzartu genuen. Baina abesti batzuk genituenean, ikusi genuen izenarekin jarraitzea guztiz arrazoitua zegoela».

Maxek taldea utzi zuenez, abeslari berri bat du gaur egun Sepulturak, Derrick Green estatu batuarra. Bigarren mailako *hard-core* talde pare batean, Outface eta Overfriend-en, arituta zegoen Derrick, eta azken talde horren maketa bat bidali zien Sepulturakoei entzun zezaten: «*Chocke* abestiaren grabazio bat bidali genion eta ahotsa jartzeko eskatu genion. Asko gustatu zitzaigun, eta Brasilera etortzeko gonbita egin genion. Hasierahasieratik konturatu ginen gure gizona zela, ez bakarrik abesten duen eragatik, baizik eta gu bezalakoa delako», esan digu Andreasek.

Nahiz eta Max ordezkatzera etorri, Derrickek garbi zuen Cavaleraren estiloa imitatzea ezinezkoa izango zela: «Ez nekien ni zer norabidetan joatea nahi zuten, baina garbi nuen Maxen berdina zen abeslari bat izan nahi bazuten ez nintzatekeela jokoan sartuko».

Taldekide berria izanik, joan zen urtean itzuleraren diskoa grabatu zuen Sepulturak: *Against*. *Roots*-en landutako erritmo tribalak guztiz baztertu gabe, aurreko diskoetako *trash*-era itzuli da taldea, baina badu japoniar ukitu bat ere, Andreasek dioenez: «*Kaimatachi* kantua Kodo perkusio talde japoniarrarekin grabatu genuen. Lau egun eman genituen Japonian, eta oso interesgarria izan zen beste musika kultura bateko elementuak erabiltzea. Diskoak badu ukitu japoniar bat, baina ez da *Roots*-en azaltzen zen eragin brasildarra bezain nabarmena».

Sepultura izango da datorren asteko kontzertuko izarra, baina Brasilgo taldearen aurretik, metalaren arloan bere tokia izan duen beste talde batek joko du; Anthraxek hain zuzen ere.



GARAJE H "al duro y sin guante"

CD -MC MOTIVES "Chansons de lutte" "borroka kantak"

Fun lovin' criminals

% 100 newyorktarra

Fun lovin' criminals, New York hirian azkenaldian sortu den funk-pop talde interesgarrienetakoa, Euskal Herrian izango da asteburu honetan; Gasteizko El Elefante Blanco aretoan, hain zuzen ere. Fun lovin' criminals bere bigarren CDa aurkeztera dator: *100 % Colombian*. Soulez, hip hopez, popez eta batez ere 70eko hamarkadako funk espirituaz jantziriko lana da.

Atzera egiten badugu, ohartuko gara Fun lovin' criminalsen lehenengo urratsak bitxiak izan zirela. Taldeko gitarra jole eta abeslari Hueyk azaldu duenez, Limelight izeneko klub baten inguruan mugitzen ziren taldeko hiru partaideak, eta han sortu zen guztia: "Nik tabernan egiten nuen lan, Fastek telefono deiak erantzuten zituen, eta Steve tabernan egoten zen alkoholiko bat zen. Elkar ezagutu genuen eta behin, lagun baten urtebetetze jaian geundela, jo-

Hitzek lapurretak, hilketak edo polizia jazarpenak dituzte hizpide

tzen hasi ginen.

Jendea gustura zegoen gurekin, eta lokalaren jabeak esan zigun talderen batek huts egiten bazuen gu izango ginela ordezkoak, guri ordaindu beharrik ez zeukalako. Sei kontzertu eskaini genituen han, eta haiek amaitu ondoren, EMI disketxeko ordezkari bat etorri zitzaigun disko bat grabatzeko proposamenarekin. Oso gustura erantzun genion baietz".

Dirudienez, Limelighten elkartu aurretik, Fastek hamabost urte igaro zituen espetxean, eta Steve, berriz, basozain aritu zen Alaskan. Lehendabizikoaren esperientziak, antza, eragina izan du Fun lovin' criminalsen hitzetan; izan ere, taldearen abestiak lapurretaz, hilketaz, polizia jazarpenez eta mafiosoz beteta daude.

Taldearen lehenengo diskoan –*Come find yourself* (1996)– jada azaltzen ziren taldearen ezaugarri nagusiak; nahikoa hitz *makarrak* eta hip-hop, rock eta funk doinuak. Bi urte geroago, 1998an, bigarren lana kaleratu zuen taldeak: *100 % Colombian* entzutetsua. "*Kolonbiar* hitza zerbait ona dela adierazteko erabiltzen dugu, eta oso-oso ona bada, orduan % 100ean da kolonbiarra. Badakit jende askok drogaren gaiarekin lotzen duela, baina Websterrekin [EEBBetako telebistako haur aktore bat] oheratzen naizela esaten ez duten bitartean, ez zait axola", dio Hueyk izenburuari buruz. Dena dela, Kolonbiako Gobernuari ez ei zaio askorik gustatu herrialde horri egindako aipamena.

100 % Colombian diskoan baretu egin dute beren musika, eta zenbait funk-rock eraso badira ere, soula nagusitu da, hip-hoparekin batera. Soul dotorea da, gauean entzun beharrekoa, eta badu lizuntasun ukitu bat ere; batez ere Barry White 70eko hamarkadako funk kantaria *Love unlimited* abestian omentzen dutenean. Aipatzekoa da, halaber, BB Kingek bere gitarra jotzen duela diskoari agur esaten dion *Mini bar blues* abestian.

Fun lovin' criminalsek igandean joko du Gasteizko El Elefante blanco aretoan. ▪ mikel lizarralde

Sexy Sadie

Pop klasizismoa

mikel lizarralde

Mallorca toki eguzkitsua da, alemaniarrek kolonizatu duten udako paradisu bat. Agian eguraldiak lagunduta, uharte horretatik eta inguru-koetatik ateratzen diren talde askok pop garbia, distiratsua eta alaia egiten dute. Orain dela urte batzuk Los Valendas izan zen uharteen ordezkari nagusia, azken aldian Sunflowers indarrez azaldu da, eta bien artean Sexy Sadie egon da, bihar (ostirala) Donostiako Gazteszena aretoan joko duen taldea.

Pop garbia eta distiratsua aipatu dugu. Eta erromantikoa gaineratu beharko genuke Sexy Sadieren kasuan. Taldearen azken diskoaren izenburuak –*It's beautiful, it's love*– adierazten duen legez, maitasuna helarazten baitute kantu asko eta askok.

Beti ez da horrela izan, ordea. Gaur egun, poperako joera nagusitzen bada ere talde barruan, orain dela bi urte Sexy Sadiek beste norabide bat hartuko zuela pentsa zitekeen. Big Toxic, elektronikaren eta nahasketen alorrean lan egin duen musikariak, taldearen *Onion soup* diskoaren nahasketa egin zuen 1997an eta Mallorcako taldea esperimentazio elektronikoaren bidean sartu zuen. *Onion soup triturated by Big Toxic* lanak oihartzun handia izan zuen –bere jatorrian zegoen diskoak baino gehiago–, eta gainera, lehenengo aldiz, formazio klasikoko talde bat artista elektroniko batekin elkartu zen zuzeneko kontzertuetan. Sexy Sadiek eta Big Toxicek elkarrekin egin zuten bira, eta iazko Festimad jaialdian, adibidez, Mallorcako taldeak bi kontzertu eskaini zituen. Bat Big Toxicekin eta bestea disko berria izango zena aurkezten.

Disko berrian elektronikari agur esan diote, modu agerian behintzat. Taldekideek azaldu dutenez, Onion soup-en jarraipen logikoa da *It's beautiful, it's love*: "Ez dut uste jendeak Big Toxicekin egindakoaren jarraipena espero zuenik. Beharbada fusio pixka bat bai, baina geure esparrura eramanda. *Onion soup trituraded...* bidearen albo batera egindako jauzi bat baino ez zen izan".

Lan berrian pop klasikoaren arrastoak askoz nabariagoak dira, besteak beste *A brand new love, Stay behind me* eta *May* abestietan. Horiek eta dagoeneko oso ezagun egin diren beste kantu batzuk –*Mr. Nobody, In the water*– entzungo dira Donostiako kontzertuan.

diskoak



Paul Fuster
36 weeks ■ Wheat Machine



Kantautoreen lekukoa

Historia bitxia, bai horixe, Paul Fuster estatu batuarrarena. Orain dela urte batzuk Espainiako Estatura etorri zen, eta gaur egun Katalunian bizi da; Bartzelonan hain zuzen ere. Musikari baten alderdirik *lazgarriena* ezagutu (Bartzelonako kaleetan abestu izan du), eta primerako diskoa oparitu digu. Musika industriak ezarritako modak zapaltzen dituzten testuak musikatuz, norberaren alderdirik ezkutuenak birsortuz eta ahantzitako kantautoreen lekukoa hartuz (zorionez, salbuespenak izan ohi dira) agertu zaigu Fuster.

Gauza asko topa ditzakegu disko honetan: testuen freskotasuna, nahiz eta gai latzak ukitu; Bob Dylanen kale existentzialismoa; Ani Difrancoren ausardia freskagarria... Azken batean, eguneroko desioen uharte ezezaguna osatzen du Paul Fusterrek *36 weeks* honetan. Bizipen pertsonalak eta bere inguruan hausnartutako egoerak biltzen ditu Paulek, horri guztiari erabateko ikuspuntu pertsonala emanez.

Esan bezala, betiko amerikar kantautoreen bideari jarraitzen dio Fusterrek, eta, ziurrenik, hurrengoko diskoetan beteko egingo ditu honek dituen hutsuneak. Zorigaiztoarekin bat egiten dugularik kateak hausten dituen kantautore bat dugu Paul Fuster. ■ **haritz quintana**

Natacha Atlas
Gedida ■ Everlasting

Gedida du izena Transglobal Underground taldeko kantariaren bakarkako hirugarren lanak, eta, *Halim* aurreko lanaren ildo beretik doanez, haren ondorengo logikotzat har dezakegu. Kantariak bere erro arabiarretan ikertzen jarraitzen du, eta, bere taldeko kide diren Tim Garsaayid eta Hamid Manturen laguntzaz, Egiptoko Chaabi musikaz igurtzita datozkigun hamaika kantu hauek eskaini dizkigu, bere izena hain sonatu egin duten uztarketa technoak alde batera utzi gabe. Azken finean, ezin ahaztu Atlas anderea garai batean hain indartsu ibilitako mugida etnotechno-aren musa nagusietako bat izan dela, eta lan honen bidez bere sormenaren egoera ona baieztatu nahi digu, inor harrituko ez badu ere.

Lanaren zati bat Egipton grabatua egoteak indartu egiten du gero eta indartsuagoa den artistaren alde arabiarra, eta, beraz, dantza musikaren zaleek agian erritmo gogorragoen falta sumatuko badute ere, guri lan aipagarria irudi-tu zaigu, eta bereziki aholkatu nahi diogu musika arabiarrarekin lehen kontaktua egin nahi duen edonori. ■ **andoni tolosa**



Los Super Seven
Los Super Seven
■ RCA USA-BMG

Zeintzuk dira super zazpi hauek? Flaco Jimenez eta Freddy Fender (Texas Tornados), David Hidalgo eta Cesar Rosas (Los Lobos), Joe Ely Texasko kantari beteranoa, Ruben Ramos *El Gato Negro* (Texas Revolution) eta Rick Treviño, country izar chicano bakarra. Beraz, benetako megabanda. 13 kantu hauetan muga aldeko estandar pilo bat: *El canoero* (Valerio Longoriak moldaturiko cumbia), *Piensa en mí* (Lydia Mendozak grabatu zuen orain dela ia 70 urte), *La sirena, Un lunes por la mañana, La morena...* Ingelesez egindako pieza bakarra, Woody Guthrieren *Plane wreck at Los Gatos (Deportee)*, Joe Elyk kantatzen du era hunkigarrian. Hainbeste jende bildu arren, diskoa ez da gogorregia edo rockeroegia, muga aldeko espiritu lasaiaz eta jai giroan bizi baita. Lan akustikoa dugu batik bat, Steve Berlin ekoizlearen eskutik. Grammy bat irabazi berri dute -bestea, tex mex arloan, Flaco Jimenezek irabazi zuen-. Ez dakigu hemen ikusteko aukera izango dugun: 41 minutu oso gutxi dira hain disko ederra gozatzeko... baina konformatu egin behar. ■ **roberto kribi**

Triana
En libertad ■ Pies

70eko hamarkadaren amaieran eta 80koaren hasieran, Triana talde maitatu bezain gorrotatua zen. Flamenkoaren eta rockaren (edo poparen) arteko fusioak ez zuen gaur egun duen onesmena, eta Jesus de la Rosak gidatzen zuen taldeak garaiko modernitatearen arbuiatzea sofritu behar izan zuen. Rock gogorraren eta sinfonikoaren zaleek, ordea, talde miretsia zuten. Dena den, garai haiek aspaldi pasatu ziren, Jesus de la Rosa zendu zen eta Tele Palacios bateria joleak gorde du Trianaren sua piztuta.

CD bikoitz hau bitxia da. Lehenengo atalean, Telek bere gaurko taldekideekin egindako kantu berriak azaltzen dira. Trianaren alderik astunena da, zalantzarik gabe. Teklatu gogaikarriak, heavy sinfonikorako joera duten gitarrak... Medina Azahararen antza hartzen diot. Bigarren CDa, berriz, askoz interesgarriagoa da. Jesus de la Rosak kaset batean grabatuta lagatako zazpi kantu berreskuratu eta musika erantsi zioten Trianako hasierako partaideek 1983an, eta, inondik ere, abesti horiek beste espiritu bat dute. Poperako joera nabaria dute bitxitasun horiek, eta *Jueves por la mañana* bezalako kantuak bluesez zipriztinduta daude. Hau da, gertuago dituzte Pata Negra eta Kiko Veneno, Medina Azahara baino. ■ **mikel lizarralde**

Morau-ren... 10 ezinbestekoak

1. Cantigas do maio (Jose Afonso)
Azken 30 urteotan, herri musiken alorrean, behintzat, Europako tiporik garrantzitsuena izan da. Berezia da niretzat.

2. Small change (Tom Waits)
Bertan daude ni bereziki hunkitzen nauten bi kantu: *Tom Trauber's blues* eta *The piano has been drinking*. Waits crooner aluzinatu izugarria da.

3. The dust storm ballad (Woody Guthrie)
Izugarria da zer-nolako sentsazioak transmititzen dituen gitarrarekin. Kantautore modernoen oinarria da.

4. Talking with the taxman about poetry (Billy Bragg)
Kantari hasi nintzenean, erreferentzia nagusi izan nuen. Punk espiritutik oso hurbil dago, baina kantautoreen edukia mantentzen du.

5. Ni ez naiz Noruegako errege (Ruper Ordorika)
Euskal kantagintzako diskorik biribilenetakoa da. Kantuak nola eraiki daitezkeen ikusteko lan aproposa da.

6. Song of love. Live (Mark Eitzel)
Tristea eta malenkoniatsua da, baina batez ere gordina. Oso gutxitan lortu da zuzeneko disko batean halako indarra.

7. J'ai vu le loup la renard et la belette (Les freres balfa)
Asko maite dudan *cajun* musika deskubritu zidan. Cajun erabat tradizionala da, lehengo estiloan jota. Nire bizitzan erosi nituen lehen biniloetako bat izan zen.

8. Kismet (Marta Sebastien)
Europak duen ahotsik hunkigarrienetako bat, eta disko honek oilolarrua jartzen dit.

9. Amen (Salif Keita)
Harreman berezia dut berarekin, hortik aurrera hasi nintzelako musika afrikarrean ikertzen.

10. Rosensfole (Jan Garbarek-Agnes Buen Garnas)
Norvegiako Erdi Aroko kantuez eginiko lana da, eta hau entzunda hobeto ulertzen da Hendingarnak eta antzeko taldeek egindako lana.

antena jarrita

Duncan Dhu-k bost urteko etenaldia amaitu eta zuzeneko emanaldietara itzultzea erabaki du. Orain dela bost urte, Donostiako talde horrek zuzeneko disko bat grabatu zuen Victoria Eugenia antzokian, eta harrezkeroztik taldeko bi kideek, Mikel Erentxunek eta Diego Vasallok, bakarkako proiektuetan jarri dituzte indarrak. Joan den urtean taldearen ibilbidea laburbiltzen duen *Colección 1985-1998* izeneko bilduma kaleratu zuen Duncan Dhuk, eta lan horrek izandako arrakasta aintzat hartuta, bira bati ekitea erabaki dute orain. Donostiarrek Gasteizen joko dute apirilean, Bilbon eta Donostian maiatzean eta Iruñean ekainean.

EH Sukarra Eibarko taldeak disko berria kaleratuko du Esan Ozenki disketxearen eskutik. Berrizko Lorentzo Records estudioetan ari dira egunotan lan berria grabatzen, Aitor Ariño eta Batis teknikari dituztela. Apirilaren azken egunean aurkeztuko dute disko berria, zeinak taldearen hasierako erritmo bertsuak dituen.

Benicassimgo jaialdiko arduradunak dagoeneko hasi dira jaialdia prestatzen, orain-dik jakin ez arren zein taldek parte hartuko duten. Aurtengo FIB abuztuko 6, 7 eta 8an egingo da, eta, ohi bezala, kontzertuak hainbat agertokitan izango dira. Musika elektronikoak ere bere txokoa izango du jaialdian. Oraindik konfirmatu gabe daude Benicassimen izango diren abeslari eta taldeak.

1992an irekitako bideari jarraituz, Tolosako Galtzaundi euskara taldeak ***Martxaundi III*** bilduma argitaratu du orain dela aste gutxi. CD horretan Tolosaldeko hamahiru taldek hartu dute parte, musika mota ezberdinak jorratzen dituztenak: Triki Up, Waika, Ozel, Achtung, Fox III Face, Eider eta Oihana, Bluesez-blai, Ansia, Anitz, Muxutruk, Rebeldy Tximak, Regimen Brutal eta Humus taldeek. *Martxaundiren* lehen zenbakia 1992an azaldu zen, eta bigarrena 1995ean. Aipatzekoa da Deabruak Teilatuetan, The Window Ventanas eta Marruma taldeen lehenengo abestiak azaldu zirela bilduma horietan.

kontzertuen agenda

Leku hau zabalik duzu zure ekitaldien berri emateko

Abisua astearte eguerdiko 14:00ak baino lehen eman ezazu, arren

Osteguna 25

- ARRASATE ▸ **Redshift** eta **Gospel Killers**. Gaztetxean, 19:00etan.
- AZPEITIA ▸ **Patxi Saiz**. Orkatz kultur elkartean, 21:30etan.
- BAIONA ▸ **DJ Mattiu** eta **DJ Francko**. Txitxaki ostatuan.
- BILBO ▸ **Los Caraconos, Fragil** eta **Sparky's dreams**. Bilborock aretoan, 20:00etan. Bilbao Hiria pop-rock lehiaketa. Pop atala.
- ▸ **Hipster**. Mina Espazio aretoan, 20:00etan.
- ▸ **Labrit Zabala**. Deustuko Izangoan tabernan, 21:00etan.
- ▸ **Jazz Pa'Trazz**. Palladium aretoan, 21:00etan eta 22:30etan. 1.200 pezetan. Acid jazz eta funk taldea.
- DONOSTIA ▸ **DJ Pez.**. Etxekalten.
- ▸ **Guinness**. Molly Malone pub-ean. Doan.
- GALDAKAO ▸ **Ambassadors**. Urkin, 21:30etan. Doan.
- GETXO ▸ **Jez Lowe**. Getxo Antzokian. Musiketan zikloaren barruan. Blues eta folk abeslari irlandarra.
- IRUÑEA ▸ **Señor No**. Terminal tabernan, 21:30etan.
- MADRIL ▸ **La Venganza de la abuela**. El Sol aretoan.

Ostirala 26

- AITZOAIN ▸ **Π. L. T.** Artsaia aretoan.
- ARRIGORRIAGA ▸ **Patxi Kaleko** eta **Fanbaltz**. 20:00etan.
- AZPEITIA ▸ **Benito Lertxundi**. Kiroldegian, 22:30etan. Uztarria kultur koordinadorak antolatua.
- BAIONA ▸ **Sonoma**. Txitxaki ostatuan. Reggae taldea.
- BERA ▸ **Bide Ertzean** eta **Tabu Tabar**. Pui ostatuan, 22:00etan. Kultur Errotaren barruan.
- BERGARA ▸ **Gigatron**. Jam aretoan.
- BILBO ▸ **Extremoduro** eta **Fito y Fitipaldis**. Casilla kiroldegian.
- ▸ **Gollum Friends** eta **gonbidatua**. Bilborock aretoan, 21:00etan.
- DONOSTIA ▸ **Sexy Sadie eta Uler-600**. Gazteszena aretoan, 21:00etan.
- ▸ **DJ Gazton**. Etxekalten.
- ELGETA ▸ **Tapia eta Leturia** Intxorta elkartean. *Goibekokale* aldizkariaren afaria.
- ELGOIBAR ▸ **Iheitza**. Gaztetxean, 22:00etan. Doan.
- ELORRIO ▸ **Imanol Lartzabal**. Arriola kultur etxean, 22:30etan.
- ▸ **M.C.D.** Gaztetxean, 22:30etan.
- IRUN ▸ **Gothić Sex, Perfomance eta The Art of Butcher**. Tunk! aretoan, 22:00etan. 800 pezetan..
- ▸ **Petti**. Kabigorri ateneoan, 22:00etan.
- LASARTE ▸ **DJ M&M**. Zulo aretoan.
- ▸ **Mama Iguana**. Manuel Lekuona kultur etxean, 22:30etan. 500 pezetan.
- LAUDIO ▸ **Zea Mays**. Sorgiñe tabernan.
- LEKUINE ▸ **Hats, Dementzia, Haurtzarrak** eta **Lofofora**. 21:30etan puntuan. R-Dizkaren kontzertu jaia.
- LIZARRA ▸ **Xabaltz**.
- MUTRIKU ▸ **Anje Duhalde**. Kofradia Zaharra tabernan, 22:30etan..
- TOLOSA ▸ **Parasma** eta **Brutal Melody**. San Esteban auzoko lokalean, 22:30etan. 400 pezetan.
- ZUMAIA ▸ **Noizbait, Su Ta Gar eta Atxantatu**. Frontoian, 22:30etan. Korrikaren alde.

Larunbata 27

- ANDOAIN ▸ **Jez Lowe**. La Salle ikastetxean.
- ARRASATE ▸ **Señor No, Discipulos de Dionisos** eta **Los oscuros**. Gaztetxean, 22:00etan.
- AZPEITIA ▸ **Naun** eta **Hyssopus**.
- BARAKALDO ▸ **Pateando Porkeria**. Erretuertoko gaztetxean, 20:30etan.
- BEASAIN ▸ **Amparanoia, Urtz** eta **Bide Ertzean**. Pilotalekuan, 23:00etan.
- BERGARA ▸ **One Minute Silence**. Jam aretoan, 21:30etan.
- BILBO ▸ **Gigatron** eta **La Pitaja**. Bilborock aretoan, 21:00etan.
- DONOSTIA ▸ **DJ Placida Ye-Ye & Joe**. Etxekalten.
- ELGOIBAR ▸ **Iñaki Salvador, Jexux Artze** eta **Kirikoketa**. Kultur Etxeko sotoan, 23:00etan.
- ERRENTERIA ▸ **Ekova**. Kultur Gunean, 20:00etan.
- IRUN ▸ **Vandals** eta **gonbidatuak**. Tunk! aretoan. Hardcore melodikoa.
- LASARTE ▸ **Cujo** eta **Electra**. Zulo aretoan, 23:00etan. *Artshop* aldizkariaren jaia. Ondoren, **DJ M&M**.
- ▸ **Arima Beltza** eta **Iñaki Labaka**. Jalgi kafe antzokian, 23:00etan. Kultur Errotaren barruan.
- [illegible] ▸ **Joxe Ripiau**. Atxaspi tabernan, 22:30etan.500 pezetan.
- MIARRITZE ▸ **Kepa Junkera**. Bilbao 00:00 h diskoaren aurkezpena.
- SANT-BRIEG (BRETAINIA) ▸ **Skunk**. La Soupiere aretoan, 22:00etan.
- ZALDIBAR ▸ **Keats** eta **Lur**. Katuetxen, 21:00etan. 400 pezetan. Durangaldeko DDT aurkezteko jardunaldien barruan.
- ZORNOTZA ▸ **Txatunga Benbe** eta **trikitixa Kontrairo**.

Igandea 28

- BILBO ▸ **Mr. Jam**. Palladium aretoan, 20:00etan. Doan.
- DONOSTIA ▸ Korrikaren amaiera jaia: **Eneritz eta Marina, Maixa eta Ixiar, Txatunga Benbe, 7 Eskale, Joxe Ripiau** (Bulebarrean), **Berri Txarrak, Latzen, Betagarri** (Zuloaga plazan) eta beste hainbat ekitaldi.
- ▸ **Señor No** eta **Los Oscuros**. Mogambo aretoan. Punk-rock musika.
- EIBAR ▸ **Mai Gorostiaga** eta **Mikel Urdangarin**. Portalean, 18:30etan. 300 pezetan.
- GASTEIZ ▸ **Fun Lovin' Criminals**. El Elefante Blanco aretoan. *100 % Colombian* diskoaren aurkezpena egingo du EEBBetako taldeak.

▼ jagoba manterola

Extremoduroren kantu debekatuak zuzenean

Aurreko astean aipatzen genizuen Extremoduro taldea zuzeneko ekitaldiei ekiteko prest zegoela. Bada, Bergarako Jamen egindako entsegu-kontzertuaren eta joan den astean Iruñean egindako emanaldiaren ondoren, Robe Iniestaren taldeak Bilbon aurkeztuko du asteburu honetan bere azken lana, *Canciones prohibidas*. Iniestarekin batera Iñaki *Uoho* Platero y Tu taldeko gitarrajolea arituko da besteak beste. Extremodurok taula gaina hartu aurretik Fito y Fitipaldisek joko du.

Astelehena 29

- BREST (BRETAINIA) ▸ **Skunk**. La Tete Raide aretoan, 22:00etan.
- IRUÑEA ▸ **Frantxua Cousteau, Marie-Helene Estecahandy, Txomin Hegi** eta **Maddi Oihenart**. Erraldoien txokoan, 20:00etan.

Astearte 30

- BILBO ▸ **Sepultura** eta **Anthrax**. Casilla kiroldegian, 21:00etan.
- ▸ **Lif** eta **Akauzazte**. Kafe Antzokian, 22:00etan.
- BREST (BRETAINIA) ▸ **Skunk**. La Tete Raide aretoan, 22:00etan.

Asteazkena 31

- BREST (BRETAINIA) ▸ **Skunk** eta **Grim Skunk**. La Tete Raide aretoan, 22:00etan.
- LEIOA ▸ **Maixa ta Ixiar**. Unibertsitateko campuseko areto nagusian, 12:00etan.

ZOZKETAK

Oraindik denbora duzue Brutal Thin Algecirasko metal taldearen singleen zozketan parte hartzeko. Idatzi barkatu ama-ra eta kontaiguzue zer iritzi duzuen gaur egungo metal musikari buruz.

Abian da oraindik Tunk! aretoan izan diren edo izango diren talde batzuen lanen zozketa. Hauek dira zozketatuko ditugun lanak: Hepcat ska taldearen hamar singlekaset, Gothic Sex taldearen lau CD eta Manolo Kabezaboloren azken diskoaren ale pare bat

zuzenean

Bilbo Hiriko XI. Pop-Rock Lehiaketa. Martxoaren 18a: Juguetes Rotos (Bilbo), The Umbrella Hating Generation (Madril) eta Fang (Banyoles).

Katalunia alderantz aurten ere

roberto kribi

Juguetes Rotos Bilboko boskotea dugu: hiru gitarra akustiko -kantaria haien artean-, baxua eta bateria. Eserita agertu ziren taldekideak, eta hor hasi zen Charly -Wers, La Casa Usher...- galtzaile baten rola garatzen. Gaztelaniaz idatzitako hitzetan, bizitza bera dute gai, eta amerikar rock aldera jotzen dute batez ere, era akustikoaz. Kantaria askotan ikusi dugu Bilboko lehiaketan; horregatik erakutsi zuen halako adore eta gogogoa agertokian. Sariketatik at jo zuten.

The Umbrella Hating Generation Madrildik dator; zazpi gazte dira, eta ingelesez aritu ziren. Instrumentuen artean, biolontxelo bat eta tronpa bat -dena dela, oso gutxitan entzun genuen tronpa-. Le Mans eta Beautiful South banden arteko lurraldean mugitzen dira, baina hobeto egin beharko dute jendaurrean bizitasun handiagoa erakusteko. Emakumezko txelo jolea izerditan ibili zen, arkua gora eta behera, eta musikari batzuek elkarri aldatu zizkioten instrumentuak -bateria, baxua eta akustikoa, hain zuzen-. Baina kantariak, «hemengo» neska batek -berak esanda-, oso ahots laua erakutsi zuen -gogoa bezalakoa-. Neurrikoak, besterik gabe.

Eta gero, azkenik, Fang, Gironako bikotea -zuzenean hirugarren musikaria agertzen ohi da, gitarra elektrikoan-. Faboritoen zigilua zekarren talde honek, eta espero genuen baino hobeto egin zuen egin beharrekoa. Kantariak, jantzi estu beltza eta zapata takoidunak jantzita, izugarrizko ahots ederraz kantatu zuen: berehalaxe etorri zitzaizkigun burura kanpoko zenbait bandaren izenak -Cocteau Twins, Portishead, Mazzy Star, Massive Attack...-. Lasai hasi ziren, eta poliki-poliki giroa indartu. Bere lankidea teklatu, sintetizadore eta gitarraz -eta *lap steel guitar* batez- aritu zen, oinarrizko erritmo elektronikoak kontrolatzeaz gain. Kantariak benetako xarma dauka: Bilborock jendez gainezka eduki zuen, txalo bero asko jaso zuen, eta argazkilariek erroilo guztiak agortu zituzten. Gauzak asko aldatzen ez badira, Bilboko lehiaketako txapelduna kataluniarra izango dugu aurten ere.

azken portuko tabernan

garikoitz berasaluze

Alain Michel datorren

Paristik artista

▲ xouse simal

Nortasun agiria

Parisen jaio zen, 1969ko otsailaren 10ean. Hainbat lekutan bizi izan da, baita Londresen ere, baina gaur egun Igorren bizi da, Bizkaian, bi neskarekin batera. Zenbait ogibide izan ditu, baina gaztetandik musika izan du lagun, eta ia hogei taldetan jo du. Duela hiruzpalau urte heldu zen Baionara, eta Bordelen lanean ari zela egin zuen topo King Mafrundi taldearekin. Taldeko abeslaria da egun. ETBko *Zoombados* programan, berriz, aktore gisa egiten du lan. Gitarra irakasten du Bilbon, eta Korrikaren abestian eta bideoan ere parte hartu du.

Aita Guadalupekoa du Alainek, karibearra, eta ama bretainiarra. Bera, berriz, Parisen jaio zen. Txikitan musikaria izan nahi zuen, betidanik. «Eskolan nahiko ikasle txarra nintzen. Kaiera guztietan gitarrak marrazten nituen. Beti musika nuen gogoan».

Lehen gitarra ere berak erosi zuen, gainontzeko guztiak bezala. «Hasieran nire gurasoak ez zeuden oso ados nire musikari ibilbidearekin, eta hemezortzi urterekin etxetik joan nintzen, musika egiteko». Autoak garbitzen irabazitako diruarekin erosi zuen bere lehen gitarra. Hura lagun izan zuen urteetan. Gurasoen etxetik joan eta gero, Parisko beste etxe batean bizi zela izan zuen lehen harreman estua musikarekin.

Sosak, ordea, antzerkigintzan irabazi ditu batik bat. «Antzerkian egin nuen lan. Argiak eta soinua erabiltzen ikasi nuen; bost urte eman nituen lan hartan. Hiru Parisen eta bi Bordelen. Ongi irabazten nuen, bizitzeko bai. Baina musika nuen beti gogoan, eta guztia utzi nuen erabat musikari heltzeko». Hamar urte dira Alainek erabaki hura hartu zuenetik, eta ordutik egunero hiruzpalau ordu aritzen da gitarra jotzen. «Eskolara bidean, ezkutatu eta bazter batean gitarra jotzen aritzen nintzen, piper eginda», esan digu.

Bordelen, antzerkigintzan lanean ari zela, King Mafrundi taldeak gitarra jole bat behar zuela jakin zuen, eta ordutik honakoak badakizkigu. Lehenago, ordea, ia hogei taldetan aritu da Alain. «Batik bat heavy eta hard-rock musika jo dut, baina baita jazza eta abarrak ere. Sekula arrakastarik izan ez duten disko ugari ditut talde ezberdinekin». Ektor, Tommy-Faganne edota Funkalion dira horietako talde batzuk.

Orain, King Mafrundiren hirugarren diskoa prestatzen ari da taldekideekin batera. Neskalagunarekin eta π.L.T taldeko lagun batekin, berriz, Pentsamenduak Hitz taldea sortu du, eta egitasmo honetan ari da lanean gogotsu. Bi taldeetan euskaraz abesten du. Orain bi urte ez zekien euskararik, baina AEKn eman dituen orduek eman dute fruitua. Etxeko bi neska euskaldunek ere asko laguntzen diote. Hala ere, «pixkanaka-pixkanaka» ari dela aitortu digu. Ulertu, ordea, ia erabat ulertzen du. Abestien hitzak, beraz, ikasi egiten ditu. «Baina ez da buruz ikastea bakarrik. Badakit zer esaten dudan».

Hertzainak-en kantu zahar baten hitzak gogoratu dizkiogunean, «Euskal Herrian reggaeak ez du dirurik emanen», erantzun digu Alainek. «Zaila da hemen musikatik ongi bizitzea. Talde batek edo bestek lortzen du, eta baita berbena taldeek ere. Baina reggaetik behintzat ezin da bizi. Hemendik irten behar da horretarako». Baina Bob Marley Euskal Herrian gustura biziko litzatekeen galdetuta, zalantzak ditu Alainek. Irribarrez erantzun digu: «Jamaikan bezala biziko litzateke. Paisaia ezberdina litzateke, baina bere kolorea eta bere bizi baldintza justifikatu beharko luke. Nondik datorren eta nora doan ez dakien afrikar gizarajoarena».

bat-batean

- **Liburu bat?** Charles Baudelaireren *Les fleurs du mal.*
- **Film bat?** *Les vabeuses.*
- **Hiru musika talde?** Prince, Metallica, Marruma eta Joxe Ripiau.
- **Jaki gustukoena?** Colomboa. Karibeko jaki bat da.
- **Bizitzeko herri edo hiri bat?** Igorre.
- **Pertsonaia historiko bat?** Che Guevara.
- **Uharte batera eramateko hiru aukera?** Gitarra bat, emakume bat eta ohea.
- **Noren elkarrizketa irakurriko zenuke hemen gustura?** Jean Marie Le Pen-ena.

infernuko sukaldetik

Excuse me, my english is terrible

harkaitz cano

Horixe da azken hilabeteotan gehien errepikatu dudan esaldia. Nire alde, New Yorken denak ohituta egotea doinurik traketsenera ere. Jendea, animatzeko dago, izorratzeko baino gehiago. Beti egokituko zaizu adarjoleren bat «zure doinu *latino* eder hori ez galtzeko» aholkatuko dizuna. Ez kezkatu horregatik, aixkidea, ez dut eta galduko.

Hurrena berriz, dakizuna baino gehiago dakizula iruditzen zaion norbait tokatuko zaizu, ibilbide luzeko hitzaspertua botako dizuna, zu lehen bihurgunean galdu zarenean. A-ja, noski-noski, lepo keinuak eta begirada zorrotzak tartekatu behar, haria jarraitzen duzulakoa egiteko. Bakarrizketaren bukaeran berriz, erabat ados zaudela esan. Denborarekin ikasten den teknika bat da.

Gogaikarrienak ordea, dakizuna baino gutxiago dakizula uste dutenak dira. Zure ingeles maila kaxkarraren aitorpenari «Bai, ikusten dut penagarri ari zarela» erantzuten diotenak; silabak Gaileten Munstroaren eran ebakitzen hasten direnak, osoko inutila bazina bezala. Horrelakoetan bilatzen duzu faltan zure gaumahaiko kajoian ez daukazun errebolberra.

Hizkuntza asko dakizkien jendea ere badago. Joan den astean, «eskerrik asko» ehun hizkuntzatan esaten zekien emakume bat topatu nuen. Ez zegoen beste hitzetan interesatua. *Bai* eta *ez* hitz primarioak omen dira, keinuen bidez zailtasunik gabe adieraz daitezkeenak. Baina eskerrak ematekoa, askoz ere ekintza gizakoiagoa ei da, garatu eta konplexua. Bere teorien arabera, euskaldunak ez bide gara esker onekoegi izanen, hizkuntza gehienetan eskerrak ematea erraza den bitartean, euskaraz hitz luze eta nahaspilatua erabiltzen dugunez.

Nik uste oso baliagarria litzatekeela sentimendu garatu, gizakoi eta konplexua den «hoa pikutara» ehun bat hizkuntzatan esaten jakitea ere, baina esan dudanez, *my english is terrible*, eta isilik geratzea erabaki nuen. ■ (99-03-24)